



Nerea Arriola
aktoreari
elkarrizketa

Debagoiena:
erronka, turismoa
erakartzea



Bixente Atxa, MU.



Joxean Alustiza, Fagor Taldea.



Maria Ubarretxena, Arrasateko alkatea.



Sebas Zurutuza, Gipuzkoako Diputazioa.



Maite Anton, Mankomunitatea.



Gorka Artola, Bergarako alkatea.




Erronka globalei, erantzun komunitarioa

Debagoiena 2030 aurkeztu dute Eskoriatzan,
eraldaketa mugimendua sustatzeko egitasmoa / 2

ARGAZKIAK: XABIER URZELAI



Juan Jose Ibarretxe, ALC.



Izaro Elorza, Oñatiko alkatea.



Iban Arantzabal, Goiena.




Zigor Ezpeleta, Mondragon Taldea.



Idurre Albizu, Garaia.



Javier Bikuña, Saiolan.



Oier Araiztegi, ULMA Taldea.

Maialen Santos ESKORIATZA

XXI. mendeko erronka globalei erantzun komunitario propioa emango dien eraldaketa mugimendua sustatzeko egitasmoa da Debagoiena 2030. Askotariko eragile eta norbanakoen lankidetzatik, metodologia, proiektu eta ekimen ezberdinak bultzatu eta konektatuz, erronka ezberdinetan inpaktu esanguratsua izan nahi duen sarea ari dira sortzen. Hala, lurraldearen garapen komunitarioan sakonduz, 2050. urterako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoien bateranzko eraldaketa bultzatzea dute helburu lankidetzaren irekia osatzen dutenek.

Hamahiru erakunde lanean

Debagoiena 2030 Garapen Iraunkorrerako Sarearen Gobernu Batzordea osatzen duten eragileek etorkizuneko erronkei "erantzun bateratua" emateko konpromisoa erakutsi zuten atzo goizean, Eskoriatzako Ibarraundi museoa egindako sinadura-ekitaldian. Debagoieneko eta Gipuzkoako izaera askotariko hamahiru erakundek -publikoak, pribatuak zein kooperatibak- sinatu zuten hitzarmena: Fagor, Arrasateko Udala, Oñatiko Udala, Bergarako Udala, ULMA, Debagoieneko Mankomunitatea, Garaia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Goiena, Mondragon, Mondragon Unibertsitatea, Saioian eta Agirre Lehendakaria Center. Horiek ordezkatzuz ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste, Aldundiko Kudeaketa Estrategiako zuzendari nagusi Sebas Zurutuzak, Fagorreko presidente Joxean Alustizak, Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak, Debagoieneko Mankomunitateko presidente Maite



Debagoiena 2030 Sarearen Gobernu Batzordea osatzen duten eragileetako ordezkariak, atzoko sinatze-ekitaldian. XABI URZELAI

Garapen eredu iraunkor baten alde egingo du D2030 egitasmoak

Debagoiena 2030 martxan da, XXI. mendeko erronka globalei erantzun komunitario propioa emango dien eraldaketa mugimendua sustatzeko egitasmoa. Hamahiru erakundek erronkei erantzuteko konpromisoa hartu zuten atzoko sinadura-ekitaldian

"GARAI HISTORIKO BATEN AMAIERAN ETA BERRI BATEN HASIERAN GAUDE"

ELENA HERRARTE, GIZABIDEA

"DNA-N DARAMAGU ERANTZUKIZUN SOZIALAREKIKO KONPROMISOA"

JOXEAN ALUSTIZA, FAGOR

"SINESTEN DUGU ELKARREKIN GAUZAK BESTE MODU BATERA EGIN DAITEZKEELA"

MARIA UBARETXENA, ARRASATEKO UDALA

"HORRELAKO EKIMENEK FRUITUAK GARATUAGO EMATEKO MODUA DUTE"

IBAN ARANTZABAL, GOIENA

"MANKOMUNITATEA SAREAREN PARTE IZATEA EZINBESTEKOA IRUDITZEN ZAIT"

MAITE ANTON, MANKOMUNITATEA

"ETORKIZUNEO LURRALDE OREKAN DEBAGOIENA IZAN DAITEKE AITZINDARI"

SEBAS ZURUTUZA, ALDUNDIA

Antonek, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari Iban Arantzabalek eta Gizabidea Fundazioko Elena Herrartek.

Erronka globalei erantzuna

Sinatze ekitaldiaren bitartez, XXI. mendeko erronka globalei erantzun propio eta bateratua emateko konpromisoa hartu zuten erakundeetako ordezkariak. Honela mintzatu zen ekimenaren gidaritzaren ardura duen Gizabidea Fundazioko Elena Herrarte: "Garai historiko baten amaiera eta berri baten hasieran gaude. Etorkizunera begira, beharrezkoa da erronka hauei erantzuteko modu proaktiboan lanean jartzea". Fagorreko ordezkari Joxean Alustizak azaldu zuen kooperatibek DNAn daramatela "erantzukizun sozialarekiko konpromisoa", eta, beraz, komunitateak eraldatzeko nahia. Ildo beretik, komunitatean lan egitearen garrantziaz mintzatu zen Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea ere: "Sinesten dugu elkarrekin gauzak beste modu batean egin daitezkeela". Goiena Komunikazio Taldeko Iban Arantzabalek azaldu zuen Goienaren kasuan ere komunitatean eragitea izango dela proiektu nagusia: "Uste dut horrelako ekimenei badutela fruituak garatuago eta eragin-korrago emateko modua, eta horretan egin behar dugu lan". Maite Antonek Mankomunitatearen izenean hitz egin zuen, eta adierazi zuen garrantzitsua dela D2030 proiektuaren parte izatea: "Bailara moduan elkartzen gaituen administrazioa da Mankomunitatea, eta sarearen parte izatea ezinbestekoa iruditzen zait". Azkenik, Aldundiko ordezkari Sebas Zurutuzak babesa helarazi gura izan zion proiektu-



DEBAGOIENA, TURISMOARI IREKIA

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA
GOIENA TELEBISTA
URRIAREN 2AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
20 URTE ZUEKIN.



tuari: "Etorkizunera begira Gipuzkoako lurralde orekan lagun dezake D2030ek. Debagoiena aitzindari izan daiteke".

Zazpi eragin eremu

Eskualde adimentsu, inklusibo eta klimatikoki neutro baterantz, 2019. urtean egindako esplorazioan oinarrituta, zazpi dira gaur-gaurkoz identifikatu diren eragin eremu edo arloak; eta horietan eragiteko langintzak aktibatuko dira. Hasteko eta behin, lanaren etorkizunean eragin gura dute sustatzaileek, eta kalitatezko enpleguan oinarritutako lanaren bitartez gizartea eraldatzen jarraitu gura dute. Energia ere izango dute lan-arlo; uste dutelako bailaran erregai fosiletatik energia berriagarrietarako trantsizioa egitea "beharrezkoa" dela. Mugikortasunari dagokionez, garraio partekatuan eta elektromugikortasunean oinarritutako eredu berri bat sustatu gura dute. Bestalde, elikadura sistemetan eraginda, elikagai osasuntsu eta iraunkorren kontsumoa sustatzea da beste helburuetako bat. Hezkuntza eredu berri baten beharra ere ikusten dute; erronka konplexuei aurre egiteko gaitasuna izango duten pertsonak heziko dituen ereduaren beharra. Ekonomia zirkularri dagokionez, garapen eredu "iraunkorra" gura dute, "lineala den eredu ekonomikotik zirkularra igarota". Beste eragin eremuetako bat izango da inklusioa; eta inor baztertu edo atzean utziko ez duen eredu bat sortu gura dute. Azkenik, komunitatean eragiteko datuak eta teknologia berriak komunitatearen ongizate eta garapeneren zerbitzura jarri gura dituzte proiektuaren bitartez.

Hamalau proiektuk osatzen duten portfolia

Eragin eremuak oinarri hartuta, eskualdeko eraldaketa lortzeko martxan jarritako proiektu ezberdinak ere aurkeztu zituzten atzo. Proiektu sorta horrek portfolio deritzona osatzen du, eta horiek elkar ekintzan jartzea bilatzen du. Hamalau dira, guztira, aktibatuko diren proiektu edo prototipoak. Horien bitartez, gizartean ekimenak izan dezakeen inpaktu aukerak handitzea gura dute.

3. Arizmendi - Torrebaso

- **Sustatzailea:** Arizmendi.
- **Deskribapena:** Prototipo honen helburua Almen guneko eskalan etorkizuneko gizarte iraunkorra nolakoa izan behar den irudikatu eta diseinatzea izango litzateke, horretarako erroka hauen soluzio berriak prototipatuz: besteak beste, jangela, espazio iraunkorrak eta mugikortasuna.

7. Energia komunitatea CER

- **Sustatzailea:** Goiener.
- **Deskribapena:** Energia Komunitate Berriztagarri bat definitu eta martxan jarri nahi da. Erronka nagusiak hauek dira: hasierako parte hartzaileak ikuspegi zabal eta pluralarekin identifikatzea eta une oro kide berriei irekita egotea; komunitateen jarduna identifikatzea...

11. Industria-inguruneetako ikaskuntza-soluzioak

- **Sustatzailea:** Mondragon Taldea.
- **Deskribapena:** Industria berde eta digitalago baten bidean, lanaren edukia etengabe aldatzen ari da, eta, honi erantzuteko, trantsizio profesional sakonak bizi eta biziko ditugu gure ibilbide profesional osoan.

4. Jangelak hornitzeko Debagoieneko plataforma

- **Sustatzailea:** Ereindajan Bergara.
- **Deskribapena:** Eskualdeko jangelak tokiko produktuekin hornitzeko plataforma sortzea da honen helburua. Elikadura-kateko katebegien arteko saretzea eta lankidetzaren handitzea, sinergia ezberdinen sorrera bermatuta.

8. FV Etxean. Kasua sortzen

- **Sustatzailea:** H-enea, Ekitermik.
- **Deskribapena:** Etxebizitza komunitate batean autokontsumorako fotovoltaikoak ezartzeko prozesua abiatuko da honen bitartez. Ondoren, fotovoltaikoak etxebizitza komunitate batean ezarri eta sortuko dituen eraginak neurtuko dira.

12. Platform Coops

- **Sustatzailea:** Mondragon Unibertsitatea eta Mondragon Taldea.
- **Deskribapena:** Digitalizazioa oinarritzeko abantaila lehiakorra da garai hauetan. Negozio eredu berri hauek, aldiz, errentagarriak dira jabeentzat bakarrik; esplotatzaileak, beriz langileentzat, hornitzaileentzat eta ingurunearentzat.

1. Debagoieneko Antzerki Plataforma

- **Sustatzailea:** Debagoieneko antzerki eragileak.
- **Deskribapena:** Arte eszenikoen eta kultur arlotik egingo den herrigintzarako sostengu izango den plataforma sortzea da helburua, eraldaketa sozialera eta gizarte askotariko, enpatiko eta kohesionatu bat sortzera bideratua.

5. Tantai Baso Jabe Kooperatiba

- **Sustatzailea:** Errez.
- **Deskribapena:** Baso jabeen kooperatiba sortzea da helburua, ustiaketa eredu iraunkorragoa lortze bidean. Basoak egokitzapen ahalmena duten sistema konplexu moduan kudeatuz, ekosistema zerbitzu osoagoak bermatzea bilatuko da.

9. BHR. Bero hondakinen errekuperazioa

- **Sustatzailea:** Ekitermik.
- **Deskribapena:** Metalen tratamendura zuzentzen diren enpresa industrialetan, tratamendu, beroketa edo fusiorako erabiltzen diren labe industrialek kanporatzen duten beroa autokontsumorako energia elektrikoa sortzera bideratzean datza proiektua.

13. Talent House

- **Sustatzailea:** Mondragon Unibertsitatea.
- **Deskribapena:** Talentua erakartzeko eta bertan mantentzeko azpiegitura, ekipamendu, kultur-jarduera eta zerbitzuen proiektu integrala sortuko da. Lortu gura da ikasleek, ikerlariak zein profesionalak bizimodua Debagoienean egin dezaten.

2. D2030HUB

- **Sustatzailea:** Goiena.
- **Deskribapena:** Goienak komunitatearekin duen harremana indartu nahi du, elkar elikatze horretan jauzi bat eman, sorreratik gizartearekiko duen erantzukizuna indartzeko. Horretarako, komunitateak eta Goienak berak nola elkar elikatuko duten definituko dute, parte hartze kanalak irekiz.

6. Birgaitzen

- **Sustatzailea:** H-enea.
- **Deskribapena:** Etxebizitzetako konfort baldintzak hobetu eta CO2 emisioak murriztu daitezkeela frogatu gura da pilotu baten bidez. Isolamendu soluzioa era kolektiboan eta prezio eskuragarrietan eskainiko zaie errenta baxuko zein pobrezia energetikoa pairatu dezaketenen pertsonen.

10. Hazi Berriak

- **Sustatzailea:** Guhaziakgara.
- **Deskribapena:** Guhaziakgara elkarte transformatu gura da inklusio sozialerako saltoa egin dezan. Elkartearen helburuak, misioa eta bisioa birpentsatuko dira, eskaintzen diren ikastaroen homologazioa lortzeko pausoak emango dira eta ehungintzara bideratutako enpresa-plana garatuko da.

14. E-Labs

- **Sustatzailea:** Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa.
- **Deskribapena:** E-Lab gizartera zabalik egongo den espazio bat izango da; enprekin eta beste agente batzuekin diziplinarteko ko-kreazioa, berrikuntza eta ekintzailetza bultzatuko da, trantsizio industrial jasagarri eta justuaren mesedetan.



UNED-BERGARA ikasi zure erritmoan, zauden tokian zaudela

MATRIKULAZIO EPEA IREKITA

- 28 gradu, 79 master, doktoretza...
- Etengabeko formakuntza
- Urrutiko hizkuntzak
- 25/45 urtetik gorakoentzako Unibertsitaterako Sarbide ikastaroa



ONLINE aurkezpena

Urriak 8, osteguna, 19:00

www.uned.es/ca-bergara

Konekta zaitez

943 76 90 33 ■ info@bergara.uned.es

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak asteon helarazitako datuen arabera, 79 COVID-19 kasu positibo atzeman dituzte Debagoiengan irailaren 24tik 30era arte. Aurreko asteko zifrekin alderatuz gero, nabarmena da positibo kopuruan izandako beherakada: 141 atzeman ziren irailaren 17a eta 23a artean, asteon baino 62 gehiago.

Datuok herrikoa aztertuz gero, Aramaio eta Leintz Gatzaga salbu, gainerako herri guztietan hauteman da positiboren bat azken astean. Aretxabaletan mantendu egin da positibo kopurua, baina gainerako guztietan behera egin du zifrak. Hego Euskal Herrian 14.286 PCR proba egin ziren eguaztenean, eta horietatik 608 izan ziren emaitza positibodunak. Lurreldekoa aztertuta, 63 kasu izan ziren Araban, 138 Bizkaian, 175 Gipuzkoan eta 223 Nafarroan. Era berean, erietxeetako egoerari dagokionez, 33 lagun ospitaleratu zituzten Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) koronabirusak eraginda eguaztenean, martitzenean baino 16 pertsona gutxiago.

Une honetan birsorkuntza tasak 1 azpitik jarraitzen du EAEn; martitzeneko datuen arabera, 0,96koa zen, 0,94koa eguaztenean. Era berean, azken astean egindako PCR probek baiezta dituzten kasuekin, dagoeneko, datuen arabera, 1.176 dira kutsatutako debagoiendarrak.

MIZPIRUALDE EGOITZA

EGUAZTENERA ARTEKO DATUEN ARABERA, 23 KASU POSITIBO DAUDE

Irailaren 16an jakinarazi zuten Bergarako Mizpirualde adinekoen egoitzan koronabirus kasu positibo bat atzeman zutela. Ordura arteko lehena. Harrezkero, gora egin du zifra horrek. Azken orduetan Gipuzkoako egoitza sarean heriotzarik izan ez den arren, eguaztenean jakinarazi zuten Bergarako Mizpirualde egoitzan 9 egoiliar gehiagok eman dutela positibo COVID-19an. Lehen kasua hauteman zenetik, egun bakarrean atzemandako positibo kopuru altuena da. Datu horiek kontuan hartuta, 23 dira, guztira, eguaztenera arteko datuekin, positibo eman duten egoiliarrak.

Kutsatu kopuruaren hazkundera apaldu egin da azken astean

Azken astean atzemandako 79 kasu positiboekin, 1.176 debagoiendar kutsatu ditu COVID-19 gaitzak irailaren 30era arte. Era berean, Gipuzkoako adinekoen egoitzetan eguaztenera arte zeuden 51 kasu positiboetatik 23 Mizpirualden atzeman dituzte

Koronabirusa Debagoiengan

	Positiboak aurreko astean	Positiboak aste honetan	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	61	20	534	24,21
Bergara	49	33	250	16,66
Oñati	15	7	163	14,34
Aretxabaleta	12	12	139	19,58
Eskoriatza	2	5	45	11,07
Antzuola	1	1	19	8,63
Elgeta	0	1	15	13,17
Aramaio	0	0	10	6,64
Leintz Gatzaga	1	0	1	4,00
GUZTIRA	141	79	1.176	

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Bailarako gainerako zaharren egoitzetan ez da kasu positiborik atzeman azken astean eta Gipuzkoari dagokionez, gaur egun, 51 COVID-19 kasu positibo daude egoitzetako erabiltzaileen artean, horietatik 23 Bergaran. Gogoratu behar da hilaren 21ean Mizpirualde egoitzako egoiliar bat COVID-19ak jota hil zela.

OSASUN LANGILEAK

LEHEN ARRETAN ETA OSPITALEETAN "BALIABIDE ESKASIA" SALATU DUTE

Duela bi aste ekin zioten sindikatuek ospitaleen eta lehen arretako zentroen atarrietan protestak egiteari, eta, Arrasaten ere, Debagoieneko Ospitalean lanean diharduten askotariko

arloetako hainbat profesionalak egin zuten bat deialdiarekin.

"Hitzetatik ekintzetara" pasatzeko eskatu zioten aurreko egubakoitzean Jaurlaritzari Arrasateko ospitalera bertaratutako osasun langileek; sindikatuetatik ere adierazi dute "nekatuta" daudela "ezer konpontzen ez duten eta asmo onak adierazi soilik egiten duten adierazpenekin".

Osasun langileek salatu dute Osakidetza dituen arazoak "egiturazkoak" direla: "Ospitaleetako langileek ere egunero egin behar diote aurre giza baliabide eta baliabide material eskasia egoerari". Biharko, urriak 3, osasun langileen egoera salatzen manifestazioa deitu dute SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek Bilbon.

KALEAN EDATEAGATIK

MASKARARIK GABE ETA KALEAN EDATEN EGONAGATIK HAINBAT INTERBENTZIO AZKEN ASTEETAN BAILARAN

Azken asteetan hainbat izan dira Ertzaintzak eta bailarako herrietako udaltzainek kalean edaten aritzeagatik jaso dituzten abisuak. Joan den asteburuan bertan, egubakoitz gauerdian bertaratu ziren Ertzaintzaren zenbait patruila Elgetako El Rincon de Lola tabernara. Tabernariari abisua eman eta isun espedientea zabaldu zuten, "terrazza erretiratuta zegoela jendea tabernaren kanpoko aldean distantziak mantendu barik edaten ari zelako".

Oñatiko ez-jaien baitan antolatutako zenbait ekitalditan ere izan zen Ertzaintzaren presentzia asteburuan zehar. Hala, Antixeneko gaztetxean zapatuan egitekoa zen bazkaria bertan behera geratu zen. Ertzaintzatik azaldu dutenez, "prebentzio-neurri sanitarioak ez betetzea ekar dezakeen, eta, gainera, gaztetxeak ez duenez inolako jardueraz lizentziarik, bertaratutako arduradunei jakinarazi zitzaizkien debeatuta zegoela bazkari hori egitea". Osteko ekitaldiei dagokionez, 21:30 inguruan ere gerturatu zen patruila bat, "antolatutako kontzertuan osasun-neurriak betetzen zirela egiaztatzeko", eta, azaldu dutenez, "dena behar bezala zegoen".

Irailaren 29an ere, 00:30 aldera, patruila bat gerturatu zen Xagu tabernara. "Bezeroak maskara gabe zeuden, segurtasun-distantzia mantendu gabe, zutik kontsumitzen eta erretzen, lo-

kalean barruan zein kanpoan". Hala, 9 pertsona salatuak izan ziren, horien artean tabernako arduraduna. Joan den zapatuan ere, Oñatin, Forondatik abiatu eta Arantzazun amaitzen zen "karabana negazionista" bateko 5 kide salatuak izan ziren, maskara ez erabiltzeagatik.

Kale zurruta dela-eta azken bi asteetan bailaran hiru interbentzio egin dituztela azaldu du Ertzaintzak: bi Arrasaten eta bat Bergaran. "Irailaren 18an, Arrasateko Ferrerías kalean gazte talde bat botila festa egiten atzeman, eta hiru salaketa jarri ziren. Irailaren 20an, Arrasateko Iturriotz kalean eta Bergarako Zurradero inguruan jendea kalean edaten eta maskararik gabe zegoen abisua jaso zen. Salaketa bat jarri genuen guztira".

IÑAKI PEÑA

"NIK EZ NUKE KASUEN ERRUDUNIK BILATUKO, JENDEAK ESFORTZU HANDIA EGIN DU"

Debagoieneko Ospitaleko barneko mediku Iñaki Peñak koronabirusaren bigarren olatua zerk ekarri duen eta ospitalean nola bizi duten azaldu du asteon Goiena telebistan. Datoren aste eta hilabeteek ekar dezaketenez ere hitz egin du: "Oraindik ere patroji jakin batzuk ikusten dira positiboek dagokionez, baina birusaren portaera suabeagoa dela esango nuke, baita adinekoengan ere".

Egun heriotzak erregistratzen diren arren, une honetan egoera maizteko maila berean dagoela azaldu du. Positiboaren profila galdetuta, gizarteko sektore zehatzik ez dela seinatuta behar adierazi du: "Nik ez nuke errudunik bilatuko, jendeak esfortzu handia egin du. Kontua da sektore batzuetan zaila dela kontzientzia sortzea, eta, aldiz, beste batzuetan are gehiago beldurtzen ditugula".

Hartutako neurriak eraginkorrak direla azpimarratu du: "Maskararen erabilerak, esaterako, karga birala murrizten du, transmisioa gertatzen da baina kopuru txikiagoan, eta, horri esker, eboluzioak hobeak ari dira izaten. Beste gauza bat da zer orokortu dugun eta ea zentzua duen espazio irekietan erabiltzeak".

Naiara Goia, Arantzazu Gaur Fundazioko zuzendari

Berrikuntzan eta nazioarteko proiektu estrategikoen koordinazioan aditua izanagatik hautatu du Arantzazu Gaur Fundazioak Naiara Goia zuzendari; kooperatibagintzan eraldaketa estrategiak gidatu izan ditu, besteak beste, Mondragon korporazioan

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Arantzazu Gaur Fundazioak joan den egubakoitzean hartutako erabakiaren arabera, Naiara Goia Imaz (Segura, 1978) izango da Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendari berria. Berrikuntzan aditua dela azpimarratu dute fundazioko kideek, eta 20 urteko esperientzia daukala nazioarte mailan proiektu estrategiko konplexuen koordinazioan eta askotariko jakintza-alorren pertsonen zuzendaritzan: "Bertako zein nazioarteko eragile erreferenteekin gizarte berrikuntzako ekimen aitzindariak gidatzen ibili da, etorkizuneko erronken



Naiara Goia Imaz. A.G.F.

aurrean gizarte eraldaketak lurralde mailan bideratzeko".

"Emakumearen lidergoa"

Goiak azaldu du bere interese-tako bat dela enpresa testuinguruan emakumearen lidergoa bultzatzea, eta baita horrek dituen "abantailak" agerian jar-tzea ere.

Telekomunikazio Ingeniaritzan goi mailako titulua duen Goiak Euskal Herriko hainbat unibersitaterekin kolaboratzen du, hizlari edo irakasle, gizarte berrikuntzarekin eta enpresen eraldaketari lotutako esparruetan, nagusiki. Pertsona desberdinekin sareko lanean kolabo-

ratzeak motibatzen duela azaldu du, "elkarren artean guztiongan eragina duten gizarte eta ekonomia erronkak ulertu eta irtenbidea aurkitzeko".

Gizarte eraldaketa ardatz

Gandiaga Topagunean kokatuko duten laborategiak ingurumena eta gizartegintza izango ditu helburu bere jardunean; zehazki, azaldu dutenez, elkarbizitza, ongizatea, lana eta aldaketa klimatikoa izango dituzte langai: "Abiapuntu horrekin, gizarte gizatiarrago, justuago, kohesio-natuago eta lehiakorrago baten aldeko erreferentzia-gune bilakatuko da Arantzazu".

Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategia dagoeneko lanean diharduten gizarte berrikuntzarako laborategiekin elkarlanean arituko dela azaldu dute: "Gaur egun mundu mailan azkartzen ari diren desafio nagusien inguruko gogoeta eta esperimendazioa bultzatuko du". Zehaztu dutenez, horretarako, partaidetza prozesuak garatuko dituzte, herritarrak zein erakundeak ahalduz eta lankidetzaren sareak osatuz.



Begoña Pedrosa. M.U.

Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuorde izendatu dute Begoña Pedrosa

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanu Begoña Pedrosak hemezortzi urte daromatza Mondragon Unibertsitatean, eta orain, Jokin Bildarratzek zuzendutako Hezkuntza Sailean jardungo du. Unibertsitateak azaldu duenez, dekanu moduan egondako urteetan, besteak beste, hezkuntza berrikuntza, eraldaketa eta digitalizazioa izan ditu ardatz. Hezkuntza eta Komunikazioan proiektuen gidaritzan lan egin du.

Erreserbatu zure etxebizitza!

28 etxebizitza URIBESALGON (San Andres - ARRASATE)

3 logelako baxua: 255.000 €-tik + BEZa

3 logelako etxebizitza: 245.000 €-tik + BEZa

2 logelako atikoa: 275.000 €-tik + BEZa

SUSTATZAILEA



SALTZAILEA



943 253 821

info@inmobibai.com

www.inmobibai.com



Uztailean Besaidera egindako igoeraren irudi bat. SARE ARRASATE

Maiatzera atzeratu ditu Sarek mendi-igoerak

Sare Herritarrak biharko, zapatua, deituta zeuzkan mendi tontorretara igoerak bertan behera geratu dira, eguraldiagatik. Maiatzaren 8ra arte atzeratu dute ekimena. Dena den, plazetan batu eta argazkiak partekatzeko dei egin du Sarek

Karmele Uribesalgo ARRASATE

Maiatzaren 8ra arte atzeratu du Sarek asteburu honetarako iragarrita zeukan 650 tontorren egitasmoa. Iragarritako eguraldia da erabakiaren arrazoiak. Euskalmetek "giro euritsu" eman du zapaturako, mendebaldeko "haize oso zakarrarekin" eta 12-17 graduko hozberoarekin. Hori horrela, Sare Herritarrak sare sozialen bidez aurreratu du "sortutako ilusioa, egindako lan izugarria eta animatu den herritar kopurua aintzat hartuta" aurrerago egiteko hautua egin duela: 2021eko maiatzaren 8an, hain justu ere.

Herrietako plazetan

Edozelan ere, asteburuan mendi ibilaldirik egingo ez den arren, zapatuan herrietako plazetan elkartzera deitu du plataformak, "lagunartean, familian edo herriko kideekin" argazki bat atera eta sareetan zabaltzeko, #650Tontor eta #IzanBidea traolak erabilia. Argazkietan, taldeak

igotzeko asmoa zuen mendiaren izena jartzeko ere eskatu dute. Horretaz gain, urriaren 24an Donostian egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egin dute. Kontxako hondartzan mosaiko erraldoi bat osatu nahi dute, egungo espetze politika aldatzea eskatzeko.

Debagoiengan, 29 mendi tontor egiteko deialdia egin zuen Sa-

rek –beheko koadroan ikus daitezke, herririk herri, mendi tontorrak–.

Herri bakoitzak bere antolaketa egin zuen eta irteera zein ekitaldi guztiek ez zuten ordu-tegi bera. Asmoa zen zapatu eguerdian argazkia ateratzea igo behar zituzten eskualdeko 29 tontorretan. Orain, plazetan egitea eskatu du Sarek.

Debagoieneko mendi tontorrak

- **Arrasate. Hiru tontor** Udalatx, Kurtzetxiki eta Tellamendi.
- **Bergara. Bederatzi tontor** Angiozartik: Irutontorreta, Asentzio eta Intxorta. Osintxutik: Kurutzebakar, Irukurizeta eta Krabelinaitz. Plazatik: Landarraitz, Klabelinaitz eta Elosumendi.
- **Oñati. Sei tontor** Aloña, Andarto, Arranoaitz, Ahumategi, Artzanburu eta Orkatzategi.
- **Arexabaleta. Bost tontor** Aranguren, Arlutz, Erlaitz, Elorreta eta Murugain.
- **Eskoriatza-Leintz Gatzaga. Bi tontor** Atxorrotx eta Mugarriluze.
- **Antzuola. Bi tontor** Trekutz eta Arrola.
- **Elgeta. Bi tontor** Azkonabieta eta Egoarbitza.



Artzain Eskolako ikasle berriak, aste honetan. TXOMIN MADINA

Hasi dute ikasturte berria Gomiztegiko Artzain Eskolan

Aste honetan ekin diote eskolaren 24. ikasturteari. Inoiz baino ikasle gehiago izango dituzte: hamalau

K. U. OÑATI

Astelehenean eman zioten hasiera ikasturteari Gomiztegiko Artzain Eskolan. Ikasle kopuruari dagokionean, gorakada nabari dute azken urteetako zifrarekin alderatuta: hamalau izango dira. Horietako bat da Urtzi Etxeberría oñatiarra. 24. ikasturtea izango da aurtengoa. Aste honetan hasi dituzte klaseak eta 2021eko martxoaren 31n amaituko dituzte.

Ikasleek azaldu dutenez, Artzain Eskolan izena emateko arrazoiak dira, besteak beste, abeltzaintzan aritzeko formakuntza jasotzeko nahia eta naturaren zaintzaren inguruko interesa. Sei bizkaitar izango dira aurtengo ikasturtean Gomiztegiko eskolan, beste lau gipuzkoarrak dira eta gainerako laurak Zamorakoak, Madrilgoak eta Malagakoak. Batis Otaegi Artzain Eskolako koordinatzaileak nabarmendu du ikasleek "gogoa eta grina" erakutsi dutela ikasketei ekiteko.

leak nabarmendu du ikasleek "gogoa eta grina" erakutsi dutela ikasketei ekiteko.

Mantendu egingo dira Artzain Eskolan izango diren ikasleek beste abeltzain batzuen ustiatzietan egiten dituzten praktikak eta egonaldiak; betiere, koronabirusa dela-eta sortu eta zehaztu duten protokoloa beteta.

Berrikuntzak eskolan

Hain zuzen ere, Hazirekin elkarlanean dabilta, eta COVID-19ari aurre egiteko hainbat neurri hartu dituzte. Eskolaren sarrerak eta irteerak ezberdinak izango dira, eta bi taldetan egingo dute lan.

Beste berrikuntzetako bat da Gomiztegiko fraide etxean bizi ahalko direla ikasleak. Arantzazuko frantziskotarrekin lortutako akordioari esker, zortzi lagunek egingo dute egonaldia etxe horretan.

9.500 kilo janari bildu dira Debagoiengan Moriara bidaltzeko

Zaporeak elkarteak janari bilketa egin zuen joan den asteburuan Debagoieneko hainbat herritan. Lesbosko (Grezia) Moria kanpalekura bidaliko dute bildutakoa. "Gustura" agertu dira gobernuz kanpoko erakundeko kideak, eta aitortu dute espero baino janari gehiago bildu dutela. Debagoiengan 9.500 kilo izan dira, eta Gipuzkoa osoan

100.000. Horrekin lauzpabost hilabeterako janaria izango dutela adierazi dute Zaporeak-eko arduradunek.

Datozen egunetan bidaliko dute Moriako kanpalekura joan den asteburuan bildutakoa, eta aurrerantzean ere jarraituko dute lanean. Elkarteak kideak jakinarazi dute aurrez eurekin hitz eginda, bestelako norbanako edo elkarteek ere egin ditzaketela janari bilketak –Antzuolan Anelkarrek eta herriko boluntarioek egin bezala–.

Zapore goxoa utzi duzue

MARIA AGIRRE

DEBAGOIENEN ZAPOREAK TALDEAREN
IZENEAN
DEBAGOIENA

Helburua handia zen: ezohiko egoera batean janari bilketa egitea. Erronka itzela, baina Lesboseko larrialdi egoerak hala eskatzen zuen, eta asteburuan elikagai bilketa egitera atera ginen Zaporeak taldeko boluntarioak.

Lehenik eta behin, mila esker debagoiendar guztiei erakutsitako elkartasunagatik.

Bildutako janari kopurua handia izan da, eta horrek erakusten du bailara honetan dagoen eskuzabaltasun eta kontzientzia. Askok izan zarete janaria poltsan edo dirua eskuetan gugana hurbildu zaretenok. Eskerrik asko denoi.

Era berean, eskerrik beroenak bi aldiz pentsatu barik laguntzera etorri zareten boluntario guztiei. Ezinbestekoak izan zarete. Zerrenda luzea da, eta ez genuke inor ahaztu nahi, baina nahitaez izen batzuk aipatu beharrean gara. Arrasaten: Maxi Eroski, BM, Lidl eta Ereindajan.

Aretxabaletan: Eroski, Loramendi, Udala, Kiloka, Hankabeltz, Imanol harategia eta Murube enpresa. Oñatin: Ulma Packaging. Antzuolan, Aramaion eta Gatzagan bilketa egin duzuenak. Goiena Komunikazio Taldea. Eta Gipuzkoako Elikagaien Bankua. Berrito diogu, bihotzez, eskerrik asko.

Esan bezala, elikagai bilketa arrakastatsua izan da, eta laster Lesbosera iritsiko da batutako janari guztia. Hala ere, ez dezagun ahaztu errefuxiatuek benetan libre izan nahi dutela.

Bereziki haientzat Europak ezarritako hesi eta traba guztiak behingoz kentzea. Elikagaiak, arropak, etxea, lana... euren kabuz lortu nahi dituzte. Guk bezala, haiek ere helburuak eta ametsak dituzte. Ez ditzagun ametsak hesiz inguratu.

Zaharrak berri

EÑAUT ZUBIZARRETA MENDIETA

ARETXABALETA

Eskuek garbiketie modan jarri da azken hilabetiotan, koronabirusan asuntue dala eta ez dala. Dana dala, bistie atzera bota

ezkero, ikusiko dogu baton batzuk joera hau nehiko barneratuta daukiela aurretik be, eskuek garbiketiana diñot, behin eta berriz. Aurretik, bañe, zikinddu egin biher... edo?

Ez gare eskuek asko garbiketakuek izen, lokotzaratan dabilenak denpora guztien dauko-eta zikinen bat atzamar artien, ahurrien. Landutako eskuek, azazkalek, kolore iluntxuaue euki ohi daue. Eta izerdixak eraindako itsaskortasun eta useine. 2020ko uztaillien zihher egindako gogoeta bat.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





ZABALIK

OIHAN VITORIA

Belaunaldi gailendua

Indibidualismoa kolektiboari gailendu zaio. Kritika erraza hausnarketa pausatuari. Gutxi batzuen ongizatea guztionari. Ekonomia osasunari ere nagusitu zaio. Ikuspegi kontserbadorea aurrerakoiari. Konformismoa jarrera iraultzaileari, eztabaidatzeari, aldarrikatzeari, antolatzeari, eta ezarritakoa aldatzeko gaitasunari.

Gure belaunaldiak eskuak gurutzatzea erabaki du afera nagusietan eragin ordez. Amore ematea lege bihurtzeraino. Dena eskura eman digutela esan ohi da. Prestatuenak izanda ere, daukaguna kudeatzera mugatu garela. Ez dugu lurrikararik nahi. Unibertsitatean hasi orduko kolpatu gintuen 2008ko krisiak, bete-betean, eta oxigenoa hartzen hasi garenean eztarrian korapilatu zaigu bigarrena.

Ondorioak agerikoak dira. Norberarenak besterik ez du axola egun. Galdetuz gero, denborarik ez duela eta

URTEETAN ASKOREN IZERDIZ LORTUTAKOA GALTZEKO ARRISKUAN JAR DEZAKEGU ESKU HARTU EZEAN

eguneroko zurrumbiloarekin nahikoa duela erantzungo dizu edonork. Baita nik neuk ere. Sozialki, ekonomikoki eta politikoki hausteko aukera galdu dugu, salbuespenak salbuespen, gizakiok berezkoa dugun

sen eraldatzaileari uko eginez. Eta urteetan askoren izerdiz lortutakoa galtzeko arriskuan jar dezakegu esku hartu ezean.

Gure guraso eta aitona-amonon borroka, mobilizazio eta aldarrikapenengatik ez balitz, ez geundeke gaurko egoeran. Ez genituzke ditugun eskubideak. Berriki pentsiodunen mugimenduak utzi dizkigu buruan iltzatzeko irakaspenak. Beraien etorkizunagatik ez ezik, gureagatik ere ari direlako borrokan.

Lurra jotzea izaten da sarritan etsipen giroa iraultzeko bide bakarra. Agian, horregatik begiratzen diegu irakasle, metaleko langile edo garbitzaileen greba orokorre zezenak balira bezala, bazterretik. Agian, horregatik irensten ditugu saldu nahi dizkiguten bertsio ofizialak murtxikatu eta *glup* egin gabe. Agian, horregatik iruditzen zaizkigu *Patria* moduko telesailak hamarkadetako gatazka politiko poliedriko baten adierazle bakar. Agian.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Euroa

ANDONI EGAÑA

[HTTPS://LABUR.EUS/UVH6S](https://labur.eus/uvh6s)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Biloba behin eta berriz ahalegindu zen amonari argi azaltzen.

Ez zen txantxetako kontua.

Elizara joan eta poltsa iristean hiru pezeta botatzen zituen garaiko patxada beraz hiru euro botatzen hasi zela jakin zuenean piztu zitzaizkion argi gorriak.

Bazekien amona ez zela lehengoa.

Moneta ere ez baitzen lehengo bera, bi aldaketek sarraski handia eragin zezaketen familian.

Azaldu zion euro bakarra ehun eta hirurogei pezeta zirela.

Baietz, ulertzen zuela hori.

Elizan hiru euro botatzen bazituen bostehun pezeta ari zela botatzen.

Eta hor galdu egiten zen.

Berak ez zuela horrelako astakeriarik egiten.

Elizak bazeukala lehen ere nahikoa diru berak bostehun pezeta eman gabe.

Hasierara itzuli behar izaten zuen bilobak.

Ea...

Euro bat zela ia berrehun pezeta eta txanpona bakarrarekin joan zitekeela salda bat edo kafe bat hartzera.

Are galduago amona.

"Orduan pelukeriara ere bakarrarekin?", galdetuko zuen.

Jabetzen zen amona bere ezinaz.

Gogaitu zen halako batean bilobaren azalpenekin.

"Bale, bale. Ulertu dinat", bota zuen.

"Baina... lehengoa laster jarriko diton berriz ezta?".

Iruditzen zait gutariko asko halaxe gabiltzala egungo egoera berrian.

Ulertu ezinda eta lehengoa laster bueltan etorriko den esperantzaz.

Amona joan zen eta pezeta ez da itzuli....

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika

Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),

Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,

Amalia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,

Ziortza Martín,

Amalia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,

Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:

688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen

aldizkari honetako orrialdeetan

kolaboratzaileek adierazitako

iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Arebaleteko Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Ezin dizkiegu adinekoei euren eskubideak mugatu"

JAVIER YANGUAS LA CAIXAKO NAGUSIEN PROGRAMAKO ZUZENDARI ZIENTIFIKOA

Karme Uribesalgo ARRASATE
COVID-19ak adinekoen alde emozionalean eta kognitiboan eragin handia izan duela uste du Javier Yanguas Psikologian doktoreak. Pandemiak begi bistan utzi dituen erronkez jardun zuen atzo Arrasaten, Kulturaten. **Zer eragin izan du pandemiak adinekoen bizimoduak?**

Ikaragarria izan da eragina. Alde batetik, birusak berak ekarri dituen kalteak daude, baina adinekoek jasan behar izan dituzte beste ondorio batzuk ere: bakardadea, isolamendua eta tristezia, esaterako. Zaurgarriak sentitu dira sarri, eta askok nabaritu dute euren bizitzak zentzua galdu duela, ez zutela inolako bizi proiekturik. Nik uste dut balioan jarri behar ditugula euren adorea eta gaitasuna. **Adinekoen artean egoera ez da bera izango kasu guztietan, ezta?** Hainbat etapa daude. Oso desberdina da 65 urte izan edo 90. Kontuan izan behar dugu 90 urteko bat 65eko baten aita



Javier Yanguas. JAVIER YANGUAS

edo ama izan daitekeela. Hori dela eta, erretiratu berri den pertsona batek, orokorrean, konfinamendua gainerakook pasatu dugun antzera igaroko zuen. Adinean aurrera egin ahala, ordea, zaurgarritasuna

areagotu egiten da, eta zailtasun gehiago izaten dira. **Nola eragin die pandemiak alde emozionalean eta kognitiboan?** Konfinamenduak sekulako eragina izan du osasun psikologikoan. Kasu askotan,

jendearen mugak gainditu ditu. Egia da birusari aurre egiteko era izan dela, baina onartu behar dugu ondorio negatiboak ere izan dituela. Fundaziotik ikerketa bat egin genuen. Estatuko 3.500 pertsona elkarrizketatu genituen, eta %40ak esan zigun emozio aldetik sufritu egin zuela. Horrez gain, bi pertsonatik batek adierazi zigun bakarrik sentitu dela. Datu horiek oso kezkarriak iruditzen zaizkit.

Gainera, zahar etxeetan une latzak ari dira bizitzen.

Pandemiaren aurretik bagenekien ez daukagula gizarte honek behar duen sistema. Ez da diru nahikorik inbertitu; langile gutxi daude, gaizki ordainduta eta baldintza txarretan lan egiten. Sistema on bat behar dugu. Nire ustez, adinekoen egoitzetan, besteak beste, pertsonalizazioan eragin behar da. Gauzak horrela, birpentsatu egin behar dugu zahar etxeetan zerbitzuak nolakoa izan beharko lukeen. Agian, funtsezkoa izango da egoitzetan baldintza hobekak izango dituzten lanpostu berriak sortzea.

Hala ere, adineko guztiak ez dira zahar etxeetan bizi.

Nire ustez, benetako puntu itsua etxebizitza propioak

dira, ez baitakigu atez bestalde zer gertatzen den. Kasu askotan, zaurgarriak diren pertsonak izaten dira bertan, eta, normalean, ez dugu jartzen hori lupa. Zahar etxeetan gertatutakoa izugarria da, baina etxeetan pasatzen denari arreta handiagoa jarri behar diogu. **Estereotipoak hautsi behar direla komentatu izan duzu.**

Ezin dizkiegu adinekoei euren eskubideak mugatu; aldarrikatu behar dugu nahikoa dela. Askotan, pentsatu izan dugu ez direla gai pandemia bati aurre egiteko edo erabakiak hartzeko. Funtsezkoa da estereotipo horiek apurtzea. Populazioaren %23 inguru adinekoak dira, eta ezin ditugu baztertu.

Zer erronka ditu gizarteak?

Adinekoek jasotzen duten tratua hobetu egin behar da, baita zaintza zerbitzua. Komunitarioagoak izan behar dugu. Bakardadeari aurre egitea da dagoen beste erronka garrantzitsuetako bat. Horretarako, gure arteko harremanak sendotu egin behar ditugu, baina ez bakarrik bakardadeari aurre egiteko; kalitatezko harremanak behar ditugu, elkar laguntzeko balio izango dutenak.

ITURRI ONETIK

Mondragon Taldea, 'Fortune'-ren zerrendan

Fortune aldizkari estatubatuarrek *Change the world* (mundua aldatu) izeneko zerrendan sartu du Mondragon Taldea. Sailkapenean ageri dira erantzukizun sozial handiko munduko 100 enpresa eta Mondragon Taldea 11. postuan agertzen da. "Kooperatibek inguruarekin duten konpromisoaren erakusle" da, adierazi dute korporaziotik. Sailkapenaren lehen bost postuetan daude: The Vaccine Makers, Alibaba, Paypal, Nvidia eta BlackRock.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2010-09-28

Eskoriatzako azken mojek agur esan zuten

Eskoriatzako Karitateko Mesedeetako azken lau mojek –Teresa Jauregi, Arantxa Barrutia, Pilar Bedia eta Maria Angeles Aranguren– herriko komentua utzi zuten. Kongregazio horrek 98 urte egin zituen Eskoriatzan. "Ondorengorik ez daukagulako eta bokaziorik ez dagoelako bagoaz", adierazi zuten. Euskal Herriko beste lau komentutan banatu zituzten. Udal Gobernuako zinegotziak ere batu ziren azken agurrera –argazkian, lau mojekin–.

HAU BE BADOGU!

Plateruenaren aldeko mezu zaparrada

Durangoko Plateruena itxi egin beharko dutela adierazi dute arduradunek:

@ibon_iza: "Abiadura handiko trenak, metro zuloak, autopistak, haize-orratzak beti norabide berdinean; bitartean, gure herriko kultura leihoak ixten. Gaur atzo baino pobregoa gara".

@anarirena: "Zenbat gauza kabitzen den zu bezalako hutsune batean".

@plateruena: "Zuen babes uholdea iristen ari zaigu, eta hau da blai eginda esan genezaken bakarra: eskerrik asko guzti-guztiori, lanean jarraituko dugu ez dadin haria eten".

'Ekobulebar'-eko lanak 2021ean hasiko dituzte

Udalak jakinarazi duenez, Construcciones Moyua SL enpresari esleitu zaizkio lanak, eta 1.729.079,97 euroko aurrekontua bideratuko zaio proiektuari –BEZ barik–; hala, bidegorriaren estentsio lanek 16 hilabete iraungo dutela aurreikusten dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

2021ko urtarrilean hasiko dituzte *Ekobulebar* proiektuko obrak, Arrasateko Udalak jakinarazi duenez, eta aurkeztutako sei eraikuntza enpresen artean Construcciones Moyua SL enpresa izan da obra gauzatzeko lehiaketa publikoaren irabazlea. Modu horretan, lan horiek egiteko 1.729.079,97 euroko aurrekontua bideratuko du Udalak –BEZa kontutan hartu gabe–.

Proiektuaren helburua, Udalaren arabera, Maiatzaren Bata plaza eta Maalako biribilgunea lotuko dituen bidegorriaren jarraipena burutzeta da. "Garibai-ko bus geltokiari itxura berri bat eman nahi zaio, motorrentzako eta bizikletentzako aparkalekuak eta taxiaren geralekuak ere berregokituz. Horrez gain, Biteri eta Maalako biribilgunea arteko zatia oinezkoentzat eta bidegorriarentzat bakarrik utziko da. Ibilgailuak jada ezingo dira hortik igaro".

Bizilagunen erabakiaren zain

Grupo San Juaneko esku-hartzeari dagokionez, bizilagunen azken erabakiaren zain dagoela azaldu du Udalak. Proiektuak aurreikusten du, besteak beste, erreka bazterra eta Alfontso X plaza oinezko gune bihurtzea,



Garibai hiribidea eraldatuko du proiektuak, besteak beste. E.A.

Seber Altubek, Portaloiak eta Biterik osatzen duten "oinezko gune zabalarekin bat eginez".

Beste ur parke bat

Santa Barbarako parkeari jarraiki, bestalde, beste ur parke bat eraikiko dutela jakinarazi du Udalak, Villa Amparo eraikinaren inguruetan, Maalako biribilgunearen azpitik pasatzen den ibaiaren alboan, eta bi gune izango ditu: "Bat haurrei zuzendua, ur zirkuitu batekin, eta bestea gaztetxoentzako, 18 ur jolas baino gehiagorekin".

Igogailua Galizia kalean

Santa Teresa eta Galizia kaleetako irisgarritasuna hobetuko duen igogailu sistema ere ezarri gura du Udalak. Hala, proiektuaren idazketa atera zuen lehiaketara ekain amaieran, eta jada lizitatu da lana: "Aurkeztutako lau enpresen artean, Asmatu SL enpresak gauzatu du, eta 27.600 euroko aurrekontua izango du, BEZik gabe. 2021eko uztailerako proiektua idatzita egongo da. Udalaren asmoa da 2021eko uztailan bertan obrak lizitazio-lehiaketara ateratzea".



San Juan etxe-multzoko arku eta terraza. E.A.

Arku eta terraza, eztabaida iturri

Ekobulebar-aren proiektuaren baitan, Grupo San Juaneko terraza eta arkupea, Garibaitik Alfontso X Jakintsua plazarako sarreran daudenak, kendu egin gura ditu Udalak, baina "sortu diren eztabaidak" direla-eta "zain" dagoela adierazi du. Bi aukera ikusten ditu: "Datorren urte hasieran hasiko diren *Ekobulebar*-eko obraren atal bat moduan Alfontso X plazaren urbanizazio proiektua aurrera eraman, edo plazaren birgaitzea bertan behera utzi eta aurrerago proiektu berri bat egin. Azken hitza bizilagunena da".

Bizilagunek sinadura bilketa abiatu dute

Etxe-multzoko bizilagun batzuk, ordea, ez daude ados arku eta terrazak eraistearekin, "plan orokorrean jasota dagoelako babestu egin behar dela" eta historikoki ere "bere garrantzia" duelako. "Gu aintzat hartu gabe egin dute proiektua. Gainera, diote onartu ezean proiektutik kanpo geratuko dela Grupo San Juan. Hau da, esan ziguten gure oniritzi gabe ez zutela proiektuarekin aurrera egingo, baina, era berean, proiektua aldatzeko aukerarik ez ziguten eman. Bestalde, gurekin bildu eta bi egunera esleitu zuten proiektua. Non dago gure iritzia hor?", aldarrikatu dute.

"Udal Gobernuak jarrera aldatzen badu eta gu apur bat aintzat hartu", gauzak beste era batera egin daitezkeela uste dute. "Azken finean, guk ez dugu konfrontaziorik nahi, baizik eta gure auzoan onurak jaso, Udal Gobernuarekin elkarlanean", diote.

Halaber, sinadura bilketa bat jarri dute martxan. "Galdera da: Proiektuarekin, dagoen moduan egonda, ados zaude edo ez?".

Arrasate Zientzia Elkartearen ere, kontra

AZE ere arku eraistearen aurka azaldu da. "1948an eraiki zen San Juan etxe-multzoa, eta garaiko langile-erakuntza eredu da. Gainera, interes arkitektoniko eta urbanistiko aipagarria duen multzoa da, eta gizarte-balio handia du", diote, besteak beste.

Matrikulazio epea zabalik!

Urriaren 1etik 9ra
2019-2020an jaiotakoentzat



MUSAKOLAKo Haurreskola
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

BEDOÑABEko Haurreskola
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

454.541,79 euro, talde, elkarte eta erakundeei bideratzeko

Gazteria, Kultura, Euskara eta Emakumea eta Hezkuntza alorretarako dirulaguntzak aurkeztu ditu Udalak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Alor horietan lan egiten duten talde guztien lanari balioa eman eta hura bultzatzeko helburua dute 2020ko dirulaguntza horiek, Udalaren esanetan, eta kopuru-rik handiena Euskara alorreko

elkarteen eta erakundeen artean banatuko da, 257.641,85 euro. Hala, hiru dirulaguntza jasoko ditu Txatxilipurdik: jarduera orokorrekin lotutakoa, *Guraso.eus* webguneari dagokiona eta Freskura ekimenaren baitakoa.

Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearentzat eta Komunikazio Biziagoa esparruan sartzen diren eragileentzat bideratuko da sail honetako partidaren beste zati bat. Hor sartzen dira komunikabideak –Goiena, esaterako– eta hezkuntza arloko jaialdiak.

Halaber, euskara ikasteko 114 beka eman ditu Udalak 2019-2020 ikasturtean. Dirulaguntza horietatik 77 izan dira helduentzat eta 37, berriz, haur eta nerabeentzat. Halere, eskaera gehiago jasotzea aurreikusten du.

Hezkuntzara, berriz, 157.513,94 euro bideratuko ditu Udalak: hau da, Arizmendi Ikastola, Arrasate Institutua, Arrasate Herri Eskola, Arizmendi Ikastolako Gurasoen Elkarte, Arrasate Institutuko Gurasoen Elkarte, Arrasate Herri Eskolako Gurasoen Elkarte, EPA, Debagoieneko Hasierako Lanbide Prestakuntza Zentroa eta Mondragon Unibertsitatea.

Kultura jarduerarekin zerikusia duten elkarteei 28.487 euro bideratuko zaie, hala nola Izar-

tsua Belenzaleen elkarte, Artgazki, Portaloi, Goikobalu abesbatza, Ozenki elkarte, ARTE Tailaginen Elkarte, Margo Taldea, Sanbamaña batukada elkarte, Loixe zeramika taldea, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldea, Doke antzerki taldea eta Julio Galartaren Lagunak Elkarte.

Azkenik, AEDk 5.450 euroko beste laguntza ekonomiko bat jasoko du Gazteria Saitetik, eta Ekin Emakumeak egitasmoari 5.449 euro emango dizkio Emakume Sailak.



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

Gure Zirkua

Plateruena itxi egingo daue, atzen urtietan ondo ez ebillela eta bihotzbako COVID-19xak hogeit urteko ibilbidiei amaierie emun dutsela. Bertsotan egitteko sasoie ez dala argi dau, sektore ezberdiñak gogor jo arren, hau fristixau kulturie erruki barik jotzen dabil.

Lagun baten gomendixuui jarraituz, zapatuen, lobie hartu eta andrie eta hirurok Zigarrolan dauen Gure Zirkua ikustera fan gitzen. Gerturatuaz bat, zirkuko karpa txuri-gorrixari eta sarrerako karabana txikixei erreparatu nutzien. Sartzeko protokolui jarraituz, ikusle zerrendie konprobau, eskuak garbittu eta dagokixon distantzia errespetatuz aulkixen jarri eta gero, han egon gitzen emanaldixe nox hasiko zain.

Formatu txikiko ikuskizune izan arren, zirku batek euki bihar dauen dana dauko: trapezistak, musikarixak, paillazuek, kontorsionistak, mague, ekilibristak... pertsona nagusi zein gaztiez osatutako familixa txiki bat da. Berezko nortasune eta bakarria dan ikuskizune da, euskaldunek euskaldunei eskaiñitakue, erabat magikue, ikusgarrixe.

Ikusliok zutik eta txaloka agurtu gittuen bertako artistak, eta tartien, bateron batzui malko batek edo bestek ihes egin euskun argixek itxungiz zienien.

Liztor beltzaren aurkako kanpaina martxan da

Udazkena hasi denez, zuhaitzak hostoak galduz joango direla eta liztorren habiak errazago ikusiko direla dio Xabier Herrarte Udaleko langileak. Horregatik, Udalak habien detekzioan laguntzeko mezua egin die herritarrei, BAZera (943 25 20 00), Udaltzaingora (943 25 20 10) edo udal teknikariaren telefonora (628 11 56 73) deituz.

Berrikuntzekin abiatu da VI. Udazkeneko Argazki Lehiaketa

Berrikuntza nagusia da batutako dirua Asociacion Española de Raquitismos y Osteomalacia Heredados izeneko elkartearentzako izango dela, aurreko bost urteetan Aspanogirentzat izan ostean. Artgazkik 2 euro bideratuko ditu elkartera, aurkeztzen den argazki bakoitzeko, gehienez 750 euroraino. Lehiaketaren oinarriak, *Artgazki.org-n*.

OHARRAK

Uribarrira bisita

Telleria labea eta Barrenatxo ezagutzeko aukera, hilaren 17an. Izen-ematea zabalik, *kultura@arrasate.eus*-era idatzita edo 943 25 20 20 telefonora deituta.

Katekesirako deia

Hilaren 7an elkartuko dira, abade-etxean –Iturriotz kalea 43–, 18:00etan. 6 urteko umeen gurasoak gonbidatu dituzte.

Urriak 3, larunbata
Herriko Plazan

EHTik Sorginak
13:30

Galzatiatik
TANXUGUEIRAS
19:00

EHTik AMAK
21:00

www.ibalarte.eus

Arrasateko Erakundeak

hazpo eguna

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

ibai-arte

Euskandi, nazionala, hiru eremua
EUSKO JAKINARITZA GOBIERNO VASCO

Sarrera guztiak agortuta biharko kontzertuetarako

Hauspo Eguna egingo dute bihar, zapatua, Ibai-artek eta Arrasateko Trikitixa Eskolak elkarlanean antolatuta, eta Sorginak, Tanxugueiras eta Amak taldeek eskainiko duten emanaldietarako gonbidapen guztiak agortu dira; bakoitzean 150, hain zuzen ere

Eneko Azurmendi ARRASATE

Egunari hasiera emateko, goizean Trikitixa Eskolako kideek kalejira egingo dute herriko kaletan. "Eguraldiak baldintzatu du, baina ea taldetxo bat elkartzeko garen", azaldu du Maixa Lizarribar irakaslea.

Gero, goi mailako hiru talde ariko dira plazako oholtzan. Lehena, Sorginak, 13:30ean. Kepa Junkerak bere proiekturako sortutako taldea da Sorginak, eta, duela bi urte inguru harekin proiektua bukatu zutenetik elkarrekin jo gabe egon ostean, bueltan dira. "Ordutik, lehenengo batu gara, zapatuan emanaldia eskaintzeko. Hasi gara elkarrekin entseatzeko, eta dena gertu daukagu", dio Leire Etxezarretak, taldeko kideetako batek, eta "gogotsu" daudela gaineratu du. "Gure artean konplizitate handia daukagu eta oso gustura aritzen gara elkarrekin".

Izatez, gehiago ziren, baina bost kidek joko dute biharko



Maria Lasa, Amets Ormaetxea, Garazi Otaegi, Irati Gutierrez eta Leire Etxezarreta. ST

emanaldian: Amets Ormaetxea, Irati Gutierrez eta Leire Etxezarreta arrasatearrek, Garazi Otaegi asteasuarrak eta Maria Lasa zizurkildarrak. "Keparekin jo izan genituen bertsoiak eta bestelakoak joko ditugu".

Galiziatik Euskal Herrira

Ilunkeran, Tanxugueiras talde galiziarren txanda izango da, 19:00etan. "Euskal Herrian jozteko aukera dugun guztietan baiezkoa ematen dugu, eta kasu honetan ere hala izan da. Gure-

tzat ere oso aberasgarria izango da Euskal Herriko taldeak gertutik entzutea, horretatik ere ikasteko", adierazi du Sabela Maneiro taldeko kideetako batek.

Galiziako musika tradizionala lantzen dute, galizieraz, hizkuntza eta musika bera gal ez daitezeko, Maneiroren esanetan. "Erreferentziarik ez badago, oso zaila da datozen belaunaldiek horren aldeko apustua egiten jarraitzea", nabarmendu du.

Tradizionala izan arren kutsu modernoak ere badutela aitortu du. "Askotariko musika entzuten dugu eta hori nabaritu egiten da guk egiten dugun musikan ere. Hori dela eta, jende gaztearengana iristen garela sumatzen dugu, eta hori ona da".

Azpirarratu gura izan da "zorionez" Galiziako musika tradizionala hazten dabilela berri. "Haurrek hemengo instrumentuak jotzen ikasten jarraitzen dute: panderoa, pandereta, lata, maskorak, koilarak, eta abar".

Eguna borobiltzeko, Amak

Amak taldea izango da kontzertua eskaintzen azkena, 21:00etan. Trikitixa Eskolako irakaslea

izatez gain, taldeko kide ere bada Maixa Lizarribar, eta aitortu du "oso gogotsu" daudela. "Uda xelebrea izan da, eta, kontzertu asko bertan behera geratu zaizkigun arren, beste dezenteko jotzeko zortea izan dugu. Oraingoan, goi mailako beste bi talde izango ditugu oholtzan; guztiak emakumeak, gainera. Beraz, horrelako aukera bat izatea oso polita da. Bestalde, Sorginak taldean nire ikasleak ere badaude; hortaz, bi aldiz ama sentitzen naiz", adierazi du.

Herritik herriarentzat egindakoa

Jon Apraiz Ibai-arteko presidentek asteburuan herrian geratzeko dei egin du. "Jaialdiaren helburua da jendea herrian geratzea eta Arrasateko komertzioetan eta tabernetan kontsumitzea. Bizi, erosi eta maite Arrasate", azpirarratu du.

"ARRASATEARREK HERRIKO TABERNETAN ETA KOMERTZIOETAN KONTSUMITZEA DA JAIAREN HELBURUA"

GORA ETA BEHERA



ERABILTZAILEREN BAT

Eskalada-murruak, "arazo ugari"

Uarkapen udal zerbitzua "tamalgarria" dela salatu dute hainbat erabiltzailek. "Koltxonetak apurtuta daude, euskarri asko solte, paretak oso zikin eta aire-erazgailuak ez du funtzionatzen".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Astlehenean, Saski Eskola; eta atletak, eguaztenean

Urriaren 5ean ekingo dio Ointxe!-k Saski Eskolari. 2009an, 2010ean, 2011n, eta 2012an jaiotako neska-mutiek astlehenean hasiko dituzte entrenamenduak, 16:45ean, Musakolako kiroldegian. Halaber, izena emateko aukera ere egongo da: "Joan zaitezke entrenamendura, han formalizatuko dugu izen-ematea".

Arrasate Atletiko Taldeak eguaztenean, urriaren 7an, hasiko ditu saioak, 2004 eta 2013. urte bitartean jaiotakoentzat. Adinaren arabera entrenamendu ezberdinak egingo dituzte. Izena emateko epea zabalik dute, Arrasateatletiko.com webgunean. Bi gaien gaineko informazio osoagoa, Goiena.eus-en.



Euskal Herria hobetzeko prest?
Bertakon emakumezkoen kirola, gutxiengoa, egokitua eta inklusiozkoa babesten dugu, elkarrekin Euskal Herri hobea eraikitzeko.

OROTARIKO ZERBITZUA
100 €-tik / hileko
Arrunta 70€-tik / hileko

 Garaia Berrikuntza Gunea
20.500 Arrasate

 943 903 450

 info@bertako.eus  www.bertako.eus

Amaia antzokiko ohiko programazioa bueltan da

Martxoaren 12an eten zuten programazio arrunta, halaberrez, eta irailean itzuli ziren ikuskizunak Amaia antzokira; aurrerantzean ere askotariko emanaldiak egongo dira, "segurtasun neurri guztiekin, kulturaz lasai eta seguru gozatu ahal izateko"



Dantza garaikidea eskaintzen duen #56 ikuskizuna, Amaia antzokian. IMANOL SORIANO

Eneko Azurmendi ARRASATE

Jon Garai Kultura teknikariburuak azaldu duenez, iraileko bi emankizunak, *Simplicissimus* eta #56, proba modura hartu dituzte. "Gehienbat, gure ikusleei adierazteko bueltatu garela eta segurtasun neurri guztiekin hasi garela, kulturaz lasai eta seguru gozatu ahal izateko. Gainera, erantzun ona eduki dugu, 120 lagun izan genituen kabaret emanaldian eta 90 dantza ikuskizunean", nabarmendu du.

Segurtasuna bermatzea da, Garairen esanetan, lehentasun nagusia. "Sarrerak online erosteko aukera bideratu dugu, baita zinemarako ere; sarrera-irteeretan gelak jarri ditugu eta jarlekuen artean distantzia bermatuta dago. Horrek edukierari eragiten dio. Berez, 789 eserleku daude Amaia antzokian, baina legeak behartzen gaitu edukiera osoaren %60 betetzera, gehienez. Beraz, dezente gutxiago dira orain", azaldu du.

"Erronka handia" izango da

Azpimarratu du "erronka handia" dela berriro ohiko egitarauarekin hastea, baina "gogotsu" ere badaudela horretarako. "Gainera, sumatu dugu ikus-entzuleak kultura gogoz daudela. Kalean galdetu izan digute zinema noiz hasiko den edota bestelako ikuskizunak noiz hasiko ditugun. Garbi dago emanaldi jakin batzuk ezingo ditugula egin, Zarzuela, esaterako, beste baldintza batzuk eskatzen dituelako, baina beste guztiekin aurrera egingo dugu".

Zinema eta ikuskizunak

Bihar, zapatua, zinema emanaldiekin hasiko dira Amaia antzokian, *Tenet* pelikularekin. Bestalde, urriaren 18an, *Fadoak entzuten zituen gizona* antzezlan izango da; urriaren 24an, *Botadun katua* haur antzerkia; eta azaroaren leian, *Ave Osos*. Sarrerak salgai daude *Arrasate.eus* webgunean. Informazio gehiago, *Goiena.eus*-en.

Programazio berezia urrian, Bibliotekaren Eguna ospatzeko

Lehen ekintza urriaren 8an izango da, Kulturaten, 18:30ean: 'Tunba, orro egiten besterik ez zekien lehoia'

E.A. ARRASATE

Urriaren 24a izango da egun handia. Halere, hilabete osoan izango dituzte ekintzak Udal Bibliotekan. "Helburua da literaturaz eta kulturaz gozatzeko aukera erakargarriak eskaintzea, adin guztietako herritarrek kontuan hartuta. Bibliotekaren ardatz diren irakurketa, kultura eta herria bizi-bizi jarri nahi ditugu Bibliotekaren Eguna ospatzeko", dio Ane Miren Berasategi liburuzainak.

Edukiera mugatua izango da ekintza guztietan. "Aldez aurre-

tik aulki kopuru mugatua prest egongo da, segurtasun distantziak beteta", dio Berasategik.

Lehen ekintza antzerkia izango da, eguenean, Didau Antzerki Faktoriaren eskutik. "Afrikako ipuin bat da, animalia batzuen bizitza kontatzen duena. Txotxongilo batzuk ditugu, eta objektu ezberdinen bitartez Afrikako elementuak osatzen joaten gara. Familiak animatu gura ditugu. Protokoloak betez, goazen kulturaz gozatzera", dio faktoriako kide Ainhoa Agirrek. Ez da aurrez izena eman behar.

2. alea

%50

eko deskontua



ALBO
Atun argia oliba-olio birjinalan
pack 3x92 g

5,95
€/alea
21,55€/kg



SKIP
Ultimate edo
Ultimate Mimosin
detergente likidoa
65 dosi
0,20L/dosi

13,29
€/alea



FAUSTINO
Ardo beltz onduja Enrikoa
JDK

6,40
€/alea
8,53€/l



KONBINATU

6,64
€/alea

2 ale: 0,15€/dosi

2 ale: 16,16€/kg

2 ale: 6,40€/l

2020ko 09/24tik 10/07ra baliozkoak izango diren prezioak, produktu freskoetan izan ezik (kontsultatu haien indaraldia liburutzan).



EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30



'Biok ospatuko degu momentu hobian'

Arrasateko kaleetan ez da traje dotorerik ikusiko gaur, ezta lore eskaintzarik edo eskapulariorik ere. Osasun krisiak txikiteroen patroia eguna galarazi duen arren, parrokiako horma-kontrako babeslekuan nekez gaixotuko da Maritzu

Hasier Larrea ARRASATE

Ez da miraririk gertatu. Aurreikuspen guztiak beteta, bere horretan geldituko da aurten Maritzu: Herriko Plazako iturriaren atzeko horman gotortuta, urte madarikatu hau pasatzeko zain. Zalantzarik ez dago berak, herriar guztiak bezalatsu, datorren urtean inoiz baino indarberri-ua ospatu nahi duela egun berezi hau. Baina gaur erantzukizunez jokatzeko tokatzen da, eta 1977tik lehenengoz Arrasateko erdigunean ez da kantu algaratsurik entzungo.

Inongo zalantzarik baldin bezagoen, kolpetik uxatu zituen guztiak Maritzu Kajoi Komisiñuak joan den irailaren 23an. Ordurako egitaraua antolatzen aritu beharko zuketuen, baina, oraingoan, komunikatu argia idazteko lanak baino ez dituzte hartu: *Aurtenguen Maritzu Kajoi ez ospaketako erabakia hartu dou. Hori dala ta, aurten ez da eskapulaixo, kartel edo egitaraurik egongo, ezta urtero antolatu izen dittugun ekitaldi eta ekintzaik bez.* Era berean, osasun eta baldintza sozialak betetzen diren unean festa hau betiko mimo eta gogoz antolatzen jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten komisioko kideek argitaratutako testuan.



Bikote bat balkoian, Maritzu Kajoi konfinatua ospatzen. GOIENA

Festa saihesteko neurriak

Komisiñuaren oharrarekin bat egitea erabaki du Udalak ere. Horren harira, Maria Ubarretxena alkateak haxe adierazi du: "Lanegun normala biziko dugu gaur, eta kanpotik festa egitera etorri nahi duen jendea ez zaio herrian sartzeko erraztasunik jarriko".

Hortaz, ez da autobus zerbitzu berezirik egongo: arratsaldeko autobus zerbitzuak eten egingo dira momentu batetik aurrera eta gaueko ohiko linearik ez da pasako Arrasatetik.

Bestalde, 18:00etatik aurrera herriko sarrerak poliziaren kontrolpean egongo direla nabarmendu du alkateak: "Ez dugu nahi ospatuko ez diren jai batzuetara kanpoko inor gerturazterik; horregatik, norbait festa egiteko asmoz baletor, sarrera ukatuko litzaioke berehala".

Tabernek, gainera, Jaurlaritzak ezartzen duen ordutegia mantenduko dute. Ondorioz, 00:00etan zerbitzatuko dira azken tragoak, eta, asko jota, handik ordubetera itxiko dira saltokiak. Egun arruntetan, bezala, alegia.

Kale zurruta ere zorrotz kontrolatuko dutela esan du alkateak: "Polizia dispositibo berezia antolatuko da, eta normalean baino Ertzaintza eta Udaltzaingoa patruila gehiago ariko dira kaleak begiztatzen". Era berean, gogoratu du kaleko edana edo botila festa egitea galarazita dagoela eta arau hausleei 1.200 euroko isuna ezarriko zaiela.

Miraririk izatekotan, zein?

Maritzu Kajoi egunaren aurreko asteetan, fededun zein fedegabe askoren buruan egoten den galdera da honako hau: "Zer ekarriko digu aurten gure ama birjinak?". Normalean, fikziora jotzen dute hainbat eta hainbaten pentsamenduek, imajinatze-ko zailak diren egoerak irudikatuz: iturritik ardoa aterako dela, tarte batez elurra egingo duela, Maritzu bera ke artean desagertuko dela, zerutik billeteak eroriko direla... Txikiteroen patroiak halakoak eta bi lortzeko gai dela erakutsi du 44 urte hauetan. Une magikoak eskaintzen ditu eguna gau bihurtzen denean, Erdiko kaleko iturri aldera ezarria urratzeko gogoz gerturatzen diren gozagarrak.

Gizarteak bizi duen ezohiko testuinguru honen baitan, pentsatzekoa da herriarrek Maritzuri egingo dioten eskaera ez dela, kaxotx artean esanda, aparteko ezer izango. Paradoxikoa dirudi, baina magiarik handiena orain martxo aurretik bizi genuen normaltasunera itzultzea izango litzateke, pandemiarik gabeko egunerokotasunera, hain zuzen ere. Batek daki noiz iritsiko den momentu hori, baina, iristen den arte, Maritzurengan fedea edukitzea ez da gaizki etorriko. Ateok ere badakite hori.

Betiko normaltasunari egin dio gorazarre Maritzu Kajoi Komisiñuak bere oharrean: *Hurrengo Maritzu Kajoi lagunartien eta batera ospatzia bakunaik biheko ez dauen miraririk haundixena izengo da.* Bakuna, zentzu metaforikoan ulertu behar, pandemiari egiten zaion keinu bezala, alegia, inork ez baitaki zein izango den COVID 19a gelditzeko antidoto erabakigarria.

Zerbait jakina bada, Maria Ubarretxena alkateak nabarmendutakoa, ez dela "ospakizunetarako momentua". Osasunari dagokionez garai kritikoak bizi dira euskal ingurumarietan. PCR probetako positibo indizea apaltzetik urrun dagoela onartu eta norberak erantzukizunez jokatzeko besterik ez da gelditzen, beraz. Garai hobeak iritsiko direla sinestea. Aterako dira armairutik jantzi dotoreak aurrera, egingo dira kuadrillako bazkari eta afari algaratsuek eta zabalduko dira taberna eta txosnaguneak goizeko ordu txikitara arte. Txikiteroek izango dute zintzurra ardoz betetzeko makina bat aitzakia. Maritzuk entzungo du berriz bere omenezko kanta, eta herriarrek ospatuko dute, inoiz baino gogo biziagoz, merezi duten festa.

Ordura arte, arduraz jokatu beharko da, eta Maritzuk berak konfinamendu garaiko eskapularioan iradoki zuen bezala, maskara jarri.

KANPOKOEI EZ ETORTZEKO ETA BERTAKOEI FESTARIK EZ EGITEKO ESKATU DIE UDALAK

CITROËN C5 AIRCROSS HYBRID HIBRIDO ENTXUFAGARRIA

**SILENT
URBAN
VEHICLE**

55 KM-ko AUTONOMIA*
%100 MODU ELEKTRIKOAN

KARGA AZELERATUA
2 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN

*Autonomia aldatu egin daiteke erabilera-baldintza errealen arabera



CHAPIME TAILERRAK

Debagoieneko Citroën zerbitzu ofiziala

gu ere arrasatearrekin!

SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE

**H.L. ARRASATE**

70eko hamarkada, txikiteoa oso errotuta Arrasaten. Musikarik ez tabernetan, ezta faltan igarri ere: adin guztietako kuadrilla handiak kantuan ibiltzen ziren hara eta hona. Haiengandik gertu, beti, Pepe Txantxote gizon makuluduna. Tragoa hartzen zuen bakoitzean, "Maritxugatik!" ateratzen zitzaion ahotik. Kuadrillek, bere emaztea zelakoan, adarra jotzen zioten, baina Txantxotek oker zebiltzala aurpegi-ratzen zien, parrokiako ate nagusira seinalatuz: "Maritxu hori da, Maritxu Kajoi, txikiteroon zaindaria!". Esaldi hori eta ordutik aurrera txikiteroek Maritxuri eskaintzen zioten koplak sortak izan ziren ama birjinaren omenez egiten den festa ospatzeko leherkaria. Horrela dago jasota Maritxu Kajoi Komisiñuak 2001ean argitaratutako liburuan.

Kosta zitzaion aireeratzea

Hasierak ez ziren batere errazak izan. 1975ean inauguratzea zen asmoa, baina gertakari latzek jaia bi urtez atzeratzea ekarri zuten: Iñaki Etxabe erail zuten Kanpanzarren 75ean eta meza esaten ari zela zendu zen Jose Luis Iñarra parrokoa 76an.

Hurrengo urtean, zazpi komisiokide arduratu ziren estreina-ko egitaraua antolatzeaz. Nahiz eta dotore jantzitako jende gutxi agertu, gorbatek kolkotik beko-kirako bidea hartu zuten segituan. Ospakizunaren lehen ha-



1980ko jai giroa. KOMISIÑUA



1981eko miraria. KOMISIÑUA



1982ko lore eskaintza. KOMISIÑUA

Bitxikeriaz betetako ospakizun herrikoia

Txikitero batzuek Maritxu Kajoiri poteo batean eskaintako koplak kantaldi batetik sortu zuten Errosarioko ama birjina urtero omentzeko usadioa. Hastapenetan zeresan handirik izan ez bazuen ere, bolbora bezala hedatu zen geroago festa egunaren oihartzuna

rria jarri zen, beraz; harri irris-takorra, euria egin baitzuen gau hartan. Hura maldizio txiki bat bezala interpreta daiteke, zaila baita zaparradarik gabeko Maritxu Kajoi egunik gogoratzea.

78ko edizioan ahoz ahokoak eragin handiagoa izan zuen. Orduan bai, kuadrilla ugaritako lagunak batu ziren antolakun-

tzara, eta Maritxuk festazale guztiak zaindu zituen artez.

"Ama, iturriak ardoa dakar!"

Behin oinarria jarrita, bereak eta bi egiten hasi zen ama birjina, inoiz ez asmo okerrez. 1981ean lehen miraria egitea otu zitzaion, zer eta plazako iturritik, ura beharrean, ardoa ate-

ratzea. Kalea jendez lepo, gaztetxoek zeharo aztoratu ziren gertaera harekin; nola ez ziren, ba, iturriko edari beltza probatu gabe geldituko? Gurasoek, seme-alaben erreakzioa ikusita, arren erregutu zieten komisiokideei gera zezatela eskandalo hura, eta halaxe egin zuten berarek. Nabarmentzekoa da mi-

rari hura gauzatzeko tabernekin egindako esfortzu ekonomikoa, guztira 600 litro isuri baitzituen Herriko Plazako iturburuak.

Nonbait, gustatu egin zitzaion Maritxuri pasarte hura, eta 20 urte geroago berriz eskaini zuen ardoa iturri berberetik. Orduko hartan, ez zen haurrik gerturatu, zorionez.

la San Ferminen pare

Ezin jakin 81eko anekdota harrengatik, lehenengoz petardoan ardua jarri izanagatik edo irratietan kuñak sartu zituztelako, baina 1982ko Maritxu Kajoi euskaldun askoren kuriositatea piztu zuen.

Hala, jantzi dotoreak barra-barra ikusi ziren urte hartako urriko lehen ostiralean. Jende pilaketak urteroko ogi bilakatu ziren aurrerantzean, ordura arte ezezagunak ziren txosnei bidea eginez. Trikitilari eta gaiteroak kaleak doinu alaiz girotzen hasi ziren, eta hasierako jende uholedearen aurrean errezeloz jokatzeko zuten herritarrek ohitu egin ziren ehunka kanpotar festazalaren bisitetara. Maritxu abegikorrek denei egiten dielako tokia bere egunez.

LEHEN LAU EDIZIO XUMEREN OSTEAN, FESTA DOTOREAK EZTANDA EGIN ZUEN 1982KO URRIAN

Gu ere arrasatearrenekin!

ITURRIOTZ
ITZALA
MONTE

OKORETEGI
RUMBA
TXOKO II



'Maritxu, nora zoaz? Iturrira, Bartolo!'

Ezaguna da kanta herrikoiko pasarte, Maritxu Bartolorekin hizketan ari denekoa. Askok ez dute jakingo, gazteenek batez ere, ama birjinaren kutxa Erdiko kaleko eliza atarian egon zela 1994ra arte. Tirabira askoren ostean, iturri aldera eramán zuten

H.L. ARRASATE

San Juan Bataiatzailea parrokia kanpoaldean, Erdiko kalera jotzen duen atearen gainean, kokatuta egon zen Maritxu, 150 urtez. Eta, gezurra badirudi ere, ez zen presente egon bere omenezko lehen ospakizunean. Orduko alkate Jose Antonio Altunak eta Zubillaga parrokoak izan zuten zerikusirik, kutxa (kajoia) kentzeko agindu baitzieten Udaleko brigadako langileei, Arrosarioko ama birjinaren egunaren bezperan. Komisiñoko kideek, txikiteroen zaindaria non zegoen ez bazekiten ere, lore sorta eskaintza eta atearen garbiketa txukuna egin zioten Maritxuren bizitokiari.

Hurrengo urterako kutxa berria egin behar izan zioten; 35.000 pezeta kostatu zen. Neurriak jakiteko, udaletxeko balkoira igo ziren Komisiñoko kideak giza harrisia eginez, eraikineko alondegian baitzegoen kutxa gordeta. Ostiralean, eguerdi aldean, jaietako antolatzaile batzuk arkupeira joan ziren kutxa berria kokatzera, udaltzainen aginduei jaramonik egin gabe.

Gertaera hura izan zen Komisiñuaren eta herriko ordezkari

politiko eta erlijiosoen arteko harremanaren lehen atala; ez, ordea, katramilatua. Kapitulua hura Maritxu adinez nagusi egin zenean jazo zen, 1994 eta 1995. urteen artean.

Parrokian zaharberritze lanak egin zituzten hilabete haietan. Komisiñoko kideek kutxaren giltza utzi zieten parrokiako arduradunei, Maritxu eliza barruan gorde zezaten. Irailean bilkura egin zuten bi aldeek, baina ez ziren ados jarri: erlijiosoek, arrazoi estetiko eta arkitektonikoak tarteko, parrokiatik kanpora eramán nahi zuten Maritxu, udaletxeko balkoira edo Zurgin kantoiko arkura. Komisiñokoek, aldiz, bere betiko tokian mantentzea zuten helburu, eta uste zuten leku aldaketaren benetako asmoa jaietako nortasuna kentzea zela.

94ko ospakizunetan bere bizitokian agertu zen ama birjina, eta hura izan zen miraria. Urtebeteren buruan, obrak amaitzeke, Maritxuk ez zuen miraririk egin, haserre baitzegoen.

Abenduko batzarrean, orduan bai, akordioa egin zuten bi aldeek, eta gaur egun ezagutzen dugun txokora bidali zuten jaietako

ikurra: iturri osteko hormakonka gotikora.

Erromes, 40 urte bete berritan Txikiteroen lez, Maritxuk gustuko du lantzean behin etxetik irtetea. Hala, Oñati, Aretxabaleta, Musakola eta Bedoña bisitatu zituen 2016an, txintxo-txintxo bere kutxara itzuli aurretik.



GOIENA

Zaindariaren alde soziala

Hastapenetik garrantzi handia eman dio ama birjinak orduan orduko gaietara. 1983an, Bilboko uholdeen ostean, 100.000 pezetako dohaintza egin zuten Marijaiaren inguruko konpartsei. Hiesa zela-eta kondoiak erori ziren zerutik 88an. Hondarribiko Jaizkibel konpainia birritan gonbidatu du gurera, 2000n eta 2018an. Zendutakoei ere keinu ugari egin dizkie.



Maritxu, bere kutxan, mirari egunean. GOIENA

Preso eta iheslariak etxera kopon!

OSORIK TAUPA IRATI DAT ILUNTZ BASATI JAI ZALE ETXOSTE

Gu ere arrasatearrekin!



Komisiñoko kideak, dotore, Citroen 11BL auto klasikoarekin, 1986an. KOMISIÑUA

Elegantzia, soineko eta esmokinetatik haratago

Sinplekeriak baztertuta, egun seinalatu hau inoiz baino kaskarinago ateratzeko aprobetxatu izan ohi dute festara gerturatzen direnek. Aurten, behintzat, ez da buruhausterik izango, arropa dotoreenak armairuan gordeta jarraituko baitute

H.L. ARRASATE

Komisiñoko antolatzaileek bazkaria egiten zuten Portaloian txikiteroen patroiarri eskainitako lehen edizioetan. Ohitura aldatzearen, Bergarako Lasa jatetxera joatea okurritu zitzairen geroago. Hala, esmokinari erabateko osotasuna emate aldera, auto klasikoa ekartzeko apustua egin zuten Komisiñoko lau kidek.

Esan eta egin. Garai bateko gangsterrak balira bezala, Citroën 11 Traction Avant batekin paseatu ziren inguruko kale eta errepideetan zehar urte askoan. Hain ezagun bilakatu zen ibilgailua, ezen 89ko kartelean agertu baitzen figurante. Esan beharra dago beste auto klasiko batzuekin ere ibili zirela jaietako antolatzaileak gora eta behe- ra Maritxu egunez, baita zaldi gurdiekin ere. Originaltasunaren izenean, edozerk balio zien.

Otordua Gesalibar auzoan egiten hasi zirenean, bueltarako bidea joanekoa baino arrisku- tsuago bilakatzen zitzaizela jakitun, Eskoriatzako Felix Urrezolari saldu zioten aipatutako autoa. Dena den, duela zazpi urtera arte atera izan du Urre-

zolak Komisiñokoekin batera ibilgailua, ohiturari men eginez.

Baliteke aurrerago auto klasikoa berriz ikustea Arrasateko kaleetan, eskoriatzarrak esan duenez: "Maritxuk 50 urte betetzen dituenean, akaso".

Lehenko jantziak, eguneratuta

Maritxutako trajeek kolore beltza luzitu izan dute nagusiki, nahiz eta gaur egungo tendentziak ere sartu diren jokoan. "Gizonek eta emakumeek geroz eta jantzi koloretsuagoak eramaten dituzte orain. Soinekoetan, gainera, estilo aldetik asko zabaldu da abanikoa", adierazi du Amaia Albes diseinatzaileak. Lentejuelak, harribitxiak, mahu- ka handiak, soineko asimetrikoak eta bizkarreko eskoteak eta ha- lako osagarri berritzaileak be- tiko eskularru, luma eta estole- kin konbinatzen dira gaur egun. Garai bateko gona luzeak, gai- nera, soineko motz eta estuekin ordezkatzeko hautua hartu dute emakumeek.

"Edonola ere, Maritxutarako emango nukeen gomendiorik onena jantziak berrerrabiltzea da", borobildu du Albesek.

ALDEDI

Gu ere arrasatearrekin!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Oinezko bi Nardeaga kalean. IGONE OSINAGA

Dagoena nola birgaitu eta kontserbatu arautzen

Ibarrako gunea berritzeko plan bereziari onarpenera eman zioten joan den astean egindako osoko bilkuran, aldeko zazpi botorekin eta bi abstentziorekin. Aldizkari ofizialean agertu eta 20 egun baliadun izango dute herritarrek alegazioak jartzeko

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Joan den egunean egindako osoko bilkuran, Ibarrako gunea berritzeko plan bereziari hasierako onarpenera eman zioten.

"Ibarra guneko zati bat hirigune historiko moduan dago izendatua 1995etik. 1997an, birgaitze plan bat onartu zen; bada, orain egin nahi dena da plan horren berrikusketari", azaldu du Udaleko arkitekto Beñat Mendiburuk. Birgaitze plan batek egiten duena da gune historiko horretan egin daitekeen arautu. "Ibarran badaude hainbat eraikin historiko, badago plaza, ermita, interes handiko eraikinak direnak, babes-tuak daudenak. Bada, plan honen egingo dena da irizpideak markatu aipatutako patrimonio hori kontserbatu eta birgaitzeko", gaineratu du.

Udalak hasierako onarpenera eman dio planari. Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da ondoren -urriko lehenengo astean izango da

hori-; gero, herritarrek 20 egun baliadun izango dituzte plan horri alegazioak jartzeko.

Aldaketa nabarmenenak

"2019an onartu zen patrimonioaren lege berrira egokitzea da plan honen aldaketa nabarmena; horrez gain, Ibargoia eta Nardeaga kaleetan lortuko da espazio publikorako partzela bana", dio arkitektoak. Azkeneko planaren arabera etxebizitzak eraikitze baimena zuten partzela batzuetan, baimen hori kontzentratu egin dute -horizontalean eraiki beharrean, etxebizitza kopuru bera bertikalean eraikitze baimena eman, adibidez- eta modu horretan partzela horietako lursail

BIRGAITZE PLAN HORREK IRIZPIDEAK MARKATUKO DITU PATRIMONIOA KONTSERBATZEKO

eraikigarri zati bat leku publiko bihurtu dute. "Bestalde, lehen eraikigarriak ziren partzela batzuk orain ez dira eraikigarriak izango uraren arautegi berriaren arabera. Hau da, partzela horiek uholde arriskua daukate orain", gaineratu du Mendiburuk.

Landa-bideen inbentarioa

Landa-bideen inbentarioen hirugarren fasea ere onartu zuten eguneko bilkuran. Orain dela urtebete, behin-behineko onartu zen hirugarren fasea. Hala, inbentario horri bost alegazio aurkeztu dizkiote herritarrek. "Bost alegazio horietatik bakarra onartu da", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Inbentario horrek jasotzen du zeintzuk diren Aramaioko bide publikoak, katastroan sartuta daudenak. "Lehenengo fasean, bide nagusiak sartu genituen katastroan, asfaltatutakoak, hormigoizkoak... orain egin duguna da lan hori borobildu", gaineratu du Altunak.

Aurtengo sagar uzta oso txarra izan dela diote sagardogileek

Osasun egoera zein den kontuan hartuta Udalak erabaki du urteroko Sagardo Eguna ez antolatzea

A.E. ARAMAIO

Ez Sagardo Egunik, ezta sagarrik ere. Horrelakoa izango da aurtengo urtea. Aramaioko Udalak erabaki du azkeneko urteetan arrakasta handiz antolatu izan den Sagardo Eguna ez antolatzea. "Ez dauka zentzurik. Basoa saldu eta sagardoa edan, talo postua... Egun bizi dugun egoeran ez du zentzurik jai hori antolatzeak", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Aramaioko Sagardogile Elkarteko (ASE) presidente Jose Miguel Maskarianok dio aurtengo

dagoela "batere sagarrik". Hori zergatik den galdetuta, Maskarianok ez dauka argi: "Ez dakigu, izan daiteke eguraldiagatik edo izan daiteke sagarrik bi urtean behin izaten direlako... kontua da ez dagoela sagarrik".

Hori horrela, ASEk erabaki du elkartean duten makineria martxan jarriko duen langilerik ez kontratatzea aurtengo. Gaur egun, Aramaioko elkartean 22 sagardogile daude: Aramaiokoez gain, inguruko herrietako sagardogileak ere badaude elkarre horretan.

Euskararen inguruan bi dirulaguntza lerro aurkeztu ditu Udalak

Aramaioko Udalak bi dirulaguntza lerro zabaldu ditu: euskara ikasteagatik da bata eta errotulazioa euskaraz jartzeagatik bestea.

2019-2020 ikasturtean zehar euskara ikasi zutenek izango dute eskaera egiteko aukera. Laguntza hori jasotzeko, ezinbestekoa izango da asistentzia ziurtatzea -%80tik gorakoa es-

katuko dute-, eta ordaindu den matrikularen ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute.

Kanpoko zein barruko hizkuntza paisaia euskaraz jartzeagatik ere emango dituzte laguntzak. 2020. urtean herriko establezimendu batek euskaraz sortu badu errotulazioa edo marka, aukera izango du laguntza eskatzeko. Gastuaren agiria aurkeztu beharko du, eta baita egindako lanaren frogaren argazkia, adibidez-. Udaletxean eskatu behar dira laguntzak.



CRISTINA ETXENAUSIA

"Ikarragarri ondo" erantzun dute

Lesbosko errefuxiatuen alde egindako janari bilketak oso erantzun ona izan zuela azaldu du Cristina Etxenausiak. "Ikarragarri ondo erantzun dute herritarrek", dio. Bildutako janaria Aretxabaletara bideratu dute, handik Zapareak elkartarekin Lesbosera eramateko.



Iazko irakurle-klub feministako azkeneko saioa. JULEN IRIONDO

'Laia plazara' izango da aurtengo berritasuna

Arabako emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako Laia eskolen aurkezpena urriaren 9an egingo dute, Zuian. Edizio berezia izango den honetan, solasaldiak jarraitzeko plaza birtuala sortu dute. Aramaion irakurle-klub feminista egingo dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Laia Eskola 2016an jarri zuten martxan landa eremuko emakumeen jabekuntza bultzatzeko. Gorbeialdeko Kuadrillako berdintasun teknikari den Jone Unzagak nabarmendu du ordu-rako bazegoela, modu xume batean, feminismoa eta berdintasuna aldarrikatzeko bidea landa eremuan.

Lehenengo ekitaldia, eta, bide batez, Laia eskolaren aurkezpena, urriaren 9an egingo dute, Zuiako udaletxearekin nagusian, 18:00etan. Ekitaldi berean Arabako LGTBI diagnostikoa aurkeztuko dute. Foru Aldundiko Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendari Nerea Melgosak eta Aldarte zentroko zuzendari Lala Mujikak parte

hartuko dute hitzaldian. Gaztelaz izango da aipatutako saioa.

Aramaion izango direnak
Antolatu dituzten ekitaldien artean, Aramaion egingo dituzte irakurle-klub feministako euskarazko saioak. Urriaren 19an izango da aurkezpena, 18:00etatik 20:00etara, kultura etxean. Ainhoa Aldazabal Ga-

Haziaraba jaialdia hirugarrenez izango da Aramaion

Lehenengo ekitaldia bihar, zapatua, izango da, kultura etxean; sarrerarik ez da behar, baina bai izena ematea

A.E. ARAMAIO
Etxeko txikitxoenei zuzendutako Haziaraba jaialdiak geldialdia egingo du aurtien ere Aramaion. Hiru ekitaldi antolatu dituzte, eta horietako lehena bihar, zapatua, izango da.

Koloreekin, formekin eta bo-lumenekin jolasten den *Kubik* ikuskizuna eskainiko dute bihar, kultura etxean, 18:30ean. 1 eta 4 urte bitartekoei zuzendutako ikuskizuna da, euskaraz. Hurrengo ekitaldia urriaren 10ean

izango da, 18:30ean: 2 eta 6 urte bitartekoei zuzendutako zine emanaldia izango da. Testurik gabeko filmen emanaldian publikoa epaimahai bihurtuko da. Azken ekitaldirako eguna, berriz, zehaztu barik dago. *Kaxa bat amets bat* instalaziorako eguna haur eskolak eta ikastetxeak adostuko dute.

Ekitaldietarako sarrera doakoa izango da, baina aurrez izena eman beharko da udaletxean –ez dute txartelik emango–. 945 44 50 16 telefonora deitu behar da.

'Feminismos negros' hitzaldia

Gaur, barikua, feminismoaren inguruko hitzaldia eskainiko du Jeanne-Rolande Dacouagna Minkettek kultura etxean, 18:00etan. *Feminismos negros* izango da hitzaldiaren gaia eta, bereziki, Afrikako emakume migratzaileen gizarte-egoerari buruz hitz egingo du. Feminismoan ikertzailea, hezitzailea eta aktibista da Dacouagna.



Jeanne-Rolande Dacouagna.

"Martxoaren 8aren bueltan egin beharreko hitzaldia zen, baina egoerak hala behartuta atzeratu egin genuen", dio Cristina Etxenausia zinegotziak. Feminismo beltza, kolonialismoaren ostekoa, Afrikako feminismoa eta Euskadiko emakume arrazializatuaren agendaren gainean hitz egingo du Dacouagnak. Hitzaldi huts bat baino harago joango den ekitaldia izango da: hizlariak elkarrizketarako gune bat sortuko du bestelako feminismo batzuk ere plazaratzeko.

Ilastegi euskal filologoa eta literatura feministan aditua izango da koordinatzailea. "Literatura ona partekatu" eta feminismoaren historia ezagutzeko begirada zabalduko dute saioek. Emakumeei zuzendutako ikastaroa izango da. Hilean behin elkartzeko dira, hileko bigarren astelehenean.

"2017an egin zen lehen aldiz irakurle-kluba, eta guretzat oso garrantzitsua da euskaraz izatea. Sei bat lagun elkartu ohi dira", dio Unzagak.

'Laia plazara'

Ukitu gabe, elkartu gabe eta urrutitik elkar lagundu eta zaindu ahal izateko plaza birtuala sortu dute aurtien: *Laia plazara*. "Hainbat ekintza *online* ikusteko aukera izango da. Gorbeialdearen kasuan, ordea, ahal den neurrian eta dauden muga guz-

tiekin ekintza presentzialak lehenetsiko ditugu. *Online* konektatzea aukera ona da, baina arrakala bat dago teknologiek, eta askoz gehiago emakumeen kasua. Emakumeekin jabekuntza teknologikoa lantzea ezinbestekoa da ekintzen eskaintza *online* izan baino", dio Unzagak.

Zinegoak jaialdia

Aurtien, lehen aldiz, Bilboko Zinegoak jaialdiarekin bat egingo du kuadrillak: "Transmittitu nahi dituen baloreak eta aldarriekin bat egiten dugulako". Ez dute zehaztu proiektio eguna.

HAINBAT IKASTARO 'ONLINE' IZAN ARREN ESKAINTZA PRESENTZIALA LEHENETSIKO DUTE

Hileko bigarren eguenetan podologoa izango da berriro ere

Urriaren hasiko da berriro ere podologoa zerbitzua eskaintzen. Alaiak erretiratuen elkartean eskainiko du zerbitzua, hileko bigarren eguenetan. Zerbitzua erabili ahal izateko aurrez hitzordua hartzea ezinbestekoa izango da. Horretarako, Itsaso Aranzabal podologoari deitu behar zaio, 616 55 85 60 telefono zenbakira.

Azkoaga zinema plato bihurtuko da urriaren 5ean, astelehena

Érase una vez... Euskadi filma grabatuko dute urriaren 5ean Aramaioko Azkoaga auzoan. Egun osoan egongo dira han, prestakuntza lanak egiten lehenengo eta grabatzen ondoren. Manu Gomez arrasatearrak zuzenduta, filmak 80ko hamarkada hartan ihes egin behar izan zutenei buruz hitz egiten du, besteak beste.



Iban da Silva udaltzaina eta Karmele Uribarri zinegotzia ordenantzaren gaineko liburuxka esku artean dutela. MIRARI ALTUBE

Animalien gaineko ordenantza betearazten

Liburuxkan jaso ditu Udalak animaliei buruzko araudiaren nondik norako guztiak, eta horiek banatuko dizkiete txakurrak dituzten 600 herritarri. Udaltzainek, berriz, zaintza indartuko dute, araudia hautsi ez dadin eta elkarbizitza bermatu

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza eguneratu egin du Udalak aurrean, eta abuztuaren 21etik indarrean dago. Ordenantza horren gaineko guztia liburuxkan jaso dute orain. Mila ale argitaratu dituzte; horietatik 600 txakurren jabeen banatuko dizkiete, eta gainerakoak Udalak gordeko ditu, txakur bati alta ematen diotenean udal erregistroan haren jabea emateko. Ordenantza webgunean ere kontsulta daiteke: Aretxabaleta.eus.

"Elkarbizitza hobetzea" helburu

Ordenantza eguneratzeko prozesua abian jartzeko arrazoiak izan dira Udalari helarazitako kekek eta kezak, eta txakur eta katu kopuruak gora egin izana. Hala adierazi du Karmele Uribarri zinegotziak egindako agerraldian, eta azaldu: "Epe bat ireki zen herritarren proposamenak jasotzeko, eta udal ordezkariak eta teknikariak

osatatuko talde batek hauek aztertu zituen. Ekarpene horietako asko araudi berrian sartu dira".

Animalien jabeen eta herritarren arteko elkarbizitza hobetzeko jarraibideak ezartzea izan dela helburua adierazi du Uribarri: "Oraingo neurriek zein aurretik ezarritakoek bizikidetzaren ongizatea hobetzea dute helburu. Betebehar hauek ez dira, inolaz ere, animalien jabeen aurka joango".

Txakurrak eta katuak

Araudiaren berri emateaz eta sentsibilizazteaz udaltzainak arduratuko dira, baita hori betearazteaz ere. "Gogorazi gura dugu kanpaina hau ez dela txakur

kurren jabeentzat bakarrik. Hain zuzen, lehen espedienteak ireki dira katuei kalean jaten emateagatik. Debebatuta dago hori eta arau-hausteengatik jarritako isunak 60 eta 600 euro artekoak izan daitezke", azaldu du Iban da Silva udaltzainak.

Eta ordenantza jasotako debekurik azpimarragarrienak aipatu ditu: etxeko animaliek iturrietatik zuzenean edatea eta horietan bainatzea; animalia basatentzako janaria bide publikoetan uztea; eta txakurra lotzeko luza daitezkeen uhalak erabiltzea. Era berean, zehaztu dute salaketaren bat jaso duten txakurrak kolore gorriko plaka batekin identifikatu behar direla eta txakurren gorotzak bide publikotik jasotzeko poltsak eramatea nahitaezkoa dela.

Arau-hausteei dagokienez, arinak 60 eta 600 euro artean ordaindu behar dira, larriak 600 eta 2.156 euro artean eta oso larriak 2.156 eurotik 21.565 eurora bitartean.

KALEKO KATUEI JATEN EMATEAGATIK IREKI DITUZTE UDALTZAINEK LEHEN ESPEDIENTEAK



IMANOL BELOKI

Biribilgunearen lanak, hasita

Basabe inguruko biribilgunearen lanak joan den egunean hasi zituzten. Otegi-Gaztañaga enpresari eman dio horien ardura Foru Aldundiak, eta proiektua 196.210 euroan esleitu. Biribilgune horrek 29,5 metroko kanpoko diametroa izango du, 7 metroko eraztuna eta 15,5 metroko barnealdeko uhartea. Ondo bidean, hamar astean bukatuko dituzte lanak.

Domekan antzezlanaren eta eguaztenezko kontzertua, umeentzat

Udazkeneko kultura egitarauri ekingo diote gaur, egubakoitza. Umeendako antolatutako antzezlanaren izango da Arkupen, Compañía Trotamundos taldeak *Historias de un baul* eskainiko die 6 urtetik gorakoei, 17:00etan -sarrera, 3 euro-. Antzezlanak, zirkuko jolasek eta umoreak bat egingo dute eta Fidel eta Capulita pertsonaiek aldean ekarriko

duten kutxan batuko dira horiek, familia giroan ikusteko proposa den ikuskizuna eskainiz.

Traka Matraka taldeak, osteran, kontzertua egingo du eguaztenezkoan, Herriko Plazan, 18:00etan. Birziklatutako instrumentuak erabiliko dituzte doinu dantza-garriak sortzeko: jazz erritmodun mangerak, didjeridu bihurtuko diren jogurt potoak eta maionesa tapa jotzaleak, bestak beste: "Isiltasunari forma emango diogu sormena landuz, giro atsegina eta parte-hartzailean".



IMANOL BELOKI

Kurtzebarri eskolakoak, azokan

Sanmigeletako azokarik izan ez bada ere, Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako 3. mailakoek ortuan ekoiztutako jeneroa eskaini zieten herritarrei astelehenean, ohiko azokan. Ikasleek fin-fin jardun zuten lanean, baita herritarren artean ikusmina eragin ere. "Umeek beti dakarte poztasuna. Gainera, txikitatik ikasten dute halako lanen atzean dagoena".

Aurrez aurreko zerbitzua du berriz Atxabalta Mugik

Athloneko Maialen Alkorta hartu du berriro horren ardura, eta astelehenetan eta eguaztenetan egoten da Ibarra kiroldegian. Hainbat ikastaro eta tailer jarriko dituzte abian, eta nerabeen artean jarduera fisikoa sustatzea dute erronketako bat

Mirari Altube ARETXABAETA

Telefono bidezko arreta zerbitzua eskaini du azken hilabeteotan Atxabalta Mugik, COVID-19aren eraginez zehaztutako protokoloak baldintzatuta, baina itzuli da aurrez aurreko zerbitzua. Maialen Alkorta bergararrak hartu du horren ardura berriro, eta Ibarra kiroldegian hartzen ditu erabiltzaileak.

laz, 50 erabiltzaile berri

Jarduera fisikoa sustatzea helburu duen zerbitzua 2016an jarri zuten abian Aretxabalean, eta ordutik 193 erabiltzaile pasatu dira -%56 osasun zerbitzuetatik bideratutakoak, %4 Gizarte Zerbitzuetatik eta %40 norbere kabuz- eta 128 saio praktiko egin dituzte. 2019an, esaterako, 50 izan ziren gerturatu zirenak; horietatik %61 emakumeak eta %39 gizonak.

Zerbitzuaren orientazio bulegoa Ibarra kiroldegian dago. "Norberaren ezaugarri, behar eta baliabideetara egokitutako programa proposatzen diegu dugu jarduera fisikoa sustatzeko", adierazi du Maialen Alkorta. Astelehenetan zabalduz ditu ateak; hona hemen orduetia: astelehenetan, 09:00etatik 13:00etara eta eguaztenetan, 14:30etik 18:30era. Txanda aurrez hartu beharra dago eta horretarako bi bide daude: telefonoz: 662 62 38 30; edo posta elektronikoko bidez: atxabaltamugi@gmail.com.

Ikastaroak, abian

Aurreko urteetan legez, ikastaroak eskaintzen jarraitzen dute Atxabalta Mugik. Yoga martitzen eta eguaztenetan izaten da (15:15-16:30) eta koordinazioa, oreka eta indarra (KOI) lantzeko antolatutako saioak, ostera, astelehenetan eta eguaztenetan (16:00-16:45). Ikastaro horiek ez daude Ibarra kiroldegiko ohikoen artean, eta Atxabalta Mugiko



Maialen Alkorta, Ibarra kiroldegian duen orientazio bulegoan. MIRARI ALTUBE

DBH-KO LAUGARREN MAILAKOEI BIDERATUTAKO PROIEKTUA JARRIKO DUTE ABIAN

erabiltzaileendako bakarrik antolatutakoak dira -izena emanda egon beharko dute egitasmoan-; horiek ez dute kiroldegiko bazkide izan beharrik eta, gainera, kiroldegian eskaintzen diren ikastaroak baino merkeagoak dira.

Mugikortasun arazo larriak dituzten erabiltzaileei gomentatzen diete yoga. Koordinazio, oreka eta indarraren kasuan, ostera, helburu nagusietako bat erorikoak saihestea dela adierazi du Alkorta: "Arrakasta handia dute biek; bereziki, yogak. Orain, edukiera kontuan hartuta osatu ditugu taldeak".

Erorikoak saihesteko saioak ere antolatu gura dituzte, iaz egindako legez, eta osasun publikoarekin elkarlanean. Oinezko ibilaldiak, ostera, oraingoz ez dituzte egingo, gero eta parte-hartze txikiagoa zutelako.

Nerabeak jomugan

Nerabeen artean ere sustatu gura dute jarduera fisikoa, eta urtea bukatu bitartean jardungo dute horretan. DBHko laugarren mailako ikasleei bideratutako proiektua iaz jarri zuten abian: "Hainbatek kirola egiten uzten dioten adina da hori, eta jarduera fisikoa sustatze aldera beste ekintza batzuk probatzeko aukera eskaintzea da helburua". Hala, gorputz hezkuntzako saioan bi ikastaro artean aukeratu ahal izango dute lau astetan. Behin aukeratuta, kiroldegiko begirale profesional batek ikastaroaren oinarri teoriko-teknikoak azalduko dizkie jarduera bakoitzak dituen onurak eta arriskuak azalduz. Iaz emandakoarekin pozik agertu da Alkorta.

Elikaduraren gainera kontuak

Urtea bukatu bitartean, elikaduraren gainera hainbat trebakuntza saio egiteko asmoa dute: "Ez daude zehaztuta, baina iazkoaren ildotik jarraituko dugu; izan ere, herritarrek badutela interesa ikusi dugu". Helburua da elikadura osasuntsuaren inguruan informatzea eta trebatzea.

Herriko artisauen topaketa egingo dute etzi, lehenengoz

Hamabi postu izango dira Durana kalean eta eskainiko dituzte pinturak, bitxiak eta larrua, besteak beste

M.A. ARETXABAETA

Herriko artisauetako protagonismoa eman nahian antolatu du Udaleko Kultura Sailak artisau topaketa, eta Durana kalean jarriko dituzte postuak domekan, 11:00etatik 15:00etara bitartean.

Askotariko lanak

"Herriko artisten sorkuntzak jendaurrean erakusteko aukera izan dezaten antolatu da", adierazi dute Udaletik, eta gaineratu ekimenak jarraipena izango duela datozen urteetan. Lepokoak, belarritakoak, oihal gaineko margoak, kakorratzeko panpinak, ilerako osagarriak, euskal jantzi tradizionalak eta ezta eskainiko dituzte, besteak beste. Artisau bakoitza segurtasun distantziak mantenduko dituen karpa batean egongo da eta erakustokiak ikusteko sarrera eta irteera antolatuko dute.




Artisau bat postu batean. IMANOL SORIANO

Hauek dira postuak jarriko dituzten artisauak: Lara Gonzalez, Nerea Maskariano, Lara Garcia, Ariane Unanue, Izaro Sanchez, Yael Eva Otero, Miriam Carretero, Iban Urreta, Itsaso Aldai, Mari Luz Osorio, Elo Arribas eta Maria Zubillaga.

Mila esker zi urte hauetan bidelagun izateagatik.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko. Aretxabaleta!

Santakurtz kalea 24 • Aretxabaleta • 943 77 14 86



Ura harraskatik irteten. IMANOL BELOKI

Ur zerbitzuaren gestioan aldaketak izango dira

Eskoriatzako Udalak jakinarazi du Eskoriatzan uraren kudeaketa integrala Gipuzkoako Ur Kontsorzioak (Gipuzkoako Urak) egingo duela hemendik aurrera, eta azpimarratu du aldaketa horrek zenbait onura ekarriko dizkiola Eskoriatzako Udalari

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak herriko etxe guztietara banatutako oharren bitartez, herriko uraren kudeaketa integrala Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren esku geratzen dela jakinarazi dute. Urritik aurrera egunerokoa herritarrek igarriko duten aldaketa txikia izango dela azpimarratu dute Udaletik; hau da, ur irakurketa betiko moduan egingo dute teknikariek eta 2020ko laugarren hiruhilekotik aurrerako fakturazioa betiko bideetatik kobratuko da.

Hirugarren hiruhilekoari dagokion irakurketa eta fakturazioa Udalaren esku geratuko den azkena izango da. Eta hortik aurrera ur hornidura zerbitzuarekin zerikusia duen guztia, hau da, altak eta bajak ematea, ordainagiriak helbideratzea, kontsultak eta erreklamazioak, kontagailuaren mantentzea, eta antzekoak ez dira aurrerantzean Eskoriatzako Udalarekin egingo, Ur Kontsorzioarekin baizik, eta

hori edozein bulego fisiko edo birtualetan egin ahal izango da. Horretarako bideak honako hauek dira: telefonoz, 943 31 86 02 edo 902 30 22 22 zenbakietara deituta; Internetez, www.gipuzkoakour.eus helbide elektronikoa bitartez; edo laster udaletxeko atarian jarriko den bulego birtualean.

Aldaketaren onurak

Eskoriatzako Udaletik adierazi dutenez, uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren esku uzteak zenbait onura ekarriko dizkio Udalari: uraren ziklo osoaren kudeaketa integrala eta iraunkorra, abonatu gehienek ordaindu beharreko tarifa murriztea,

ABONATU GEHIENEK ORDAINDU BEHARREKO TARIFA MURRIZTEA EKARRIKO DU ALDAKETA HORREK

zerbitzu-sareak hobetzeko inbertsioa plangintza ezartzea, erabiltzailearentzako 24/365 arreta-zerbitzua, arreta-bulego birtuala eta zerbitzuaren gorabeheri hobeto erantzutea. Hori horrela, ura kudeatzeko sistema berri hori herritarren onerako izango delakoan hartu du Udalak aldaketarako erabakia.

Gipuzkoako Ur Kontsorzioa

Gipuzkoako udalerrri askok bultzatuta, 1990ean sortu zen Gipuzkoako Ur Kontsorzioa, ur-azpiegituren sare berri eta modernoa eraikitzeke asmoz, Europako kanonen arabera eta ingurumena erabat errespetatuz: ura biltegitratzeko sistemak, edateko uren araztegiak (EUA) eta hondakin-uren araztegiak.

Gaur egun, Gipuzkoako Ur Kontsorzioa elkarte-oinarriko erakunde publikoa lurralde historikoko 50 udalerririk baino gehiagok osatzen dute, eta uraren goi horniduraren kudeaketaz arduratzen da.

Pandemiak eragindako kalteei aurre egiteko dirulaguntzak

Enplegurako eta establezimenduetako higie edota babes neurri bereziak ezarri dituztenei zuzendutakoak

I.B. ESKORIATZA

Alarma-egoerak ezinbestean ezarri dituen mugek eragin kaltegarriak izan dituzte Eskoriatzako eremu ekonomikoan. Hala, ekoizpen eta gizarte sarea babestea eta laguntzea eragina minimizatzeke eta osasun-alarma amaitu ondoren jarduera ekonomikoa eta soziala ahalik eta lasterren suspertzeke asmoz, laguntza ekonomikoa eskainiko du Udalak, kaltetuek euren jarduerari berrekiteke eta alarma-egoera deklaratu aurretik izan zituzten enplegu-mailetara itzultzeke.

Laguntzak jarduera ekonomikoa duten enpresa eta autonomoei zuzenduta daude: 1 eta 20 langile artean kontratatuta izan eta COVID-19aren krisiaren eragina jasan dutenak, eta beste hainbat zenbait baldintza betetzen dituztenentzat.

Establezimenduei zuzenduta

Enplegurako laguntzekin batera, ostalaritza eta merkataritzarako laguntzak ere arautu dituzte. Kasu horretan, pandemiagatik beharrezko diren higie edota babes neurri bereziak ezartzeko inbertsioak eta ekipamenduen instalazioa finantzatzeko helburuarekin.

Oraindik indarrean ez dauden bi dirulaguntzak txikizkako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetako autonomoei eta enpresa txiki eta ertainei zuzenduta daude. Programa horren dirulaguntzen onuradunek ere zenbait ezaugarri bete behar dituzte. Besteak beste, Eskoriatzan kokatutako establezimendua edukitzea eta pandemiagatik bezeroekin aurrez aurre egon ahal izateko higie edota babes neurri berri bereziak ezarri behar izatea.


'Txor-txor' bakarrizketa saioa Euskaraldiaren baitan

Nerea Arriolak eskainiko du, gaur, bakarrizketa umoretsua, 19:00etan, Zaldibar antzokian

I.B. ESKORIATZA

Euskaraldiaren lehen edizioan, Lanku Kultur Zerbitzuak-ek eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarlanean bakarrizketa bat sortu zuten, eta, balorazio positiboa izanda, bigarren ediziora begira kultura emanaldien alorra indartu, eta eskaintza berria prestatu dute.

Hori horrela, *Txor-txor* bakarrizketa saio umoretsua abian da, eta Eskoriatzan gaur izango da emanaldia, 19:00etan, Zaldibar antzokian. 40-50 minutuko iraupena duen saioak *ahobizi* eta *belarriprest* rolerok adierazten dituzten portaerak izango ditu hizpide; besteak beste, herritarrek hamabost egunean -azaroaren 20tik abenduaren 4ra- gertatuko den horretan kokatzea eta inertziak apurtzeko bide posibleak aurkezteko helburua du saioak.



Arriola, Bergarako saioan. XABI URTZELAI

Helburu ugari dituen saioa

Gainera, herritarrei euren hizkuntza-ohiturei buruzko gogoea eragiteko asmoa du saioak, eta baita herritarrek ez ditzatela roler gaitasunarekin lotu, aritzeko moduarekin baizik -jo-kaerarekin-.

Enaitz Testa Europako finalerako sailkatu da

Yamahak antolatzen duen Europako txapelketarako hautatua izan da motorzale eskoriatzar gaztea. Txapelketa Belgikan jokatu da, urriaren 24an eta 25ean, eta MX85 CC kategorian arituko da Testa, erronka berri bati aurre eginez

Imanol Beloki ESKORIATZA

Enaitz Testa 13 urteko motorzale eskoriatzarra aurten hasi da MX85 CC kategorian lehiatzen, eta hasi bezain pronto emaitza bikainak lortzen ari da. Izan ere, Euskadiko txapelketaren barruan, Nafarroan egin diren bi lasterketak irabazi ditu eta liderra da sailkapenean. Horrekin batera, Yamahak antolatzen duen Espainiako txapelketan egindako lan onagatik Europako txapelketarako sailkatu da. Hala, Belgikan urriaren 24an eta 25ean izango diren lasterketetan arituko da. Horietan parte hartu ostean, berriz, Euskadiko txapelketako lasterketa izango du, Zallan, azaroaren 8an.



Enaitz Testa motorraren gainean lasterketa baten ostean, irribarretsu. RUBEN TESTA

Kategoria berrian, bikain

Ruben Testa Enaitzen aitak adierazi du urte zaila ari dela izaten, baina emaitza bikainak lortzen ari dela bere semea: "MX65 CC kategoriatik 85ekora salto eman berri, oso ondo egokitu da motorrera Enaitz, eta albiste pozgarria da Yamahak antolatutako Europako finalerako sailkatu izana. Espainiakoan laugarren postuan geratu da, eta horrek eman dio Europakoan sartzeko txartela. Ea bertan zer moduz aritzen den. Gainera, asteburu berean munduko txa-

pelketa ere jokatu da leku berean, Belgikan, eta haurrek txapelketaz gozatzeko aukera izango dute, euren lasterketak egiteaz batera".

Entrenatzeko zailtasunak

Lasterketa onak egiten ari da Enaitz, baina entrenatzeko aukera murrizak dituela adierazi du Ruben Testak: "Zaila dugu entrenatzea, eta ez orain bakarrik, pandemia garaian. Lasterketa bat prestatu gura badugu, inguruan ez dugu motorrarekin aritzeko gunerik, eta gertuen

dugun eremua Burgosen dago. Hala, konplexua da denboraldian zehar erritmoa mantentzea, lasterketak behar bezala prestatzea, eta hainbeste desplazamendu egitea ere gogorra izaten eurentzat".

Anaia txikia, nagusiari jarraiki

Aratz Testa, Enaitzen anaia txikia, berriz, MX65 CC kategorian ari da lehiatzen, eta, anaia nagusiaren pausoei jarraiki, denboraldi honetan lan ona egingo duela aurreikusten du bi motorzale eskoriatzarren aitak.

Espazioa ezagutzeko jarduerak haurrentzat eta nerabeentzat

Tortolis ludotekan eta Eskoriatzako gaztelekuan egiten dena ikusteko ate irekiak martxan dira

I.B. ESKORIATZA

Tortolis ludotekan asteon hasi dira ate irekiekin, eta urriaren 9a arte izango dituzte LH-1 eta LH-2 mailetako haurrek eta euren gurasoek ludotekako aisialdi-gunea ezagutzeko aukera.

Horrekin batera, kale jolasak -boloak, lurrean marrazkiak, uztai jokoak eta zapi-zapi jolas-egingo dituzte, instalazioak erakustez gain. Ekintzetan parte-hartzeko ez da izenik eman behar, haurrak hurbildu ahala taldeak

sortuko dira, osasun neurriak behar bezala betetzeko.

Gaztelekuko nerabeek, berriz, gaur, egubakoitza, izango dute espazioa ezagutzeko aukera, 17:00etatik 20:30era bitartean. Espazioa aurkeztuko zaie, funtzionamendu azaldu, musika entzun, proposamenak jaso eta kanpo jolasak antolatuko dituzte, bide batez. Kasu horretan, gaur, DBH-1ekoak joan ahal izango dira; urriaren 3an, DBH-2koak; eta urriaren 4an, DBH-3koak eta DBH-4koak.



Leintz Gatzagako iraileko osoko bilkuran batutako udal ordezkariak. IMANOL BELOKI

Gerria estutu behar izan dute, eta gastu batzuk erretentitu

Etorkizun laburrean egiteko asmoa zuten inbertsio batzuk bertan behera geratu dira

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Joan den egunean Leintz Gatzagan egindako iraileko ohiko osoko bilkuran, 2020ko udal aurrekontuaren barne gastuen partida batzuk erretentitza izan zuten hizpide udalbatzako kideek. Inbertsioetarako aurreikusita zituzten zenbait partida jaitsi egin beharko dituzte, eta gerrikoa estutu, oinarrizko partidetan soilik zentratuz eta beste lan batzuk etorkizunerako utziz.

"Foru Funtsera bueltatu behar dugun diruagatik, sarrera gutxiago izango ditugu, eta, gai batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak direnez, horietan jarri behar dugu indarra. Izan ere, museoa eraberritzeko lanak egin ditugu, eta, hain zuzen, lan horretan jarraitu gura dugu. Izan ere, dorla berria erosi beharrean gaude, esate baterako...", adierazi du Euge-

nio Otsoak, Leintz Gatzagako alkateak.

Ion Pousa margolariaren lana

Bestetik, Ion Pousa margolariak Vital Fundazio Erakusketa Zentroan (Gasteiz) erakusketa jarri du ikusgai. Diktadura frankistaren jazarpena jasan zuten emakumeen gaia du oinarri, eta, Gatzagako Udalaren asmo handiko proiektu baten abiapuntua izanik, erakusketako zenbait lan dohaintzan emango dizkio Gatzagako Udalarari erakusketa amaitzean. Hala, Ion Pousa margolariarekin hitzarmena egitea onartu zuten.

Hala ere, artistak zenbait baldintza ezarri dizkie udal ordezkari; oinarriz, lanak ezin izango dituztela saldu. Horrekin batera, aurrera begira, ekintza sinboliko bat eta eskultura bat jartzeko asmoa agertu zuten udalbatzako kideek.

Zazpi entitatek eman dute izena Euskaraldian

Leintz Gatzagako Euskaraldiko batzordea ere hasi da pausoak ematen azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo den Euskaraldiaren bigarren edizio-ara begira, gatzagarrak ariketa gauzatzera animatu daitezten.

Entitateek izena emateko epea amaituta, Gatzagan zazpi entitate dira izena eman dutenak: Gatz Museoa, Labidea taberna,

Arrate jatetxea, Gure Ametsa, Leintz zuhaitz etxeak, Sormen Disign enpresa eta Udala.

Horien barruan ariguneak ere sortzen ari dira. Esaterako, Udalak iraileko osoko bilkuran jakinarazi zuen bi arigune sortu dituztela: batetik, udal langileek eratu dutena; eta, bestetik, udal ordezkariena.

Koordinatzaile lanetan Jon Zuazabeitia ari da eta batzordekideak hurrengo pausoak finartzeko laster batuko direla adierazi du.

Denboraren orratzek etxe-orratza ere astindu dute, eta berritzera doa

Ekainean hasi zituzten Zabalotegiko dorrea birgaitzeko lanak, eta 2021eko udazkenean bukatuko dira. 1967an eraikitzen bukatua, orduan populazioan izan zen hazkunderi erantzuteko eraiki zuten, hiri antolamendurako lehentasunak oso bestelakoak zirenean

Jokin Bereziartua BERGARA

COVID-19aren eraginez obra pare bat hilabetez atzeratu ostean, 2020ko ekainean hasi zituzten Zabalotegiko etxe-orratza birgaitzeko lanak. Arrasateko lau dorretan egin duten edota egiten ari diren moduan, obretan ari dira Zabalotegikoan ere.

Bergarako Udal Artxiboko dokumentuetan jasotzen denez, 1963an aurkeztu zen Zabalotegiko dorrearen proiektua, eta orduan hasi zen lur eremua desjabetzeko dokumentazioa; etxe-orratza eraikitzen 1967an bukatu zuten. Baina nola ulertu behar da Zabalotegiko etxe-orratza eraiki izana? Zein zen Bergarak garai hartan bizi zuen egoera? Eta zergatik litzateke pentsaezina gaur egun halako etxe-orratz bat eraikitzea?

Industriaren garapenak eraginda

Galdera horiei erantzuteko orduan, lanera zetozen etorkinek sortutako beharra nabarmentzen du Jesus Laskurain aparejadore bergararrak: "Zabalotegiko dorrea 1960ko hamarkadan eraiki zen, Bergarako industriari garapen handia bizi zuen garaian. Labe garaiek eta ehungintzak eraginda, auzo berriak sortu behar izan ziren, eta, testuinguru hartan, beharrak eraginda, eraikin bertikalen aldeko apustua egin zen. Izan ere, herrigunean ez zegoen lur eremu handirik eraikitzeko".

Oso antzeko azalpena eman diote GOIENARI BEB arkitekturea estudioko Iñaki Berasategik, Elisabeth Enak eta Xabier Berasategik: "Herriko lantegietara lanera kanpotik etorri ziren pertsonentzat etxebizitzak egin behar ziren, eta garai haietan eraiki zen Zabalotegiko dorrea. Dorrea Bergarako erdigunean

dago. Gaur egun ezingo zen halako eraikinik egin, orain beste modu batean eraikitzen delako, beste sentsibilitate bat dagoelako. Gaur egun, eraikinak gainerako etxebizitzaren ikuspegira integratzen dira". Horixe bera berrestera dator Laskurain: "Goraldian zegoen industriari erantzuteko etxe berrien beharra zegoen eta behar hori lehenetsi zen beste batzuen gainetik. Era berean, orduko sentsibilitate urbanistikoak ez dira gaur egungoak; gaur egun, oinezkoak agintzen du ibilgailuaren aurrean eta ingurunearekin harmonia izatea asko baloratzen da".

Hau da, Udalak egun indarrean duen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ez luke, inondik inora, halako etxe-orratz bat eraikitzea ahalbidetuko. Baina beharrik ere ez litzateke egongo, Bergarako populazioak beheranzko joera duelako aspalditik.

Izan ere, duela 50 urteko Bergarako egoera demografikoa eta gaur egungoa oso ezberdina da. 1960ko hamarkadatik hasi eta 1980ko hamarkada amaierara arte, Bergarako hazkunde nabarmena bizi izan zuelako biztanle hazkunderi dagokionez; 1950ean, 10.400 biztanletik gora zituen Bergarak eta 1981ean 16.000tik gora. Orduetik, beheranzko joera izan du bertako populazioak, iaz 14.637 biztanlera heldu arte.

Egitura konpondu, eta isolatu

Dorreak 53 urte ditu, eta eraikinei egiten zaien azterketa teknikoak egin ondoren birgaitu beharra zegoela ikusi zen. "Alde batetik, esan beharra dago Zabalotegi dorrean hormigoizko egitura fatxadetan bistan dagoela, baita zutabe eta habeak ere, eta zenbait lekutan egitura mugitu egiten dela. Eta hori konpondu-

ko da esku-hartze honetan. Bestetik, eraiki zenean fatxadetan ez zen isolamendurik jartzen. Gaur egun, aldiz, eraikinen eraginkortasun termikoak garrantzi handia dauka", adierazi dute BEB estudiokoek.

Oñatiko Ulma enpresarenak dira isolamendurako plakak; Arrasaten azken urteetan lau dorretan aritu dira energia nabarmen aurrezteko ahalbidetzen duten interbentzioak egiten. Eta badago Zabalotegiko etxe-orratzeko fatxadetan egiten diharduten beste lan bat: "Egiturak behar dituen konponketa lanen ostean fatxada aireztatu bat egingo da. Dorreak itxura berria izango du, hiru kolore tonu dauzkaten plaka handiak jarriko dira tartekatuz, eta egungo fatxada ezkutuan geratuko da", zehaztu dute BEB estudioko arkitektoek. 54 metroko altuera duen dorrea izanik, lanak faseka egiten ari dira; betiere, aldamiu elektrikoak erabilia. 2020ko apirilean ziren hastekoak, baina pandemiak hor ere eragina izan zuen eta ekainean hasi ziren. Eta lanak atzerapenarekin hasi baziren ere, martxa onean doaz orain



Dena ondo bidean, 2021eko udazkenean argazkiko itxura izango du dorreak. BEB

eta asmoa da 2021eko udazkenean argazkiko itxura izango du dorreak. BEB

17 solairu eta 68 etxebizitza

54 metroko altuera duen Zabalotegiko etxe-orratzak 17 solairu ditu, sotoa eta beheko solairua aintzat hartu gabe. Eta solairu bakoitzean lau etxebizitza daukenez, guztira 68 etxebizitza ditu dorreak; etxebizitza bakoitza 80 metro koadro ingurukoa da. Eraikinaren ezaugarriekin jarraituz, Jesus Laskurainek az-

pimarratu du gaur egun eraikitzen diren etxe-orratzekin aldekatuta nabarmen ezberdina dela: "Zabalotegiko dorreak leiho txikiak ditu lau fatxadetan. Dorre eredu hori oso urrun dago gaur egun eraikitzen diren dorreetatik, orain kristalezko leiho handidunak eta arinak egiten direlako".

Dorreak ez dauka garajerik eta horrek ere argi uzten du duela 50 urteko testuinguruaren eta egungoaren artean aldeak badirela. Gaur egun herri osoan eta, bereziki, erdigunean apar-

IDAEn eta Jaurlaritzaren laguntzak

Espainiako Gobernuaren IDAE institutuak ematen duen laguntza jaso dute Zabalotegiko dorrea birgaitzeko lanek. Izan ere, energia-zerbitzuetako enpresak finantzatzeko programak dauka IDAEk, erabilera termikoko energia berriztagarriak ezartzeko proiektuak garatzeko. Gainera, Jaurlaritzaren laguntza ere jaso dute jabekideek, etxebizitzak birgaitzeko programaren barruan.



Behargin bat aldamiotan, energia aurrezteko plakak jartzen. JOKIN BEREZIARTUA



Dorrea, 1967ko apirilaren 7an. UDAL ARTXIBOA. TORIBIO JAUREGI FONDOA



Dorrea birgaitzeko lanak, martitzenean. JOKIN BEREZIARTUA

katzeko arazoak ikusita, pentsazina litzateke horrenbeste etxebizitza garaje gabe eraikitzea. Izan ere, dorreko eta inguruko bizilagunek oso zail izaten dute Zabalotegi kalean aparkaleku bat lortzea. Zentzu horretan ere asko aldatu da egoera azken 50 urteetan.

Sinbolo izatetik... oztopo izatera?

Erdi Arotik izan dira dorreak garapenaren edo boterearen isla. "Milaka urte direla erabiltzen da arkitektura monumentala besteengandik nabarmentzeko, eta, bereziki, dorre bertikalak. Arkitektura ikuspegitik beti izan dira erronka bat, eta garapen teknologikoaren ikurra; gainera, estatus sozialean ere boterea islatu izan dute historikoki. Zabalotegikoa, baina, ez zen arrazoi horienatik eraiki, behar batek eraginda baizik", deritzo Laskurainek. Gaur egungo ikuspegitik,

"GAUR EGUN EZ ZEN EGINGO, BESTE SENTSIBILITATE BAT DAGO ERAIKITZEKO"

BEB ARKITEKTOAK

baina, sinbolo izateari utzi diote etxe-orratzek. Eta Zabalotegikoari dagokionez, irisgarritasunaren ikuspegitik oztopo ere bihurtu da. Halaxe berretsi diote GOIENARI etxe-orratzean hasieratik bizi diren Karmen Goyenak eta Ramon Agirrek; 80 urte eta 85 urte dituzte, hurrenez hurren, eta hamargarren solairuan bizi dira. "Igogailuak funtzionatu ez duenean tokatu izan zaigu umeen karroekin eta beste hainbat tramankulurekin hamar solairu igo behar izatea. Behin, transformadorea erre zen eta astebete egon ginen, gutxienez, igogailu gabe. Orduan sasoi hobe nuen egun baino...", dio Agirrek, umoretsu.

Irisgarritasuna hobetu, behartuta

Ataria nabarmen hobetu dela gogoratzen du Goyenak: "Kalea irteterakoan, igogailutik ez zegoen aldaparik gaur egun moduan, eskailerak baizik. Umeen karroa eskaileretatik jaisten genuen, eta gero, atarian, beste hainbat eskailerarekin egiten genuen topo. Hori zen gure egunerokoa. Aldapa jarri ziguten bizilagun bat aulki gurdun mugitzen hasi behar izan zenean".


Harremanak "asko" aldatu dira

Auzotarren arteko harremanak "asko" aldatu direla dio Goyenak: "Lehen, ia denok ezagutzen genuen elkar, tratu handia genuen bizilagunen artean. Kafea hartzea bizilagunaren etxera norberak eramandako bizkotxoarekin... Orain ez da halakorik gertatzen, orain ez dugu tratu-rik ia inorekin".

Era berean, auzoa zahartu egin dela dio Agirrek, eta duela 50 urteko egoerarekin alderatuta bizitasuna nabarmen galdu dela dio: "Gu etorri ginenean gazteak ginen nagusi, guraso gazteak eta umeak. Gogoratzen dut kaltetik bueltan etxera gentozenean emakumeak etxe atarian egoten zirela umeak zaintzen, eguzkia hartzen... Bizitasun handia zegoen". Populazioaren zahartzea eta auzoko bizimodua erabat aldatu dela, baina, ez da Zabalotegiko errealitatea bakarrik...

"ERAIKIN BERTIKALEN ALDE EGIN ZEN GARAI HARTAN, BEHARRAK ERAGINDA"

JESUS LASKURAIN, APAREJADOREA



Ramon Agirre eta Karmen Goyena, martitzenean, etxeko egongelan. J.B.

1967tik bertan bizi izaten, "pozik"

Ramon Agirre (Bergara, 1935) eta Karmen Goyena (Oñati, 1940) hasieratik bizi dira dorrean. "Abuztuaren bete genituen 54 urte hemen", esan dio Agirrek kazetariari ziurtasun osoz, etxeko egongelako sofatik. 1967ko maiatzaren 22an egin zen etxeen zozketa, Karmenen urtebetetze egunean. "Zaragozan jaio arren oso gazte etorri nintzen Oñatira; 1967an Oñatin bizi ginen eta Ramonek deitu zidan esanaz hamargarren solairua tokatu zitzaigula; ordutik pozik gaude, eta hemen jarraitu nahi dugu".

Etxea 285.000 pezetatan erosi zuten, orduko merkeenetakoak

Etxeagatik 285.000 pezeta ordaindu zuten, diruaren balioa izugarri aldatu den seinale: "Orduko etxe merkeenetakoak ziren, baina orduan diru asko zen 285.000 pezeta, hamahiru urtean ordaintzeko kreditua eskatu genuen eta". Oso gutxi dira etxe-orratzean euren beste urte daroaten bizilagunak: "Adinean aurrera egin ahala etxea saldu dute batzuek, beste batzuk hil egin dira, erretiratu eta euren jaioterrira itzuli direnak ere badaude... Oso gutxi gara hasieratik hemen bizi garenak".

Etxe barruan, diotenez, ez dute obra handirik egin: "Beste bizilagun batzuek denetik egin dute: trastelekuan sukaldia jarri, sukaldia eta egongela bateratu... Guk hasierako distribuzioa dugu, luxurik gabe. Gure lan aipagarriena izan da balkoia jartzea; zuloz betetako pareta bat genuen orain balkoia dugun lekuan, arropa sikatze eta aireztatzeko erabiltzen genuena. Kartzela ematen zuten... Denborarekin, pareta hori kendu eta balkoia jarri ziguten, plataforma bat jarrita; obra hori 100.000 pezeta ordaindu genuen".

Balkoia konfinamendua eramangarriagoa egin badie ere, gogorra izan da bereziki Agirrerendako, osasun arazoengatik: "Bi hilabete egin nituen minarekin, oso gogorra izan zen niretzat etxean egon behar izatea. Eta okerrean da ez dakigula hau noiz bukatuko den; nork esango zigun halakorik biziko genuenik...".

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Enpresa Registrada 1190/025

Helburuetan bat eginda, elkarlanerako arazoak

Udal Gobernuaren eta EAJren arteko prozedura arazoak agerian geratu dira, beste behin; adibidez, Gobernuak proposatutako bi milioi euroko mailegua "beharrezko" ikusten dute jeltzaleek, baina kontra bozkatu zuten, diotenez, nora bideratuko den ez delako zehaztu

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuaren eta EAJren arteko desadostasunak agerian geratu ziren, beste behin, asteleheneko osoko bilkuran. Bi milioi euroko kreditu bat eskatzeko proposamenak eztabaida bizia eragin zuen; Udal Gobernuak dio inbertsio gaitasuna mantentzeko eskatu dutela kreditua, baina EAJk kontra bozkatu zuen, diotenez, diru hori nora bideratuko den zehazten ez delako. "Herritar moduan kreditu bat eskatzen dugunean badakigu zertarako erabiliko dugun diru hori, baina Gobernuak ez du zehaztu. Ez dugu zalantzan jartzen Udalak diru hori behar duela, baina ez duzue esaten zertarako den. Ekainean esan zuen Gobernuak kreditu bat eskatuko zuela eta COVID-19ari aurre egiteko plan integral bat garatuko zuela; plana ez dute oraindik bideratu eta ez daukagu Udaleko diru sarreren eta irteeren argazkia. Egoera hori izanda, ezin dugu kreditu eskaera hori babestu", adierazi zuen Elena Letek.

Egoera egonkortzeko kreditua

Gorka Artola alkateak aitortu du kreditu eskaerari zehaztasuna falta zaiola: "COVID-19aren ondorioz diru sarrerak asko jaitsi dira, eta gerakinarekin, aurretik onartutako aurrekontuaren moldaketarekin eta mailegu gehigarri honekin espero dugu egoera egonkortzea eta 2021erako Udalaren inbertsio gaitasuna mantentzea. Gaur [astelehena] onartu den dekretuak zehaztasun falta izatea oso zentzuzkoa da, uztail hasierakoa delako. Ordutik lanketa egiten ari gara, eta plan integralean zehazten; sei inbertsio partida handitara bideratuko da mailegu hori. Helburua da diru hori eskuragarri izatea behar zehatzei erantzuteko". PSE-EEko Alberto Alonso abstenitu egin zen: "Analisiaren paralisian bizi gara Gobernu



EAJren eta Gobernuaren arteko eztabaida, asteleheneko bilkuran. JOKIN BEREZIARTUA

BIRUSAREN AURKAKO PLAN INTEGRALERA BEGIRA ERE ESKATU DUTE BI MILIOI EUROKO MAILEGUA

honekin, baina ez dugu kontra bozkatu, COVID-19aren bueltan ez dugulako politikarik egingo".

Antolaketa berria: adostasunik ez Bestalde, joan den astean Udal Gobernuak prentsurreko bidez aurkeztu zuen Udalaren antolaketa berrirako proposamenak ere protagonismoa izan zuen asteleheneko bilkuran. Antolaketa berri horren helburuak dira Udaleko batzorde informatzaileen funtzionamenduan eta eraginkortasunean eragitea, departamentu ezberdinen arteko koordinazioa erraztea, planifikazioa hobetzea eta herritarrei erantzuna egokitu eta azkartzea. Helburuekin bat egin arren, EAJk dio Gobernuak ez duela haiekin kontatu antolaketa berria gartzetarakoan: "Uztaitetik aurrera-pausoak eman dira, baina antolaketa berrirako gure planteat

mentuak kontuan hartzea eskatzen diogu Gobernuari [...]. Guretzat oso garrantzitsua da gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzea, herritarrei emango diegun erantzuna azkarrak eta kalitatezkoa izan dadin". Zinegotzi sozialistak, berriz, uste du negoziazioa "apur bat blokeatuta" dagoela: "Arrazoiak nork duen edo ez eztabaidatzen ibili baino gehiago, soluzioaren aldean gaude gu". Gorka Artola alkateak uste du antolaketa berriaren gaineko desadostasuna forma kontuetan dagoela gehiago edukietan baino: "Desadostasun horiek arindu nahian gabiltza; EAJren proposamen batzuk onartzeko asmoa badugu".

Birusaren aurkako plan integrala Bestalde, COVID-19ari aurre egiteko plan integralaren berri "epe motz batean" emango du Gobernuak: "Espero genuen uztaitailen gertu izatea, baina eze-gonkortasun handia bizi zen oraindik, bereziki, ikasturte berriaren hasierarako. Zirriborratzea atzeratu egin du horrek, baina orain, beste taldeekin lantzeko moduan gaude. Epe motz batean egingo dugu publiko".




NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

Zuzena, zehatza eta gardena

Kazetarien bete beharreko lana. Politikarien hitzaldiak entzun eta prentsurrekoak ikusita etsipenak leher egin du. Egun hauetan politikarien hitz jarioa jasanezina da. Adibideak asko eta tamalgarriak. Bi datu besterik ez. Oraintsu Madrilgo koronabirusaren igoera dela-eta prentsurrekoa egin da. "Gobernuak milaka ontzi jarri ditu Madril osoan eskuak igurtzi eta ez kutsatzeko". Hitz jario lerdoa bezain antzua. Horixe prentsa deialdiko puntu nagusia! Kazetariak mutis. Poteak amaitzen direnean gauza bererako beste deialdi bat egin beharko dute! Egun hauetan Pedro Sanchez elkarriketa luzea egin dio Iñaki Lopezek. Sanchezek galdera bakoitzari heldu eta bere nahierara borobildu, moldatu eta bapo! Etenik ez zion egin kazetariak. Presidenteak bere burua zuritzen jarduten zuen bitartean elkarriketatzaileak prestatuta zituen galderekin segi zuen. Tristeia, baina errealitatea horrela da. Kazetarien esku dago herritarrei benetako informazioa zabaltzea. Horretarako, kazetariak galdera zuzenak, zehatzak eta gardenak egin behar ditu, eta ausart eta zorrotz jokatu.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Patioko saskia apurtu egin dutela salatzen dute



Boni Laskurainen paseatzeko ohitura duen herritar batek bidali du argazkia, San Martin eskolako patioan saskibaloiarako saskia apurtu dutela salatuz: "Ez da gune horretako lehen apurketa".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Hitzaldia: feminismoa hirugarren adinean

Bizitzaren Fundazioko Nerea Fernandezek eskutik *Zaharalduntze feminista: adinkeria ezagutzen* izeneko hitzaldia egongo da urriaren 8an Irizar jauregian, 18:00etan hasita. Emakumeei zuzendutakoa da, euskaraz eta gaztelaniaz. Aldez aurretik izena eman behar da: berdintasuna@bergara.eus edo 943 77 91 00.

Udal Euskaltegia: alfabetatzea eta berba egitea

Alfabetatze ikastaroa eta mintza taldea bultzatu nahi dute; nahi duten herritarrei, izena emateko dei egin diete: 943 76 44 53.

Taula periodikoaren erakusketa: azken egunak

Urriaren 12ra arte bisitatuko ahalko da, Laboratorium museoa.



Agorrosingo monitoreak linboan lelopean begiraleek martitzenean egindako elkarretaratzea. JOKIN BEREZIARTUA

Agorrosingo begiraleen egoera, "jasangaitza"

Pandemia hasi zenetik euren egoera "nabarmen" okertu dela eta ikastaroetako begiraleak protestan hasi dira asteon. Elkarretaratzearen aurretik, alkateak deituta, bilera egin zuten; egoera hobetzeko "saiakera guztiak" egingo dituela dio Udalak

Jone Olabarria BERGARA

Agorrosingo begirale talde batek elkarretaratzea egin du asteon San Martin plazan, bizi duten egoera zailak ahalik eta oihartzun handien izan dezan. Agorrosingo ikastaroen zerbitzua BPX Sport enpresak kudeatzen du, Udalak azpikontratatu, eta begiraleek diote pandemia hasieran agindu zieten ez dela bete.

Pandemia hasi aurretik hamalau bat langile zeuden BPX Sport enpresaren kontratupean, eta pandemia hasi zenetik erdira jaitsi da kopuru hori. Pandemiako lehen asteetan lanean jarraitu zuten, baina uda ostean egoera asko okertu zaiela diote: "Ikastaro gutxik egin dute aurrera eta enpresaren partetik ere hainbat bertan behera utzi dituzte".

Kirolguneko begirale Ander Barrosok hauxe adierazi du: "Hasiera batean, esan ziguten langabezia prestakuntzaren bat jasoko genuela edo enplegua

erregulatzeko aldi baterako espediente (ERTE) irekiko zutela; behintzat, dirulaguntzaren bat izango genuela. Orain bertan dugun klase kopuruarekin ez dugu, inondik inora, gutxieneko soldata baterako aukerarik".

Konponbide eskean

Konponbide bila INEMera jo zutela azaldu dute, baina azaldu zieten "ez zegoen ezer kobratzeko inongo aukerarik". Egungo egoera "jasangaitza dela" azpimarratu dute: "Gure lan jarduna ez da lehengoaren %2ra ere iristen; begiraleak daude bi edo lau ordu dituztela asteon. Horrekin ez dago ezer egiterik. Laguntzaren bat eskatzen dugu, gure egoera nondik heldu ez

"ORAIN DUGUN KLASE KOPURUAREKIN EZ DUGU GUTXIENKO SOLDATA BATERAKO INONGO AUKERARIK"

dagoelako", adierazi du Ander Barrosok begiraleak.

Udalaren erantzuna

Protesta aurretik, Gorka Artola alkateak deituta bilera egin zuten udaletxean; Udal Gobernuak dio begirale horien egoera hobetzeko egin daitezkeen "saiakera guztiak" egingo dituztela.

Begiraleek, hala ere, Udalak zerbitzu hori azpikontratatzearan halako egoerak gerta daitezkeela uste dute, eta, hortaz, baduela erantzukizuna: "Azpikontratazio bat egitean enpresa horrek dirua irabazteko asmoa baino ez izateko arriskua du. Zerbitzu bat ematea izan beharko litzateke helburua, ez enpresak irabaztea".

Agorrosingo begiraleen aldarrikapenak entzuteko eskatu zuten Udalak protesta aurretik egindako batzarra, eta, Udaletik gaineratu dutenez, zerbitzua BPX Sport enpresarekin azpikontratatu izanda ere, begiraleen egoera hobetzeko saiakera egingo dute.



Amillagako autobusaren geralekua, berrituta, eguen goizean. JONE OLABARRIA

Amillagako lanak gauzatu, berriz ere irekita bi noranzkotan

Espaloiak handitu eta LED argiteria sistema instalatu dute, eta autobus geltokietako bat lekualdatu eta berritu

J.O. BERGARA

Apirilaren 27an hasi zituzten obrak Amillaga kalean; betiere, "irrisgarritasuna bermatzeko eta zati horretako hiri-altzariak berritzeko asmoz". Bost hilabete iraun duten lanen ostean, Amillagako sarrera-irteerak nolabaiteko normalitatea berreskuratu du asteon. Oraindik bigarren faseko lanak egiteko dauden arren, dagoeneko ez dago zertan herriko irteera Ernai kaletik egin.

Berrurbanizazio lanak

Orain arte egindakoei dagokien, espaloiak zabaldu eta horien zorua berritu egin dute Laino skate-parkea dagoen aldean; burdinazko ur hornidura berria ezarri dute, eta euri-urak jasotzeko azpiegitura berritu; LED farola berriak jarri dira eta Laino skate-parke pareko espaloia oztopatzen zuen kutzeta

handiaren tapa kendu eta espaloien maila berean utzi dute.

Autobus geltokia

Aldaketa esanguratsuenetako bat autobus geltokiarena izan da. Hain zuzen, Jaso garajearen parean zegoen autobus geltokia Rekalde fundizioaren parera lekualdatu dute, eta, bide batez, geltokiaren azpiegitura berritu.

Bigarren fasearen zain

Sasoi Eraikuntzak enpresak gauzatu ditu lanak, 376.735 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren Industrialdeetako Renove Planari esker 150.000 euroko dirulaguntza jaso zuen Udalak. Jakinarazi dutenez, bigarren fase batean gauzatu dituzte IAT dagoen aldeko espaloiko lanak; wolframaren ikurra dagoen biribilgunerainokoa, hain zuzen.

Ander Garmendia beasaindarra, lehen taldea indartzera

Astelehenean egin zuen Agorrosingo futbola zelaian Bergara KEk jokalaria berriaren aurkezpena. Ander Garmendia beasaindarra gizonezkoen lehen taldean arituko da 2020-2021 denboraldian. Jokalaria Hirugarren Mailan aritu da orain arte eta defentsa indartzeko asmotan datorrela azaldu du zuzendaritzak.



Garmendia, erdian, astelehenean. BKE

Organo Erromantikoaren 21. Zikloa abian da

Bergarako, Azkoitiko eta Azpeitiko udalek elkarlanean antolatu ohi dute urtero Organo Erromantikoaren Zikloa, Fray Joseph de Echevarria organoaren adiskideekin lanean. Santa Marina parrokiari hiru emanaldi eskainiko dituzte; bihar lehena

Jone Olabarria BERGARA

Atzo egin zuten, Azkoitian, 21. Organo Erromantikoaren Zikloaren aurkezpena, eta horren baitan hainbat emanaldi egongo dira gozagai Bergarako Santa Marina parrokiari urrian. Bergarako, Azpeitiko eta Azkoitiko udalek Fray Joseph de Echevarria organoaren adiskideen elkartarekin elkarlanean urtero antolatzen dute Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloa, duela 21 urtetik. Ekimenaren helburua "organoari balioa ematea" dela azaldu dute zikloaren aurkezpenean, eta, hala, "organo jole handiak" entzuteko aukera izango da.

Pandemiak eragindako kalteak tartean izanda ere, Nazioarteko Organo Zikloarekin hartutako konpromisoarekin aurrera egitea erabaki dute, nahiz eta, hori bai, segurtasun neurri bereziekin izan.

Egitarau oparoa

Bergarari dagokionez, hiru emanaldi daude aurreikusita Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren 21. aldiaren baitan, guztiak urriko zapatuetan, 20:00etan, Santa Marina parrokiari. Bihar egingo dute lehena, eta Aitor Olea arituko da, Bergarako haur abesbatzarekin



Oscar Candedo organo jole antzuolarra iazko organo zikloan, Santa Marinan. I.S.

BIHARKOAZ GAIN, URRIAREN 10EAN ETA 17AN ERE EGONGO DIRA KONTZERTUAK SANTA MARINAN

batera. Alazne Jauregi ere arituko da, bakarlari, emanaldian.

Eta urriaren 10ean eta 17an egingo dituzte hurrengo kontzertuak; Mikel Ansola organista eta Akelarre abesbatza arituko dira bi aste barru, eta

ostean iritsiko da Oscar Candedo organista antzuolarraren txanda, Ana Otxoa sopranoarekin batera.

Azkoitian eta Loiolan ere bai

Organo zikloaren baitako gainerako kontzertuak, aurreko edizioetan egin bezala, Azkoitiko Ama Birjinaren Jasokundearen parrokiari eta Azpeitiko Loiolako basilikan egingo dituzte, denak ere urrian. Euskal panoramako organista eta abesbatza ezagunenak ikusteko aukera egongo da.



Seminarixoa beteta, neurri bereziekin, joan den asteko irudi batean. GOIENA

Zinema emanaldiak bueltan dira domekatik aurrera Seminarixora

Igandeetan eta astelehenetan, umeentzako eta helduentzako filmak izango dira. Zinekluba, eguaztenetan

J.O. BERGARA

Martxoaren 8an eta 9an izan ziren azken emanaldiak eta geroztik ez dira gehiago egin. COVID-19aren ondorioz bertan behera gelditu behar izan ziren emanaldiak, eta, uda heldzean, Seminarixoak atek itxi zituen.

Urriaren 7an, baina, bueltatu da ZinemaOn taldeak, Udalen laguntzarekin, antolatzen duen zinekluba, eta lehenengo pelikula *Ema* filma izango da. Horrez gain, asteburu honetan hasiko da ume zein helduendako film komertzialen eskaintza, betiko ordutegi eta betiko pre-

zioekin. *Un amigo extraordinario* eta *Bihurri* izango dira emanango dituzten lehen filmak.

Segurtasun neurriak

Sarrerak ohiko moduan eskuratu ahal izango dira: ostegunetan, Seminarixoko txarteldegian 18:00etatik 20:00etara; edo Internet bidez www.tickets.kutxabank.es plataforman.

Baina COVID-19a dela eta honako protokolo hau jarraitu behar da: eskuak garbitu, maskara jantzi eta jarlekuan egon behar da, distantziak mantendu, eta modu mailakatuan sartu.

Adineko Pertsonen Egunaren harira hitzaldiak antolatu dituzte

Ekimenen helburua da pertsona nagusiak trebatzea, haien problematikak bistaratzeko eta kontzientziatzea

J.O. BERGARA

Atzo, urriak 1, Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna izan zen eta hori gogorarazteko bi hitzaldi antolatu zituzten. Lehena, *Zaharahalduntze feminista: adinkeria ezagutzen* izeneko, atzo egin zuten, pertsona nagusien ahalduntzea ardatz hartuta.

Urriaren 8an izango da hurrena, arratsaldeko seietan, Irizar jauregian, eta emakumeentzat zuzendutako hitzaldia da. Hizlaria Bizitzen fundazioko Nerea Fernandez izango da eta ele bitan egingo du. Ezinbestekoa

da aurretik izena ematea, berdintasuna@bergara.eus posta elektronikora idatzita edo udaltxerara deituta.

Horrez gain, pertsona nagusien zaintzaren zailtasunak agerian uzteko, urriaren 20an, *Egoitzak eta zaintzak: ba al dago alternatibarik?* hitzaldia egingo da Seminarixoan, 18:30ean. Hizlariak Silvia Carrizo eta Xanti Ugarte izango dira. Sarrera doakoa da eta Seminarixoko txarteldegian eskuratu daiteke ostegunetan 18:00etatik 20:00etara bitartean edo hitzaldiaren egunean bertan.

Haur abesbatzaren kontzertua bihar

2019ko abenduan egin zuen Bergarako Musika Eskolako Haurren abesbatzak azken kontzertua eta ordutik hona "ahal izan dute moduan" entseguan aritu diren arren, zapatuan itzuliko dira taula gainera berriz ere, 20:00etan, Santa Marina parrokiari. Kontzertuan Aitor Olea organo jolearen laguntza izango dute abeslari txikiak.



Iazko maiatzean eskainitako Ahotsak batuz emanaldia. GOIENA

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Boente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Irabalbarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoizuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskorialza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldirbar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



Herritarrek Antzuolako Kutxabaneko bulegoko atarian aldarrikapena egiten. LARRAITZ ZEBERIO

Murrizketa etetea eskatuko du Udalak

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran, aho batez onartu du udalbatzak Kutxabank bulegoak ezarritako zerbitzu murrizketen aurrean antzuolarren desadostasuna babestea. Hala, mozioaren hiru puntuak onartu dituzte EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEK

Maidar Arregi ANTZUOLA

Astean bi egunez eta bi orduz ematen dute zerbitzua, orain, Antzuolako Kutxabank bulegoan. Zerbitzu murrizketarekin haserre, elkarretaratzea egin zuten bulego atarian hainbat herritarrek joan den egubakoitzean. Landatxoeko elkartekok nahiz inguruko herrietatik babesa ematera joandako hainbat erretiratu izan ziren bertan.

Euren asmoa zen bulegoko zuzendariari gutuna helaraztea, baina langile batek jaso zuen zerbitzu murrizketen kontra herritar talde batek egindako idatzia. Landatxoeko Pilar Etxanizek esan du murrizketak egitea ez dela bidezkoa, Kutxabankek etekinak izan dituelako. Azaldu du *online* aukera ez dela erreala adin batetik aurrerako bezeroendako eta zalantza azaldu du hitzorduarekin egon zen gorabehera dela-eta. "Ez dakigu gaizki ulertua izan den edo honetzeko Bergarara bideratzen gaituzten halako operazioetara-

ko". Gutuna Donostian dagoen Gipuzkoako bulegoen ardura-dunari eramateko eskatu dute. "Elgetan ere mobilizatu ziren eta ezetza jaso zuten; ez dugu erantzun positiborik espero, printzipioz; jendearen babesa ikusita, aurrera jarraitzeko animoak ditugu. Antzuola Lagunkoia eta Landatxoeko zuzendaritza elkartu egingo gara beste zenbait ekintza adosteko".

Kutxabankek, berriz, GOIENARI jakinarazi dio erabakia gizarteak egun dituen beharrak aztertuta hartu dutela. "Digitalizazioaren aroan gaude eta online egiten dira operazio gehientsuenak. Pandemiak, gainera, sustatu egin du sarearen erabilera. Hala ere, herriko adi-

ANTZUOLAKO UDALAK MURRIZKETEN AURKAKO EKINTZEKIN MODU OFIZIALEAN EGINGO DU BAT

nekoak aintzat hartuz, astean bitan bulegoa irekiko dugu".

Udalaren babesa

Ohiko osoko bilkuran, udalbatzarra osatzen duten hiru alderdiek aho batez onartu dute Kutxabanken erabakiaren aurrean aurkeztutako mozioa. Hala, Antzuolako Udalak herritarren desadostasuna adieraztea eta banketxeari zerbitzuaren murrizketak etetea eta zeudenean uzteko eskaera egitea onartu du. Horregatik, Udalak herrian egiten diren ekintzetan modu ofizialean parte hartuko du, eta, era berean, ekintza proposamenak egiteaz arduratuko da. "Gaia mozio formatu horretan ekarri dugu. Izan ere, arazoaren aurrean batasuna nahi genuen izan. Baina aktan jasota geratzeko eskatu dugu garbi daukagula erabaki horren oinarrian duela urte batzuk alderdi politiko jakin batzuek kutxak privatizatzea erabaki izana dagoela", azpimarratu du Kortabarria alkateak.



ANELKAR

Beste behin, eskerrik asko!

Goiena komunitatea / Anelkar / ANTZUOLA

Oraingoan ere bikain, Antzuola! 746 kilo janari bidaliko ditugu Moriako kanpalekura. Anelkarreko kideok eta boluntario talde gazteak sekulako emaitza lortu dugu herritarren laguntzarekin. Zaporeak-en kanpainarekin bat egin dugu eta Aretxabaletara eroan genuen batutakoa zapatuan.

Presoen eta iheslarien auzia konpontzea eskatuko dute bihar

Euskal Herri mailan antolatutako 650 tontorren ekimenaren baitan, Trekutzeko eta Arrolako tontorretara igotzekoak ziren antzuolarrak bihar, zapatu goizean. Eguraldi iragarpenagatik, ordea, bertan behera geratu da biharko ekimena, eta Sarek, herritarren harrera ona ikusita, maiatzaren 8ra atzeratzea erabaki du tontorretarako igoera.

Hala, Izan Bidea egitasmoak zapatu eguerdirako elkarretaratzeak deitu ditu herri guztietan. Antzuolarrei Herriko Plazara joateko dei egin die: 12:30erako, hain zuzen ere.

Euskal Herriko 650 tontorretara igo eta bertan talde argazkia ateratzea zen hasierako asmoa. "Presoen eta iheslarien auzia behin betiko konpondu behar dela eskatuko dugu, eta talde argazkia aterako dugu, aurreikusia zegoen bezala", azaldu dute antolatzaileek.



ANTZUOLAKO UDALA

Ariguneen lanketari ekin diote

Antzuolarrek ere ekin diote ariguneen lanketari eta jada bi batzar ireki egin dituzte. Aurreko asteko batzarrean, esaterako, 18 bat lagun elkartu ziren Torresoroa aretoan. "Deboraz justu gabiltza eta ariguneen lanketari ekingo diogu", azaldu dute Euskaraldiko batzordeko kideek. Norbanakoendako izen-emate epea, aldiz, zabalik dago.

"Sagar uztarendako ez da urterik onena izan"

KONTXI IZAGIRRE SAGAR EKOIZLEA

Bidaurre baserrian sagar uzta jada batua dute. Abuztuko bero handiek aurreratu egin dute aurtengo sagar batzea; kantitate txikiagoa jaso dutela ere aitortu dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aurtengoa ez da uztarik oparoen izan sagar ekoizleendako. Asiako liztorrak kalteak eragiteaz gain, abuztuko bero handiek uztari ez diote mesederik egin. Bidaurre baserriko Kontxi Izagirrek aurtengo uzta nolakoa den kontatu dio GOIENARI.

Sagar gutxi eta kaltetua aurten batutakoa.

Sagar klase bat ia hilabete aurreratu zaigu, beroaren ondorioz. Zuhaitz gazteek asko eman digute, baina handien uzta hondatu egin da. Izan ere, Asiako liztorrek ezkutaleku handiagoa dute eta bertara sartzen dira.

Beroak ere kalteak eragin ditu?

Uztailean, abuztuan eta irailean bero handiak egin ditu eta sagarra erre eta usteldu egin da. Gainera, lorea botatzeko sasoiaren genuen klasea euriak harrapatu, eta dena hondatu zitzaigun.

Sasoi batean 50 sagar klase ekoizten zenituzten.

Bai; gaur egun, hamar bat klase ditugu. Aurten ez dute denek uzta eman, ordea. Hamar horietatik, 2-3 mota dira gehien saltzen ditugun mahai sagarrak. Jendeari garrantzak gustatzen zaizkio asko, eta onarpen handia dute, egia esan. Aurten ia hilabete aurreratu da sagar mota honen bilketa.



Bidaurre baserriko Kontxi Izagirre etxe aurreko sagastian. MAIDAR ARREGI

"INBERTSIO HANDIA EGIN DUGU ETA BELAUNALDI BERRIAK JARRAIPENA EMANGO DIOLAKOAN NAGO"

Azokaz azoka ibiltzen zara.

Bai; etxera ere etortzen dira sagarrak erostera. Denda bati edo besteri ere eramaten diogu, eskatuz gero.

Iaz ez bezala, aurten ez duzue sagardotarako sagarrak.

Ez, etxerako soilik ekoiztuko dugu sagardora; iaz, sagar asko izan zen; aurten, ez du merezi. **Inbertsio handia egin duzue. Belaunaldi berriak badu segida?**

Ureztatze sisteman eta makinerian asko inbertitu dugu; etxe-koek asko laguntzen didate eta jarraipena izango duelakoan nago, nahiz eta baserrikanpo euren lana baduten.

Sagarrak eskuratu nahi dituenak zuen etxera jo dezake?

Bai; aurrez deitzea komeni da etxean egon gaitezen; bestela, azokan ere aurkituko naute.

Bertakoa eta sasoikoa

Gozoa, mikatza... guztira, hamar sagar mota ekoizten dituzte.

Ekoizpena, lehengo erara

Sagarrak lehengo ohiturari etsiz ekoizten dituztela dio Izagirrek: "Ekologikoa izatearen ziurtagiri ofizialik ez daukagun arren, ahalik eta ekologikoena izan dadin saiatzeko gara. Lehen egiten zuten moduan ekoizten ditugu sagarrak, alegia".



Sagarrak egurrezko kaxan, kontsumitzeko prest. MAIDAR ARREGI



NIRE USTEZ

JON KORTABARRÍA

Beharbada, noizbait

Ondotik igaro eta haserrea sumatu diot, baina hitz itsusiak ekidin ditu auto ondoan zutik zegoen emakumeak, etsipenez. Ulertzekoa zen haren haserrea. Hirian soilik atera zezakeen pasaporte, eta horregatik utzi du kotxea han. Hala ere, Udalak isuna jarri dio. Emakumea ez da ohartu, lehen beti han uzten baitzuen autoa. Orain, ordea, ezin omen da.

Etxera gogoetan doa. Autobusa maiz izan balu, erabiliko zukeen. Hala ere, erdigunera iristeko garraioan ez ziokeen balioko bere garraio-txartelak; hori ere traba da.

Ezin du ulertu, geroz eta oztopo gehiago ditu hiriko nahitazko egitekoetara iristeko. Alternatibak, oster, gutxiago. Lehen, behintzat, diruz ordain zezakeen hiriko autobusetan, eta bertakoen prezio berean bidaiatu.

Beharbada, txartel batekin guztia egin ahal izan balu ere, gehiago erabiliko zukeen. Akaso, noizbait posible izango du. Noiz?

Eskolako patioa egun euritsuetan soilik irekiko dute

COVID-19ak eraginda, kirol taldeen entrenamenduetarako eta eskolaren erabilerarako izan ezik, gainerako herritarrendako itxita egongo da eskolako patioa. Hala ere, egun euritsuetan patioa zabaltzeko akordioa iritsi da Udala Pausoka guraso elkartearekin elkarlanean.

Horiek horrela, zenbait baldintza bete beharko dira patioa

zabaldu ahal izateko: besteak beste, lau eremu ezberdinetan banatuko da patioa, ordutegiak izango dira, eremu bakoitzean hamar pertsona gehienez eta umeen kargu gurasoak egingo dira. Asteburuetan kantxa osoa erreserbatzeko aukera ere egongo da –informazio xehea patioan bertan Udalak ezarritako kartelean edo Goiena.eus/antzuola.

Eskola kirolarekin zer egin erabakitzen denean, baldintzak eta ordutegiak berriro egokitu beharko ditu, ordea, Udalak.



IMANOL SORIANO

Carbayeda nagusi Uzarragan

Buruntzapki taldeko Beñat Carbayedak irabazi zuen zapatuan jokatu zen Uzarragako igoera. Irabazlea Bellota-Goierri taldeko Nicolas Alustizarekin batera iritsi zen azken metroetara, eta esprintean nagusitu zitzaion. Lehen debagoiendarra Ulma taldeko Unai Cueva oñatiarra izan zen, eta Ekain Larrea antzuolarrak hamalagarren amaitu zuen sailkapenean.

Gehienez ere hamar laguneko taldeak

Zumba saioetarako ez da plaza librerik gelditzen, eta tai ji zein pilatesen zortzi dira, oraingoz. Gainerako jardueretarako zabalik da izen-ematea. Eskola kirola, berriz, astelehenean hasiko da, eta eskolako talde trinkoak errespetatzeko xedearekin

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Gimnasia lasaia, sasoiaren egoteko gimnasia eta spinninga eskainiko ditu Udal Kirol Zerbitzuak ikasturte honetan. Guztiak izango dira astean bitan, martitzenetan eta eguenetan, spinning talde bat salbu; talde hori osatzen bada, astelehenean eta eguenetan elkartuko da. Etor Garatek gidatuko ditu jarduerok, eta asteon egin ditu ate irekiak. Izen-emateak zabalik dira.

Tai jia, pilatesa, zumba, aretoko dantzak eta yoga ere aukeran daude aurten. Ainhoa Amestik gidatzen ditu tai ji saioak, eta zortzi lagun ditu taldean. Pilatesa eta zumba Maier Irزابalek gidatzen ditu, eta zortzi eta hamar lagun ditu izena emanda. "Zumba beteta dago. Pilateserako badaude oraindik bi plaza". Aretoko dantzen saioak Esti Bravok eskainiko ditu.

Yoga Lourdes Cidek eta Alazne Azkaratek gidatzen dute. Bost talde dituzte: bi yoga orokorrekoak, bi Uddiyana Bandha izenekoak -hipopresiboak- eta bat haurdun dauden emakumeendako. "Plazak badaude. Erabiltzaile bakarrarekin bada ere talde guztiak jarri ditugu martxan, inor animatzen bada aukera zabalik aurkitzeko. Haurdunendako taldean erabiltzaile bakarra dago, baina martxan da", adierazi du Azkaratek.

Segurtasun neurri bereziekin

Kirol eta Hezkuntza zinegotzi Ibai Etxanizek azaldu du Udaletik kirol protokolo orokor bat definitu dutela. "Monitore guztiei banatu zaie. Bestalde, monitore bakoitzak bere jarduera nola eramango duen azaltzen duen protokoloa aurkeztu behar izan du", gaineratu du. Distantziak mantentzeko eta garbitasuna ziurtatzeko neurriak ere hartu dituzte. Yoga eta tai jia, esaterako, squash kantxan egingo dituzte aurten. Kontuan hartu



Zumba eta pilates irakasle Maier Irزابal eguazteneko saioaren aurretik. L.Z.L.

ZUMBARAKO IZAN EZIK, BESTE JARDUERETARAKO PLAZA LIBREAK DAUDE ORAINDIK

beharko dute aldaketa hori squash kantxa erreserbatu nahi duten erabiltzaileek.

Eskola kirola, hastear

Eskola kirola martxan jartzea izango da hurrengo erronka.

Izena emateko epea atzo amaitu zen. "Behin-behineko egutegi bat definitu zen izen emateen aurreikuspen batekin, baina, behin datu guztiak ditugunean, egutegi hori zehaztuko da. Eskolan zehaztutako talde trinkoak mantentzea izango da helburua, baina hori izen emateen baitan egon daiteke. Aldunditik datozkigun jarraibideak besteetan baino zorrotzagoak dira eta horiek jarraituaz diseinatuko dira saioak. Besteak beste, familien idatzizko konpromisoa ezinbestekoa izango da", dio Etxanizek.

Ludoteka zabalik, astelehenetik

Elgetako Udalak eskaintzen duen ludoteka zerbitzua ere martxan izango da astelehenetik aurrera. 2-11 urte bitarteko neska-mutikoendako zerbitzua izango da, eta izen-emateen arabera antolatuko da, segurtasun eta higiene neurriak betetzeko. Han ere protokolo berezia egongo da.

Ludoteka zerbitzuak 16:00etatik 19:00etara zabalduko ditu ateak astelehenetik barikura bitartean, eta Nerea Villa izango da hezitzailea.

Urteko kuota 280 euro da, eta hiru hilabeteko bonua 120 euro. Hobariak badaudela nabarmendu dute Udaletik, eta bete beharreko baldintzen gaineko informazioa 943 76 80 22 telefono zenbakian eska daitekeela.

Abisua eta isun espedienteak herriko taberna bati

Bariku gauerdian jasotako dei batek jarri zituen ertzainak Elgetarako bidean, eta taberna hustu zuten

L.Z.L. ELGETA

"Dei bat jaso genuen esanez terraza erretiratuta zegoela baina jendea zegoela tabernaren kanpoko aldean distantziak mantendu barik eta edaten. Barruan, berriz, maskararik gabe zeudela. Bertaratu eta hala zela ikusi genuen", azaldu dute Ertzaintzatik. "Tabernariari atentzioa eman eta hainbat lagun identifikatu zituzten agenteek".

Zapatuan gertatu zen, 01:00ak aurretik, El Rincon de Lola tabernan. Bertaratutako ertzain kopuruak eman du zer esana

egunotan herrian. Taberna barruan zeuden bezeroei ere kanpora ateratzeko eskatu zieten.

Isun espedienteak zabalik

Isun espedienteak zabalik daudela adierazi dute Ertzaintzatik, eta hala baieztatu dute tabernatik ere. "Ikuskariak erabakiko du isuna dagoen eta egotekotan zenbatekoa den".

Eserita kontsumitu behar dela azpimarratu dute Ertzaintzatik. "Gauerditik aurrera ezin da zerbitzatu, eta tabernak 01:00etarako hustu behar dira".

NIRE USTEZ



NORA UGARTEBURU ELKORO

Edonor haserretu daiteke

Ez da batere erraza beste pertsona batekin gatazka bat daukagunean zuzen jokatzeko ari garen aztertzea. Egia da, hasiera batean, instintu moduko bati jarraikiz, beti uste dugula norberak arrazoia daukala eta bestea oker dagoela, baina pixka bat hausnartuz gero azkar ikusten da gauzak ez direla hain errazak.

Nire iritziz abiapuntu bezala bakoitzak bere burua zaindu behar du, bakoitzaren lana baita bere burua babestea. Gure beharrak adierazi eta besteengandik tratatu egokia exijitu behar dugu, bestela besteen desiren eta kapritxoaren menpe egongo ginateke. Baina, nola jakin gure burua defendatzen edo beste bat zapaltzen ari garen? Nola defendatu gurea bestearentzat tirano bihurtu gabe? Nun dago balantza?

Pasa den astean Aristoteles filosofoaren esaldi hau irakurri nuen, eta gai honen harira buruan bueltaka gelditu zait: "Edonor haserretu daiteke, hori oso erraza da. Baina pertsona egokiarekin haserretzea, maila zehatzean, une egokian, xede zuzen eta egokiarekin, hori, hain zuzen ere, ez da hain erraza".

OHARRAK

Intxortako Ahuntzak

Taldeak kirol-jertseak eta maskarak atera ditu salmentarako. Mahaia jarriko dute plazan, gaur 19:00etan eta bihar 13:00etan.

Haur eskola

Zabalik da matrikula epe berria, hilaren 9ra arte. Online zein haur eskolan hitzordua aurrez hartuta egin daiteke: 943 78 82 36.

'Zer irakurtzen dut' marrazki lehiaketa liburutegian

Gaia da *Zer irakurtzen dut* eta lanak urriaren 31rako aurkeztu behar dira. Hiru adin tarte daude: 5-8 urte, 9-12 urte eta 13-16 urte. "Parte hartzea librea da, baina sariak liburutegiko erabiltzaileen artean banatuko dira", esan dute liburutegitik. Liburua eta marrazteko materiala jasoko dute txikienean, eta 30 euroko erosketa txartela nagusiek.



Juan Ramon Garai *Intxortako Irrintzia* agerkaria esku artean duela. JUAN RAMON GARAI

Erbesteratutako haurren istorioak biltzeko lana

Memoria Astearen baitan, erbesteratutako haur debagoiendarren inguruko hitzaldia egin du Juan Ramon Garaik, Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak. Arrasatearraren arabera, gutxienez Debagoieneko 465 umek egin behar izan zuten ihes

Karmele Uribesalgo ELGETA

Memoria Astea egin dute Elgetan, Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak antolatuta. Horren baitan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Tartean da Juan Ramon Garai Intxorta 1937ko kideak egindako hitzaldia. Debagoieneko haur erbesteratuen inguruan jardun zuen arrasatearrak Espaloia kafe antzokian.

Garaik azaldu duenez, 979 debagoiendar erbesteratu ziren 1936ko gerra garaian. Horietatik 465 ziren 0 eta 16 urte bitarteko haurrak, gehienak Arrasatekoak: 560. Hala ere, gainerako herrietan ere izan ziren erbesteratuak. Elgetan, esaterako, gutxienez bi umek joan behar izan zuten atzerrira: Pilar Gorrotxategik eta Jose Luis Arantzetak. Go-

rrotxategik Frantziako Sellsur-Cher babeslekura egin zuen ihes. Gerra amaitzean Hendaia-ra joan zen, eta bertan hil zen. Arantzeta ere Frantziara erbesteratu zen, baina 1947an Elgetara itzuli zen.

Garairen hitzetan, Debagoienetik munduko hainbat txokotara joan ziren erbesteratuak: Frantziara, Belgikara, Sobietar

Batasunera, Mexikora, Argentinara eta Venezuelara joan ziren, besteak beste. Gehienek Eusko Jaurilaritzaren *Habana* ontzian egiten zuten bidaia. 4.000 haur inguru ateratzen ziren itsasaldi bakoitzean.

Istoriok biltzeko lana

Intxorta 1937 kultur elkartetik 30 protagonista elkarrizketatzeko aukera izan dute, eta testigantza batzuekin bideo bat osatu dute. Garairen arabera, gutxienez 60 gerrako ume daude bizirik oraindik bailaran. "Zen-

bakiekin batera istorioak berreskuratu ditugu", azpimarratu du. Garaik adierazi duenez, erbestera joan zirenek "sufri-mendu handia" pasa zuten, baina etxean gelditu ziren gurasoek ere garai latzak bizi izan zituztela nabarmendu du.

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEAK 30 PROTAGONISTA ELKARRIZKETATZEKO AUKERA IZAN DU

Grabaketa lanak Elgetan

Érase una vez... Euskadi filma grabatzen aritu ziren atzo Elgetan. Manu Gomez zuzendari arrasatearraren lehen pelikularen grabaketek eraldatu egin zuten herria, eta zenbait gorabehera eragin zituen mugikortasunean eta herriguneko zirkulazioan.

Abuztuaren 31 ezkerro, filmerako irudiak grabatu dituzte Debagoieneko hainbat herritan.



MIREIA LARRAÑAGA

Kantsatzeke taldeak mendi irteera egingo du domekan

Elgetako mugak eta mugariak ezagutzeko irteerak egingo ditu Kantsatzeke Mendi Elkarteak. Lehenengoa Elorrioko mugetara izango da. Domekan egingo dute, 08:00etan plazatik aterata, eta lau zapabost orduko buelta izango da. Pandemia dela eta, Kantsatzekek alde batera utziko ditu ohiko irteerak, eta Elgeta ingurura egingo dituzte txangoak.



Dokumentalaren irudi bat. GATTIKEN KOMUNIKAZIOA

'Goazen gabiriar danok' proiektzioa

Memoria Astearen barruan, *Goazen gabiriar danok* dokumentalaren proiektzioa izan zen martitzenean Espaloia kafe antzokian. 1936ko gerrak Gabirian izan zuen eragina jasotzen du. Andoni Maizen izen bereko liburua du oinarri, eta Gattiken Komunikazioak ekoiztu du.

Testigantzak biltzen ditu dokumentalak, eta zenbait pasarte ere irudikatu dituzte. 60 herritar inguruk antzeztu dituzte eszena horiek, Elgetako Udalak utzitako jantziak erabilia. Gattiken Komunikazioa-ko kide da Alex Areizaga, eta azaldu du "erraz eta gustura" ikusteko dokumental bat egin nahi izan dutela.

Gabirian aurkeztu ondotik, bigarren proiektzioa izan da Elgetakoa. Dokumentalaren egileek eskerrak eman nahi izan dituzte jaso duten laguntzagatik.

Arropa biltegiarako arduraduna behar da

Kale Zaharreko lokalean dagoen arropa biltegiaren koordinazioa Jose Antonio Urteagak egin du orain arte, baina ardura hori utzi egin gura du datorren uztailaren amaieran, eta ordezkotzako bila hasi dira elkartasun zerbitzu horrek etenik ez izateko

Oihana Elortza OÑATI

Hermansoloña elkarteak Kale Zaharreko arropa biltegiaren jasotzen dituen beharra dutenen artean banatzeko arropa eta bestelakoak. Jose Antonio Urteaga da biltegi horren koordinatzailea hasieratik, 2001etik, baina utzi egin gura dio ardura horri, eta ordezkotzako bila hasi dira.

2001. urtean Argentinara laguntza bidaltzeko hasi ziren arropa biltzen; hiru edukiontzi ere bidali izan dituzte hara urte batzuetan. 2017an itxi egin zituzten mugak eta harrezkero ez dute hara ezer bidali, baina urteetako lan horrek oihartzuna izan du eta hara ez ezik beste toki batzuetara ere hasi ziren bidaltzen laguntza duela bost bat urte. "Caritas elkartearekin serio kolaboratzen 2016. urte inguruan hasi ginen. Hotz Oñati elkartearekin dugun harremana ere orduan hasi zen gauzatzen eta Saharara bidaltzen



Kale Zaharreko lokalean arropa hartzen. O.E.

ere hasi ginen. Gero, 2018an, Larrañako egoiliarrendako beharra heldu zen. Eta egun jarraitzen dugu kolektibo horiekin guztiekin elkarlanean, arropa beharra dutenei laguntza hori helarazten", dio Jose Antonio Urteagak. Lo-

kalean jasotzen diren arropak antolatuta eta banaketaz arduratzeko prest dagoen norbaiten bila dabilta orain, Urteagak lana hori uzten duenean elkartasun zerbitzu horrek aurrera jarrai dezan.

Plaza ondoko karpak harrera ona izan du herritarrengan

Kirol eta kultura eskaintza gustura hartu dute herritarrek eta batzuetarako sarrerak azkar agortu dira

O.E. OÑATI

Herri kirolak, haurrendako antzerkia eta zuzeneko musika zein musika eta dantza ikuskitzuna daude antolatuta astebururako, eta ekitaldi batzuetarako ez da sarrerarik geratzen. Julen Alonso eta Oinkari eta Tio Teronen Semeak taldeak ikusteko sarrerak agortu dira dagoeneko. Gauza bera gertatu zen martitzen iluntzean Puro Relajo taldeak egindako emanaldian. Herritarrek gustura hartu dute, antza, egun hauetarako Udalak prestatu duen kirol

eta kultura eskaintza eta baita plaza ondoan jarri duten karpak ere; 200 lagunendako edukiera du, frontoiak beste. Orain artekoaren balorazio positiboa egin du Iñaki Olalde Kultura zinegotziak. Joan den zapatuan Ertzaintzak gaztetxean egindako interbentzioaz Olalde argitu du bazkaria bertan behera utzi zutela gazteek: "Gazteen lokal moduan ikusi zuten gaztetxea, eta itxita egon behar zela esan. Antolatuta zituzten ekintzez hitz egin genuen ertzainburuarekin, eta egitea adostu".

Zubikoa kiroldegiko frontisa handitu egingo dute

Zubikoa kiroldegiko pilotalekua neurri ofizialetan sartu gura dute, eta, horretarako, frontisa handitu egingo dute; 50 zentimetro igoko dute, 9,50 metrotik 10 metrora.

Zubikoa eraberritzeko lanen barruan aurreikusita zuten frontoiko zorua konpontzea eta larrialdi irteerak hobetzea, edukiera handitu ahal izateko. Baina frontoia neurri ofizialen barruan sartzeko lanak egitea ere pentsatu du Udalak, eta horretarako momentu aproposa orain dela iruditu zaio, pilotalekuaren erabilera txikitu egin delako COVID-19agatik. Horrela, neurri ofizialetara egokituko dute Zubikoako pilotalekua.

"Elkartasun zerbitzu honek jarraitu behar duela uste dut, beharra dago"

JOSE ANTONIKO URTEAGA KOORDINATZAILEA

Jose Antonio Urteagak (Oñati, 1948) 20 urte beteko ditu elkartasun arropa biltegiaren arduradun izaten datorren uztailaren.

Zer lan dakar arropa biltegiak arduratzeak?

Jasotzen dugun materiala -arropa, bizikleta, poltsa, jostailu...- sailkatu egiten dugu lehenengo Socorro Peña emazteak eta biok, eta gero, dauden beharrei kasu egin eta haiendako kaxak prestatu. Ez gaude bakarrik, laguntzaile talde ona dago gurekin.

Elkarteen eskaerak hartzen dituzue, ezta?

Hori da. Caritasek, Hotz Oñatik, Larranak eta Saharako taldeak, adibidez, behar dutena lortzen saiatzen gara, eta behar horiei erantzuten diegu. Norbanakoren bat arropa bila etortzen bada, gura lana egiteko modua azaltzen diegu, eta elkarte horietara bideratzen. Emaus-era ere eramaten dugu arropa.



GOIENA

Oñatin bakarrik?

Gehiena bai, baina Bilbora eta Andaluziara ere bidali ditugu kaxak, adibidez.

Beharra handitzen doa?

Caritas-era astero bidaltzen dugu arropa eta bolumena gero eta handiagoa da, egia esan; beharra handituz doa antza, bai.

Uste duzu elkartasun handia dagoela Oñatin?

Bai; herritarrek oso ondo erantzuten dute. Eskertzekoa da hori.

Zer gertatuko da ordezkotzako ez bada agertzen?

Dugun material pila ikusita, uste dut beste urtebetetz zerbitzua emango genukeela, jasotzeari utzita ere. Baina zerbitzu honek jarraitu behar duela uste dut, beharrezkoa da. Egia da lan apur bat ematen duela, baina jasotzen den poztasuna handia da.

Zeren beharra duzue orain?

Gizonendako oinetakoak, kirola egiteko prakak, gerrikoak, haur zein nagusiendako barruko arropak, maleta gurpildunak, mantak eta josteko makinak, adibidez. Josten hasi gura duten saharar familia asko daude eta makinak behar dituzte.



NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA

Ikasle ospetsuak

Oñatiko unibertsitate zaharrak izan zituen ikasleen artean, Foruen defentsan nabarmendu ziren ospe handiko hiru izen aipatuko ditut: Mateo Moraza eta Ramon Ortiz Zarate arabarrak eta Arturo Campion nafarra. Mendeetan zehar, Foruei buruz etengabeko eztabaidak izan ziren Euskal Herriaren eta Espainiaren artean. Borroka horiek areagotuz joan ziren mendez mendez, XIX. mendeko azken aldean galdu arte. Galera penagarri horren lekuko izan ziren, besteak beste, Oñatin ikasle izandako horiek. Mateo Moraza 1817an Gasteizen jaioa zen. Foruen aldeko lanagatik bere hirian eraiki zioten, Euskal Herri osoan egindako diru-bilketaz, Diputazio aurrean dagoen monumentua. Bere hiletari orduko hedabideek Alfonso XII.a erregearen ezkontzari baino garrantzi handiagoa eman zioten. Jose Mari Iparragirrek ere bertso-lerro batzuk eskaini zizkion. Ramon Ortiz de Zarate, Arriola herrixkan 1817an jaioa, Mateo Morazaren garaikide eta laguna zen. Arturo Campion idazle eta euskaltzale ospetsua, geroxeago, 1854an, Iruñean sortu zen.

Dirua eta bonuak merkatariei laguntzeko

Pandemiagatik egin dituzten inbertsioak diruz lagunduko die Udalak merkatariei eta ostalariei. Bestetik, bonu berriak ere aterako dituzte laster, herritarrendako eta herriko komertzioetan erabiltzeko. Aho batez hartu ditu erabaki horiek udalbatzak

Oihana Elortza OÑATI

Tokiko merkatariei eta ostalariei laguntzeko eta herriko kontsumoa bultzatzeko, beste bi erabaki hartu ditu Oñatiko Udalak: sektore horretako negozioek COVID-19agatik egin dituzten inbertsioak diruz laguntzea eta herritarrendako bonu berriak ateratzea erosketak herrian bertan egiteko. Aho batez hartu zituzten erabakiak iraileko ohiko osoko bilkuran.

Oñatiko Udalak 36.864,44 euro bideratuko ditu COVID-19agatik egin behar izan dituzten inbertsioetan laguntzeko. Hamar langile baino gutxiago dituzten herriko merkataritza eta osta-



Hainbat pertsona Kale Barrian pasean. O.E.

laritza sektoreko enpresendako da laguntza. Egoera honi aurre egiteko lokalak eta lan egiteko moduak egokitzeko egindako inbertsioetan laguntzeko da, "betiere, segurtasun eta osasun protokoloen irizpideak betetzeko eta bezero eta hornitzaileekin lan erlazio berrietara egokitzeko helburuarekin gauzatzen badira". Inbertsioak 2020ko martxoaren 14tik 2020ko azaroaren 6ra bitartean egindakoak eta ordaindukoak izan beharko dira eta dirulaguntza kostu hautagarrien %60 artekoa izan ahal da, 3.000 euroko mugarekin. Eskaera asko jasotzen badira, guztien artean banatuko da dagoen diru kopurua. Eskaerak egiteko epea azaroaren 13ra arte egongo da zabalik.

Bestalde, bonuak aterako dituzte herritarrendako, herrian kontsumitzeko. *Bonoak.eus* aplikazioa sortu du horretarako Udalak, eta laster egongo da gertu. 110.00 euro bideratu ditu horra; bonuen zenbatekoaren %20 diruz lagunduko du Udalak, 550.000 euroko erosketak mugimendua sortuz. Urte amaierara arte egongo da.

Elkarretaratzea gaur, joan den asteko lan istripua salatzen

ELA, LAB eta Steilas sindikatuek deituta, elkarretaratzea egingo dute gaur, egubakoitza, duela astebete lanera zihoala auto istripuan hildako irakaslearen omenez, eta lan istripua salatzen. Oñatiko Zuazola institutuko irakaslea zen hildakoa, eta haren lankideek egingo dute elkarretaratzea institutu aurrean, 12:00etan.

MUko fakultatera bueltatu dira hileroko odol ateratzeak

Azken odol ateratzeak Zubikoa kiroldegian egin ondoren, MUko Enpresagintza Fakultatean egingo dira berriz aurrerantzean, hango obrak bukatu dituzte eta. Odol emaleen elkarrekin eskerrak eman gura dizkie Udalari eta MUri euren beharrei erantzuteagatik. Urriko ateratzea gaur da, egubakoitza. Zitak Donostiatik kudeatuko dituzte.



Bizi . erosi maitatu Oñati

**URRIAREN
6tik
aurrera**

Lortu zure baso-termoa, Oñatiko dendetan erosterakoan lortuko dituzun zigiluekin kartilla betez.

*Urriaren 6tik aurrera eta izakinak agortu arte

Establezimendu bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu, idatzi txanda.oinati@hotmail.com helbidera







"Erromeria izango dugu aurtengo jaialdiko gaia"

GARAZI BILLAR LIZARGARATE TRIKITIZALE ELKARTEKO KIDEA

Urriaren 17an egingo dute Oñatiko XII. Trikiti Jaialdia, Santa Ana aretoan. Bi saiotan egingo dute aurtun, eta sarrerak salgai daude Txokolateixan eta udal webgunean

Maialen Santos OÑATI

Lizargarate Trikitizale Elkarte-ko kidea da Garazi Billar. Azken urteetan trikiti jaialdiko antolakuntza taldean dihardu, eta uste du bereziki aurtun "maila handia" egongo dela.

Hamabi urte daramatzazue jaialdia antolatzen. Zein bilakaera izan du?

Urteen poderioz indar handia hartu duela uste dut. Egia esan, hasieratik izan du erantzun ona, baina gogoan dut duela urte batzuk sarrera batzuk beti geratzen zirela sobera. Azken urteetan, baina, alderantziz da: sarrera guztiak agortu eta jendea joan ezinda geratzen da.

Nolako izaten da?

Gai baten inguruko jaialdia izan dadin saiatzen gara urtero. Gaia aukeratu eta horren arabera ekartzen ditugu parte-hartzaileak, edo alderantziz; horiek izendatu eta gero, gaia zehazten dugu. Edozelan ere, jaialdiari gure ukitua ematen diogu horrela.

Eta zein da aurtengo gaia?

Aurtengo gaia erromeria izango da. Osasun-krisiak behartuta aldaketa batzuk egin behar izan ditugu jaialdira begira, baina gaia pandemia aurretik ere baguen buruan.

Nortzuk dira parte-hartzaileak?

Zazpi bikote edo talde arituko dira, guztira, Santa Ana aretoan: Agurtzane eta Ion Elustondo; Jauregi, Gozategi eta Arrospide; Xabi eta Kris Solano eta DZ; Aritz, Josu eta Xabier Etxaniz eta Leire Larrañaga; Saioa Lizarralde eta Maddalen Artzallus; Tapia eta Leturia; eta Laja eta Lutxurdixo.

Nola aukeratu dituzue?

Urtarril inguruan pentsatzen dugu nortzuk izango diren gonbidatuak. Gero, martxoan, Azpitiko trikiti jaialdia egiten dute, eta horren ostean konfirmatzen ditugu Oñatiko gonbidatuak; ahal dugun heinean, trikitilari berak izan ez daitezten saiatzen gara eta.



Garazi Billar. G.B.

"OÑATIKOA MAILA HANDIKO JAIALDIA DA; ESFORTZUA ETA KONPROMISOA ESKATZEN DITU"

Parte hartzaile guztiak dute erromeriarekin zerikusia?

Bai. Modernoa eta tradizionala uztartuko ditugu. Parte hartzaileak dira lehengo edo oraingo erromeria ezagutzen dutenak.

Trikitilari oñatiarrik ez da egongo...

Azken urteetan, hala izan zedin saiatzen ginen. Baina iritsi zen une bat lan zaila egiten zitzai-gula. Maila handiko jaialdia da; konpromiso eta esfortzu handia eskatzen duena. Halere, herriko norbaitek parte hartu gurako balu, pozik hartuko genuke. Bestalde, aurtun maila handia egongo dela uste dut. Esperientzia handiko trikitilariak dira.

Aurtun, bi saio egingo dituzue...

Bai, osasun krisiak hala behartuta. Santa Ana aretoak 128 laguneko edukiera murriztua du orain, eta ekonomikoki jaialdia antolatzeak gastu bat dakar. Saio bakarrean eta hain ikus-

entzule gutxirekin ezingo genuke jaialdia aurrera atera. Era berean, jaialdia kultura sustatzeko modua da, eta aurtun ez genuen hutsik egin gura; has-teko eta behin, parte-hartzaileek egiten duten lanari errespetua zor diogulako. Horrek guztiak eraman gaitu bi saiotan egitera.

Sarrerak eskuragarri daude atzotik...

Bai. *Oñati.eus* webgunearen birtatez eta Txokolateixan esku-ratu daitezke, 12 eurotan. Hori horrela, zera eskatu gurako genuke: online bidez erosteko baliabideak dituenak hala egin dezala. Sarrerak Txokolateixan jartzea online zerbitzua erabili ezin duenak sarrerak erosteko aukera izan dezan ziurtatzeko modua bat da.

Oñatiko jaialditik proiektu berriak sortu dira...

Amak taldea jaio zen jaialditik. Urte bateko gaia *Emakumeak eta trikitia* izan zen, eta Kristina Solano eta Amaia Oreja, eta, bestetik, Alaitz eta Maixa etorri ziren. 10. urteurrenean saiatu ginen urte guztietako parte-hartzaile bereziak elkartzen, eta laurak batu genituen. Gustura aritu ziren elkarrekin, eta geroa sortu zuten Amak taldea.



lazko emakumezkoen gorengo taldea. ALOÑA MENDI

Entrenatzaileen laguntzaileak behar dituzte futbol sailean

Emakumezkoen gorengo taldean eta Erregional Mailako gizonezkoenean behar dute, batez ere, laguntza

M.S. OÑATI

Emakumezkoen gorengo talde-rako eta Lehenengo Erregional Mailako taldeetarako delegatu edo laguntzaileen beharra dutela azaldu dute Aloña Mendiko futbol sailetik. Nerea Uriarte eta Garikoitz Nuñez dira, hurrenez hurren, talde horien entrenatzaileak. Uriartek azaldu duenez, pertsona bakarrarentzat lan handia da entrenamenduak prestatu eta kudeatzea, eta, hori gutxi balitz, neurketak astebururo jokatzeko dituzte: "Entrenatzaileok afizio dugu futbola, eta eskertzekoa litzateke laguntza". Koronabirusaren eraginez hartu beharreko neurriek "are gehiago" zailtzen dituzte entrenamenduak: "Lehen, jokalariek laguntzen zidaten materialarekin, baina orain, nik bakarrik ukitu dezaket hori".

Nuñezek adierazi du futbolzalea den norbait beharko lukee-

la ondoan, baina ez hori bakarrik: "Konpromisoa hartzeko prest dagoen norbaiten beharra dugu; eta, jakina, futbol arloan ekarpena egin dezakeena". Horren harira, Nerea Uriartek azaldu du laguntzera animatzen denak entrenatzaileen "pareko" lana egingo lukeela: "Ez litzateke entrenatzailearen aginduetara egongo, alegia".

Deialdia bi talde horietarako baino gehiago, "orokorra" dela zehaztu du Uriartek, "jende falta orokorrean Aloña Mendiko sail ezberdinetan dagoen arazo amankomuna delako". Bere ustez, klub batek "biziraun" dezan funtsezkoa da laguntza.

Futbol eskola, geldi


Futbol eskola guztiz geldi da-goela azaldu du, bestalde, Auritz Larrea entrenatzaileak. Halere, "laster" hasi ahal izateko bilerak egiten ari direla argitu du.

Oñatiko zineman ere ikusi ahal izango da 'Akelarre' asteburuan

Akelarre filma gaur estreinatuko dute zinemetan, eta Oñatin ere asteburu honetan ikusi ahal izango da. Hain zuzen, gaur eta bihar 22:30ean eskainiko dute filma zinema aretoan; eta domeka eta astelehenean, aldiz, 19:30ean. Sarrerak *Oñati.eus* webgunean edota aretoan bertan eskuratu daitezke, bost euroren truke. Pablo Agüero argentina-

rraren azken lana da *Akelarre*. Herrian sorgintzat hartuak eta jazariak izan ziren emakumeen historia kontatzen du pelikulak, eta 68. Donostia Zinemaldiaren lehiaketa ofizialean egon da. Aktoreen artean Yune Nogueiras bergararra eta Lorea Ibarra arrasatearra daude.

Bestalde, haurrentzako zinema ere asteburuan hasiko da, *Bihurri* filmarekin. Zineklub denboraldiari, aldiz, urriaren 8an ekingo diote, *La familia que tú eliges* pelikularekin.



16. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

egin klik!

Beste behin ere, **Goienak** antolatzen duen **Udako Argazki Lehiaketak** aurreikuspenak gainditu ditu. Guztira, **429 argazki** jaso ditugu. Horregatik guztiagatik, parte hartu duzuen debagoiendar guztiei **eskerrik asko!** Datorren urtean ere zuen argazkien zain egongo gara.


Urriaren 9ko GOIENA aldizkarian izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

EUSKAL HERRIAN



TXIMISTARRI | Argazkia: Maika Gallastegi Meabe
SARIA: Gure Ametsa jatetxean bi lagunendako otordua.

NAZIOARTEAN




MARBOREKO LAKUA, HUESCA | Argazkia: Julen Axpe Alonso
SARIA: Zumaiaiko Zelai Talasoterapian zirkuitua eta menua, Arrasate Bidaiak-i esker.

PUBLIKOAREN SARIA



IZARREI BEGIRA (CUENCA) | Argazkia: Hodei Gomez de Balujera
SARIA: Bergarako Ereindajan-en eskutik bertako eta kalitatezko produktuen saskia.

PROTAGONISTAK



LABENNE | Argazkia: Saioa Ugarteburu
SARIA: Samsung Galaxy A20e smartphonea, Eroski Arrasateri esker.

Haserrealdi batetik urrea ere atera daitekeelako

ATLETISMOA Sevillan jokatu duten 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketara begira luzera-saltoan Eneko Carrascal zen favoritoa, eta presio horrek ez zuen arrasatearra kikildu. Bezperan onena eman ez zuelako amorratuta, domekan 'hegan' egin zuen

Xabier Urzelai ARRASATE

Motibatze gauza gutxi daude haserre egotea bezain eraginkorrak. Eta Espainiako Txapelketan Eneko Carrascalek haserre amaitu zuen zapatuko jardunaldia: "Badira egun batzuk egiten ari zaren saltoak baino hobeto jarduteko gauza zarela sentitzen duzuna. Eta horixe gertatu zitzaidan zapatuan egin genuen salto hirukoitzeko jardunaldian".

Arrasatearra bi aste lehenago, Madrilan, 15,90 metroko saltoa egitetik zetorren eta geroago eta gertuago ikusten zuen 16 metroko langa, baina Sevillan urrea jantzi zuen Ramon Adalia barkarik izan zen kapaz muga hori gainditzeko (16,07). Horregatik izan zen zapatukoa kolpe gogorra: "Ondo hasi nuen txapelketa, baina ez dakit orpoa jartzeko huts egin nuelako edo zergatik, ez nituen salto batere onak egin". Eta, hala ere, Realeko atletak zilarrezko domina jantzi zuen (15,51). "Haserre erretiratu nintzen zapatuko lansaiotik, ez nintzen batere gustura geratu. Eta domekan haserre hori nonbaitetik atera beharra zegoen".

Luzera-saltoan, bikain

Domekan luzera-saltoari egin behar izan zion aurre arrasate



Eneko Carrascal, asteburuan Sevillan lortutako dominekin. ARRASATE ATLETIKO

tearrak, eta, gainera, urrea janzteko favoritoetako bat zen, ordua arte urteko marka onenaren jabe zen-eta arrasatearra (7,41).

Hala, Bartzelonako atleta Xavier Barrubeselek eta Eneko Carrascalek oso lehia polita izan zuten. Azken saltora kataluniarra iritsi zen aurretik (7,46), eta hura gainditzeko arrasatearrak marka pertsonala ondu beharra zuen. Pentsatu eta egin, tentsioa askatzeko oihu batzuk egin eta korrikaldia hasi zuen Carrascalek: "Neukan dena eman nuen azken saltoan, etxera zilarrezko bi dominarekin itzuli behar izatea pentsaezina zen, sasoi onean nengoela ikusi eta marka on bat ez egitea..."

Carrascalek, baina, segituan ikusi zuen salto ona zela: "Ze marka zen esateko epaileek denbora apur bat hartu zuten, eta luzea egin zitzaidan itxaronaldia, baina 7 metroko langa erraz gainditu nuela bistakoa zen eta marka txukuna izan zitekeen". Bada, bai, arrasatearrak 27 zentimetro ondu zuen lehenagotik zuen marka (7,68). Oraindik Barrubeselek azken aukera zuen, baina Bartzelonakoak baliogabeko saltoa egin zuen, Carrascalendako zen urrea: "Ez dago ondo esatea, baina poztu egin nintzen baliogabeko saltoa egin zuela ikusi nuenean".

Atletismoaren ezustekoak

Realeko atleta Arrasate Irratian egon da aste barruan, eta asteburuan lortutakoaren kontaktuzuna egitearekin batera atletismoak dituen kontraesanen gainean egin du berba: "Izan ere, salto hirukoitza da ondoen prestatzen ahalegindu naizen modalitatea, luzera-saltoari ia ez diot kasurik egin, eta, kon-

trara, hortxe lortu dut markarik onena. Entrenatzailearekin eta entrenamenduak partekatzen ditudan lagunekin berba egiteak lagundu zidan zapatuko eguna alboratzen. Zertan kale egin nuen jakitea ez da horren zaila, nahiko identifikatuta daukat, baina zuzenketak egiteko denbora gehiago behar da, ez da horren erraz egiten".

Amaitu dute urte "arraroa"

Atletek amaitu dute COVID-19ak astindu duen denboraldi "arraroa", nahiz eta urte normaletan atletak orain hasten diren neguko denboraldia prestatzen. Txapelketak antolatuko zituzten ziurgabetasun handia egon da, eta egindakoak segurtasun neurriak beteta egin dituzte. Ikusle barik, gatz gabekoak ere izan dira txapelketa horiek: "Nik, gainera, salto egin aurretik ohitura dut zaleei animoak eskatzeko, txalo egiteko eskatzen diet, eta oraingoan ez zegoen publikorik. Berdin egin dut ohitura bilakatu delako, baina bai, igarri da harmailetan ez zegoela jenderik".

Atsedena bai, baina...

Datozen egunak atsedean apur bat hartzeko baliatuko ditu Carrascalek: "Baina ez dakit geldid egoten eta kirola egitea atsegin dut; horrenbestez, astebete inguru egingo dut lasai samar eta segituan jarriko naiz martxan osterara. Egia esan, ez naiz geldirik egoteko".

URTE OPAROA IZAN DA CARRASCALENDAKO, MARKA PERTSONALA ONDU DU BI MODALITATETAN

Unai Arietaleanizbeaskoak debuta egin du Eibarrekin

FUTBOLA Aurrelari bergararrak eguaztenean jokatu zituen lehenengo minutuak Lehenengo Mailan

X.U. ARRASATE

Unai Arietaleanizbeaskoak (Bergara, 1999) eguaztenean jokatu zituen Eibar taldearekin lehenengo minutuak Lehenengo Mailan. Talde nagusiarekin debuta abuztuan egin zuen Arie-

ta-k, baina lagunarteko partidua izan zen, eta aste barruan ligako lehenengo minutu ofizialak jokatu ditu. Ez zuen Eibarrek partidua ona egin Elxen kontra (0-1). Kanpotarren hasiera onak ezustean harrapatu zituen Men-

dilibarren mutilak eta Boyek kontraerasoan egin zuen 0-1eko. Bigarren zatian, aldeko penaltian kale egin zuen Edu Expositok, eta Mendilibarrek partidua nondik norakoak ikusita erasorako zuen bolbora guztia erabiltzea erabaki zuen.

Orduan zelairatu zituen Quique, Kadzior eta baita harrobiko jokalaririk Unai Arietaleanizbeaskoak ere, eta aurrelari bergararrak jaurtiketa bat egiteko tarte ere izan zuen; Badiak geratu zuen.



Arieta Atxabalpen lagunartekoan. TWITTER

ART emakumezkoen taldea izateko lanean dabil

Urteetan emakumezkoen talde barik egon eta gero, Arrasate Rugby Taldeak emakumezkoen taldea izateko lanean dihardu. Oraingoan, hobe jokalaririk baino gehiagoko taldea dabil Mojategin entrenamendu saioetan esku hartzen. Hasiberriak dira gehienak, eta klubetik deialdia egin diete ibarreko neskei, taldearen atea irekita daudelako.

Baskoniari irabazita, Easo dator Iturripera

SASKIBALOA Euskal Kopako bigarren jardunaldia jokatu du talde zuri-moreak domekan, Iturripen (18:00). Ikusleendako edukiera mugatua izango da -65 lagun- eta harmailetan egoteko lekua aurrez erreserbatzea nahitaezkoa izango da

X.U. ARRASATE

Iazko Euskal Kopako txapela defendatzeko helburuarekin hasi du Mondragon Unibertsitateak denboraldia, eta Kopako lehen jardunaldian Baskoniaren kantuan lortutako garaipenak hauspoa eman dio talde arrasatearrari, bai garaipenak eta baita partidua irabazteko moduak ere, zuri-moreek luzapenean lortu zuten-eta garaipena (86-89). Hala, garaipen horri esker Euskal Kopako lauko finalerako sailkatu dira jada.

Domekan, berriz, gipuzkoarren arteko derbia egongo da ikusgai Iturripen, Easoren bisita izango dute-eta zuri-moreek (18:00). Hala, klubak ahalegina egin du zaleek taldea harmailetatik babestu dezaten, baina neurri zorrotzak jarraituko dituzte horretarako. Gehienez, 65 lagunendako tokia egongo da harmailetan, osasun neurriak errespetatu beharko dira eta Iturripera sartzeko derrigorrezkoa izango da esteka honetan lekua erreserbatzea: <https://labur.eus/4Yv7E>.

Kopa, denboraldia prestatzeko

Liga txapelketa prestatzeko torneo a proposa da Euskal Kopa. Denboraldi-aurreko torneo da, baina azken urteotan zuri-moreak



Euskal Kopako lehen jardunaldian, Gasteizen. EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA

fundamentuz lehiatu dira bertan, azken bi edizioetan garaikurra etxera ekarri dute eta. Nahiz eta benetako helburua EBA ligan ondo jardutea izango den. "Aurten, gainera, aldaketa handiak izango ditugu ligan", dio taldeko kapitain Martxel Balantzategik. Izan ere, COVID-19agatik talde batzuk mailaz igo dira, baina inork ez du kategoria galdu eta beste urte batzuetan baino talde gehiago batu dira kategorian. Horrek ekarri du ipar konferentzian bi multzo beharrean hiru multzo sortu dituztela, eta egoe-

ra berri horretara egokitu egin beharko dute zuri-moreek.

"Egia esan, denboraldi-aurreko torneo hauek egokiak dira taldekideak hobeto ezagutzeko, baina aurten ez dugu arazo hori, taldean iaztik hona ez da-eta aldaketarik egon. Gehiago izango da liga hasierara begira erritmoa hartzen joateko torneo, baina Baskoniaren kontrako garaipenak [ligako lehenengo jardunaldia euren kontra izango dute, urriaren 18an] motibazioa eman digu torneo ona egiteko".

Harmailetan egon gura dute

FUTBOLA Realeko Ohorezko Gazteen aurka jokatu zuen eguaztenean partidua UDAK lehen taldeak eta publikoari atek zabaltzea erabaki zuen kirol elkarteak. Osasun neurriak errespetatuta, zaleek pozik hartu zuten erabakia, eta esertzeko hautatutako 200 jarlekuak - harmailen edukia %60- laster bete zituzten.



MIRARI ALTUBE

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira iraileko irabazleak!

'ARKADA SOCIAL' ETA 'EN TOL SARMIENTO' TALDEEN CD-AK
Luis Okina Agirre (Arrasate)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Iker Larrea Soralue (Antzuola)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Olatz Laborda Juldain (Bergara)
Beñat Aiaustui Irizar (Antzuola)
Aritz Alustiza Beristain (Bergara)

LASA JATETXERAKO BI PERTSONENAKO OTORDUA
Imanol Kortabarria Anduaga (Oñati)

TABERNA-BERRI JATETXERAKO BI PERTSONENAKO OTORDUA
Eider Garitano Arregi (Bergara)

ZUMELAGA JATETXERAKO BI PERTSONENAKO OTORDUA
Joxe Urtaza Etxezarreta (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak. Goiena Klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzteko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe mugatu izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Arazotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetara: Asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (Auzotz deitu hitzordua egiteko) Harreman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Saria jasotzeko***, zatorz GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** erakutsi edota **BAZKIDE ZENBAKIA** jakitera eman beharko da. GOIENA Oñatiaren Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Orduetara: Asteleheneretik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako otordua

MAULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzea: Urriaren 6ra arte

943 25 05 05 klub@goiena.eus

KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



ESKAINZA BEREZIA!!

Urrietik abendura bazkide: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • klub@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Moldatuta eta indartsu datoz Kooltur Ostegunak

Kultura "segurua eta beharrezkoa" dela aldarrikatzeke denboraldi berria zabalduko du Kooltur Ekintza taldeak datorren egunean, 22:00etan, Arrasateko gaztetxean; atzo ziren Rukula taldearekin abiatzekoak, baina bertan behera utzi behar izan zuten

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Egoerak hala behartuta, ezin izan zuen Kooltur Ekintza taldeak gura eta prestatuta zuen moduan borobildu hamargarren denboraldia. Martxoaren 5ean eskaini zuten azkeneko emanaldia, hain justu, Kataluniako Deadyard taldearen eskutik.

Hala, kultura segurua etaaldi berean beharrezkoa dela aldarrikatzeke hamaikagarren denboraldia abiatzea erabaki dute; eta atzo ziren lehengo emanaldia eskaintzekoak –Rukula taldearena–, baina azken orduan bertan behera utzi behar izan zuten, taldekide bat konfinatu egin zutelako.

Ekimenaren bultzatzaileek badakite aurtengoa ere ez dela ohiko denboraldia izango eta une oro moldaketak egin beharko dituztela; hala ere, aurrera egiteko apustua egin dute. Honela azaldu du Kooltur Ekintza taldeko Edurne Iraolak: "Kultura ekitaldiak modu seguruan egitea posible dela uste dugu, eta argi dugu kulturari bultzada eman behar diogula; izan ere, garrantzitsua da arloko teknikarien eta musikarien lana suspertzea". Eta zera gaineratu du Iker Barandiaran taldekideak: "Ez dugu kultura salbatuko, baina bide horretan gure aletxoak jarri nahi dugu".



Donostiako Raitx hirukotea izango da egunean Arrasateko gaztetxean. RAITX.

Segurtasun neurri zorrotzak

Kultura programatzaile guztien moduan, hainbat moldaketa egin dituzte gaztetxeke eguenetako emanaldietarako ere. "Aldaketa asko daude; esaterako, publikoa eserita eta maskara jantzita egongo da. Edukiera murriztu

PUBLIKOA ESERITA ETA MASKARAREKIN, EDUKIERA MUGATUA ETA BESTE HAINBAT NEURRI HARTU DIRA

egin da, baina ahaleginduko gara, gure mugekin, ahalik eta jende gehien sartzen. Distantziak mantendu beharko dira barrara edo *merchandising* postura joaterakoan; gela erabiliko behar da aretorea sartzeko eta irteteko orduan, eta datu pertsonalak hartuko dizkiegu kontzertura datozen guztiei, zerbait gertatuz gero edo kutsatze kasurik izanez gero harremanetarako bidea izan dezagun", azaldu du Iraolak.

Ohi bezala, maiatza bitartean eskaini gura dituzte astero kontzertuak, eta, horretarako, pu-

Urriko Kooltur Ostegunetako kontzertuak

22:00etan izango dira saio guztiak, eta 21:30ean zabalduko dute leihatila.

- **Raitx** Urriaren 8an, pop elektronikoa egiten duen Donostiako hirukotea izango da. Koban taldeko Esti Berazak eta Xalba Ramirezek sortutako taldea da. Gaztea saria irabazi dute aurten.
- **Victimas Club** Urriaren 15ean, taularen gainean eskarmentua duen *Pela*-ren –Sumision City Blues, Gramones...– talde berriaren txanda izango da; Jon Zubiaga *Osoron* arrasatearra ere kide da. Rocka eta bluesa, *Pela*-ren abesteko modu bereziarekin.
- **Amorante** Elgoibarko bakarlari gizon-orkestra urriaren 22an izango da. Kantu tradizionalak oinarri hartuta, doinu esperimentalak ditu ikur.
- **Lie Detectors** Urriaren 29an, ibilbide luzeko musikariak batzen dituen Donostiako boskotearen 60ko hamarkadako rock, garage eta yeye doinuak.

blikoaren jarrera ezinbestekoa dela dio Barandiaranek: "Inork ez gaitu behartu neurri horiek guztiak hartzera, baina gauzak ondo egin gura ditugu hasieratik; erantzukizunez jokatu behar

dugu guztiok, inor polizia lanetan ibili behar barik".

Sarrerak, zazpi eurotan

Sarrerekin ateratzen duten diruaren truke etortzen dira musikariak. Hamar urtean bost eurotan izan dira, eta aurrerantzean, zazpi eurotan. Edukiera mugatu egin dutenez, musikariei "duin" ordaintzeko helburuarekin hartu dutela erabakia azaldu du Barandiaranek: "Lehenagotik proposatu genuen igotzea, baina ez zen posible izan; orain, berriz, egoera bestelakoa da. Kultura ikuskizunak egin nahi ditugu, baina artistei eskaintza duina eginda, tratuan, soinuan eta ordaintzean ere bai".

Hamar urte ospatzeko, bideoa

Hamar urteko ibilbidean zehar 338 kultura emanaldi eskaini dituzte –317 musika kontzertu eta 21 bestelako ikuskizun–. Ez zuten gura eta prestatuta zuten moduan borobildu hamargarren urtea, eta, arantzatxoa kentzeko, ordura arteko ibilbidea laburbiltzeko eta balio emateko eta modu batera edo bestera ekimenarekin bat egin dutenak eskertzeko, bideo bat egin dutela kontatu du taldeko Adrian Ugaldek: "Kooltur Ostegunekin harremana duten hainbat laguni eskatu genien euren iritzia grabatzeko, eta guztiak batuta bideo polita zabaldu dugu sarean. Hor daude jasota Koldo Otamendi, Musikazuzenean-eko arduraduna; Ander Lipus, aktorea; La Furia, musikaria; AGAKOko kide bat; eta gurera sarritan etortzen den musikazale bat".


Aurrera begira datozenak

Askotariko musika estiloei tokia egitea da aurten ere duten asmoa, eta datozen hilabeteetarako hainbat lotu dituzte; besteak beste, Zetak, La Secta eta Skabidean.

MARITXU KAJOI

GOIENA TELEBISTA, HEMEN DEBAGOIENA SAIO BEREZIA
URRIAREN 2AN, EGUBAKOITZEAN. 18:00/20:00/22:00

goiena
20 URTE ZUENIN.



"Literatura panoramaren argazki erreala da liburua"

OIHANA ARANA ETA AROA ELORTZA IDAZLEAK

24 euskal gaztek idatzitako askotariko gaietako eta generoetako lanak batzen dituen 'Izotzetan islatuak' liburua aurkeztu zuen egubakoitzean Liberoamerika argitaletxeak

Aitziber Aranburuzabala ESKORIATZA Gazteen artean idazteko zaletasuna eta idazteko joera dagoela erakustea du helburu Liberoamerikak argitaratu duen *Izotzetan islatuak* liburuak; Oihana Arana eskoriatzarren eta Aroa Elortza bergararraren idatziak daude jasota.

Zerk animatuta hartu duzue parte?

Oihana Arana: Idaztea maite duen lagun batek eman zidan Liberoamerikaren deialdiaren berri, eta askorik pentsatu gabe animatu nintzen, proiektua interesgarria iruditu zitzaidalako eta baneuzkalako poema apropos batzuk aurretiaz eginak.

Aroa Elortza: Kuadrillako lagun baten bitartez jakin nuen nik ere. Ez naiz nire idazlanak askorik zabaltzea gustatzen zaien horietakoa, dezente lotsatzen baina; hala ere, azken boladan testu eta olerki motzak nire sare sozialetako profiletan argitaratzeko ausardia ateratu dut, eta, aukera hau ezin hobea izan zitekeela salto handiagoa emateko iruditu zitzaidan, beldur apur batekin bazen ere parte hartzera animatu nintzen.

Zer eta zeri buruz idatzi duzue?

O.A.: Poema bilduma bat da, *Fikzio puskak gara* izenekoa. Gai asko jorratzen ditut, hala nola denboraren joana, dolua... 2019ko udan idatzitakoa da.

A. E.: *Hitzak* du izena lanak eta iazko Koldo Eleizalde lehiaketan aurkezteko idatzi nuen. Lehiaketan lan luzeagoa aurkeztu banuen ere, liburuan *Hitzak* atala soilik agertzen da. Gai zehatzik ez duela esango nuke, hitzen garrantziaz idatzi dut.

24 idatzi, 24 idazleren eskutik.

O.A.: Bere txikitasunean anitza eta aberatsa den bilduma bat da, jende askok mimo handiz landu duena. Anitza diodanean zentzu guztietan ari naiz: literatur genero ezberdinak daude, idazkera ezberdinak, eta euskalkiz ere anitza da.



Oihana Arana eta Aroa Elortza *Izotzetan islatuak* liburuarekin. OIHANA ARANA

24 IDAZLE GAZTEREN LANAK BATZEN DITU LIBEROAMERIKA ARGITALETXE BERRIAREN LIBURUAK

A.E.: Lan bakoitza idazle ezberdin batena da; horietako batzuk, gainera, hainbat idazle elkarlanean sortutako testuak dira. Jasotako lanen artean aukeraketa egin zuten eta hala sortu zuten argitaratutako bilduma. **Idazle guztiak gazteak, eta gehienak, emakumeak. Ze garrantzi ematen diozue horri?**

O.A.: 30 urtetik beherakoak gara guztiak –%80 emakumeak–. Bi alorretatik da garrantzitsua, nire ustez: alde batetik, idazle gazteak ahalduzko tresna moduko bat delako; eta, bestetik, emakumeen kopuruari dagokionez ez dut uste inongo miraririk egin denik %80 horretara iristeko: beste hainbat esparrutan gertatzen den moduan, emakume asko dabil literaturan ere, nahiz eta hori ez den gero liburu argitaratuetan islatzen; *Izotzetan islatuak* literatura pano-

ramaren argazki erreala da. **A. E.:** Ez naiz inoiz emakumeen eta gizonezkoen arteko bereizketak egitearen alde agertu, guztiok idazleak gara sentitzen baitut eta ez zaidalako iruditzen horrenbeste garrantzirik duenik paperaren atzean zein dagoen, lana da garrantzitsua, irakurtzen den hori; hala ere, esan beharra dut pozgarria dela emakumeen presentzia hain handia izatea bilduman.

Non dago liburua eskuragarri?

A.E.: Liburu dendetan eros daiteke, eta *Liberoamerika.bigcartel.com* atarian ere bai.

Baduzue idazlan proiekturik esku artean orain?

O.A.: Poemek pila bat betetzen naute eta oso maite ditut, eta poemekin lotutako proiektu batean nabil orain buru-belarri. **A. E.:** Ez dut ezer zehatzik, hasitako hamaika testu eta milaka ideia, besterik ez. Dena den, pentsatzen hasia naiz erdi albo batera utzitako lan horiek guztiak txukundu eta zerbait egitea horiekin; antolatu, gutxienez, ordenagailuko fitxategi galdutan eta etxean edozein koadernotan idatzitako paper muturretan egon ez daitezten.

KOLABORAZIOA



IÑIGO ALBERDI AMASORRAIN

Soinu izaten jarrai dezala memoriak

1920ko irailaren 26an etorri zen mundura Migel Gonzalez Bastida, musikarien familia batean eta musika arnasten zen giro batean. Musika zen hizkuntza eta espresioidea, eta aurrerago, musika ere ogibide bihurtu zen guztientzat. Ikustekoak eta entzutekoak izango ziren familiarreko jai eta ospakizunak; melodien eta kontrapuntuen topagunea, seguru.

Migelen ibilbide profesional luzean, bandako zuzendari eta konpositore alorrak nabarmentzen dira beti, ulergarria denez. Bere lanak XX. mendeko euskal konpositoreen artean leku berezia ematen dio, obra ugari eta kalitate maila handiarekin. Estilo aldetik bere influentziak oso argiak dira, XIX. mendeko Gorriti eta Eslavaren mundutik, berriagoak diren Otaño, Guridi edo Sorozabalen estetikara. Eta ezin ahaztu orkestrazio oparoetako Rimski-Korsakov, Prokofiev edo Bizet, adibidez. Ez dira nolanahiko iturriak ez.

Gaurkoan, bereziki, Migelen beste fazeta bati egin nahi diot: bere organista izaerari, hain zuzen ere. Migel Bergarako Santa Marinako organista izan zen ia 70 urtez, aitari erreleboa hartuz. Organoa eta inprobisazioa erabat elkartuta dauden

MEDEURRENA ABAGUNE EGOKIA DA MIGEL GONZALEZ BASTIDARI DAGOKION TOKIA ESKAINTZEKO

munduak dira, eta horretan ere Migel maisua izan zen. Jazzeko musikariaren antzera, organistak momentu asko musikaz bete behar ditu, liturgiaren momentuaren arabera. Musika hori ez dago idatzia, organistaren burutik, eskuetara, hantekara, eta hortik gure elizetako organo ederretara zuzenean doan musika da. Beraz, momentuan sortu eta elizako gangetan hedatu eta bertan desagertzen dena, eraldatuta. Zer irudi ederra! Organista bakarrik, gehienetan, bere asmakuntzekin, teklatuan gora eta behera. Egun handietan, jarraitzaile korro txikia bueltan zuela, Migel pozik, eta entzuleak, txundituta.

Herrigintzaz ari garenean musika ezin dezakegu ahaztu, eta Bergaran, medeurrena abagune egokia delakoan nago Migel Gonzalez Bastidari musikari eta herrigile bezala dagokion tokia eskaintzeko. Organotik, zuzendari atriletik edo konpositorearen mahai bakartitik Bergara izan du taupada Migelek.

Lehenago, organo musikaren oihartzun hori desagertu egiten dela esan badut ere, ez da guztiz zehatza. Musikak hor jarraitzen du, nonbaiten, gure bihotzetan. Migelen memoriak, bere musikak bezala, soinu izaten jarrai dezala.



Gonzalez Bastida, 2001ean, Bergarako Santa Marina elizan. BUA (JUAN IDIGORAS FONDOA)

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Baseria salgai Leintz-Gatzagan. Baseria eta inguruko lur-sailak salgai Leintz-Gatzagan. Paraje zoragarrian eta herrigunetik oso gertu. Interesatuok deitu: 669 292 938

Bergara. Etxebizitza salten da, 55 metro koadroko duplexa, Arruriaga kalean; erdigunean hain zuzen ere. Ilogailua dauka eta altzariak ere bai. Zalantzak edo interesa edukiz gero deitu zenbaki honetara: 600 36 81 37 (Lourdes)

102. EROSI

Baseria. Oñatik bikote bat gara baserri bat erosteko interesarekin. Zerbait jakin edo saldu nahiz izanez gero, jarri harremanetan: 600 34 87 13

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaletan edo inguruan. Ume bat daukagun familia gara eta etxebizitza behar dugu errentan. Bi edo hiru logelakoa. 632 44 92 85

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. 640 71 78 55

Bergara edo inguruan. Pertsona bakarrentzat etxebizitza hartuko nuke errentan. Maskotarik gabe. 660 92 64 16

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan, bi edo hiru logelakoa. Berdin da altzaririk gabe badago ere. Interesatuok deitu 645 72 92 87

Etxebizitza errentan hartu. Kaixo! Arrasateko lau kideko familia gara eta erdialdean edo inguruan errentan hartzeko etxebizitza bila gabilza. Eskerrik asko!. 600 86 01 69

105. ETXEA OSATU

Etxebizitza edo logela bila. Etxebizitza txiki bat edo logela bat errentan hartuko nuke Arrasaten, Eskoriatzan edo inguruko herriren baten. Garraio publikoa erabili beharra daukat. 51 urteko gizon arduratsua naiz, indiakoa, ez erretzailea. Telefonoa: 722 27 88 89

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Olakua eta San Lorenzo artean garaje bat errentan hartuko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 00 79 81

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Senar-emazte adindu bat zaintzeko andere baten bila. 658 73 57 80 edo 605 76 32 72

Zaintza eta garbiketa. Arrasaten pertsona euskaldun bat beharko genuke, astean behin umei eskolarako prestatzen lagundu eta garbiketarako egiteko. Astelehenera, 7:30etatik 10:30ak ingurura. 635 70 96 43

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Arrasaldetan edo asteburuetan lan egingo nuke. Zaintza, garbiketa zein tabernan. 647 51 48 07

Arrasate. Arrasaldetan edo asteburuetan egun guztian lan egingo nuke (etxean bertan ere biziko nintzateke). 603 50 02 67

Bergara edo Arrasate. 16:00ak eta 20:00ak bitartean edo asteburuetan nagusiak zaintzeko edo bestelako lanetarako gertu nago. 631 79 31 92

Bergara edo Arrasate. Nagusiak zainduko nituzke. Dokumentuak egunean. 631 54 60 99

Bergarago neska euskalduna. Haurrak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntzako modulua dut eta haur hezkuntzako gradua egiten ari naiz. Astelehen, asteazkenean eta ostiral arratsaldeetan. 634 42 85 11

Debagoiena. 29 urteko mutila lanerako gertu: baserrian, zaintza eta abar. Legezko agiriekin. 600 86 41 39

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta ile-apaintzailerre eta estetika lanetan aritzeko gertu nago. Titulazioak eta autoa dauzkat. 631 98 11 50

Debagoiena. Barazki eta frutak jasotzen edota pakete eta janari banatzaile lanetan aritzeko gertu nago. Autoa daukat. 644 84 12 61

Debagoiena. Beharrezko agiriak eta espezialitate dituen emakumezkoa, orduka, asteleheneratik ostiralera, pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketarako egiteko prest. 627 03 16 40

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 602 01 32 58

Debagoiena. Gizona gertu denetarik garbiketarako egiteko edota nagusiei medikuntza, kalera eta

abarretara laguntzeko prest. Autoa daukat. Telefonoa: 645 72 92 87

Debagoiena. Mutila gertu gauez zaintza lanak egiteko. 659 90 85 13

Debagoiena. Mutila gertu tabernari moduan, garbiketara eta nagusiak zaintzen lan egiteko. Telefonoa: 640 71 78 55

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen eta garbiketara jarduteko gertu nago. Soziosanitario titulazioa eta erreferentziak. 653 36 85 80

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago. 631 36 06 44

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketarako egiteko prest. 640 70 57 97

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, sukaldari, dendari zein garbitzaile moduan esperientzia daukan neska lan bila. 632 87 19 85

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Autoa daukat. 688 69 40 84

Debagoiena. Nagusiak zainduko edota garbiketarako egiteko gertu nago. 632 33 19 27

Debagoiena. Nagusiak zainduko prest nago. 612 41 02 49

Debagoiena. Nagusiak zainduko prest nago. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 635 36 96 21

Debagoiena. Nagusiak zainduko prest nago. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 635 36 96 21

Debagoiena. Nagusiak zainduko prest nago. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 635 36 96 21

Debagoiena. Neska arduratsua gertu lan egiteko. Telefonoko: 637 12 15 95 edo 688 88 69 02

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: atari, elkarte eta etxeak garbitzen, edo nagusiak zaintzen. Gomendio agiriakin eta soziosanitario titularekin. Autoa daukat. 603 64 98 53

Debagoiena. Neska arduratsua zaintza lanetarako gertu. Baita asteburuetan ere. 603 33 18 29

Debagoiena. Neska arduratsua zaintza lanetarako gertu. Baita asteburuetan ere. 658 92 43 73

Debagoiena. Neska gertu lan egiteko: nagusiak zainduko, etxeko lanak eta

garbiketarako egitean, zerbizari moduan eta abar. 654 11 15 14

Debagoiena. Garbiketarako egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten ere bai. 632 33 19 27

Debagoiena. Orduka edota aste osoz lan egingo nuke etxeko langile moduan. 643 29 75 77

Debagoiena. Orduka nagusiak zainduko edota garbiketara lan egingo nuke. 622 24 86 64

Debagoiena. Orduka zein egun osoz nagusiak zainduko gertu nago. Baita asteburuetan ere. Telefonoa: 600 02 74 13

Debagoiena. Zaintza eta garbiketara lan egingo nuke. 643 73 62 36

Umeak zainduko gertu. Magisteritza ikasten diharduen neska umeak zainduko gertu. Telefonoa: 684 00 84 88

Zaintza. Umeekin arratsaldean igaroz, nagusiak paseatzeko edota txakurrak

edo etxeko maskotak zainduz lan egingo nuke. 688 60 98 30 edo 680 44 91 61 (Alaitz)

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Pertsona bat behar dugu Batxilergoko 1. mailako euskara, matematika eta fisika eta kimikako eskolak emateko. 653 72 28 19 (Jaione)

502. EMAN

Bergara eta inguruan. Neska euskalduna ingeleseko eskola partikularrak emateko prest. Beste arloetan ere laguntzeko aukera. Baita umeak zainduko ere. Esperientzia handiduna. Telefonoa: 656 70 13 72

Matematika eskola partikularrak. Matematika eskola partikularrak ematen ditut, maila guztietan. Matematikari graduatua naiz, euskaraz. Deitu edo Whatsappez idatzi: 693 40 89 93 edo 943 79 73 82

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover Defenderra behar dut baserriarako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburata, kolpearekin. Deitu 623 17 95 37 telefono zenbakira.

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurrak. Arratoi txakurkumeak ematen dira opari Arrasaten. Interesatuok deitu 642 72 69 10 telefono zenbakira.

8. DENETARIK

808. BESTELAKOAK

Arrasate-Donostia. Goizetan Donostiara joan behar dut ikastera eta 8:00ak baino lehenbeago bertan izatea komeni zait. Norbait autoz ordu horretarako joaten bada, gastuak partekatuko genituzke. Deitu 668 61 15 37 telefonora.

OROIGARRIA

Iñaki Sotil Arriaran

'Txulo'

2020ko irailaren 30ean hil zen.



Faltan botako zaitugu, Txulo, hutsune haundixa laga dozu gure artian.

Zure kuadrilla.
Bergaran, 2020ko urriaren 2an.

HILETA

Amaia Arregi Liziaga

Javier Aranzabalen alarguna

2020ko irailaren 30ean hil zen, 90 urte zituela.



Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, urriak 2, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Etorriko zaretanoi, bihotzez eskerrak aurretik familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko urriaren 2an.

Oharra: Familiak Arrasate Tanatorioan hartuko zaituzte, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era bitartean. Beilatiokian eta elizan maskara erabiltzea ezinbestekoa da.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

SAIO BEREZIA MARITXU KAJOI EGUNEAN

'Hemen Debagoiena' 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA

'DEBAGOIENA TURISMOARI IREKIA' ERREPORTAJEA

'Goiena: 20 urte, 20 albiste' 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarriak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarria bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarrien ondorioz daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA

**Marijo
Hernandez Sarasketa**

2020ko irailaren 26an hil zen.

*Izar bat piztu da
Marijoren etxean
Haren kanta hotsa dabil eternitatean
Horrelaxe mintzo da
isildu ezin diren gure bihotzetan.*

Antzuolako lagunak.
Bergaran, 2020ko urriaren 2an.

OROIGARRIA

**Marijo
Hernandez Sarasketa**

Eskolako gurasoa



2020ko irailaren 26an hil zen.

San Martin Agirre Herri Eskolako Komunitateak bat egiten du
famiariaren saminarekin.



Bergaran, 2020ko urriaren 2an.

OROIGARRIA

**Marijo
Hernandez Sarasketa**

2020ko irailaren 26an hil zen.

*Marijo, azkarregi jua za eta agur esatia gogorra da.
Elkarrekin bizi izan ditugun momentu onak
gure bihotz barruan gordeko ditugu betirako.*

Zure lagunak.
Bergaran, 2020ko urriaren 2an.

OROIGARRIA

**Maria Asuncion
Uribesalgo Bengoa**

'Asuntxi'

Hilariorbea Gallastegiren alarguna

2020ko irailaren 22an hil zen, 91 urte zituela.



Beti gure bihotzean izango zara.

Zure familia.
Bergaran, 2020ko urriaren 2an.

OROIGARRIA

**Luxio
Elorza Beitia**

2020ko irailaren 26an hil zen, 76 urte zituela.

*Senar, aita eta aittitta
beti ezin hobea
anai, osaba, lagun
benetan maitea
Etxan eta Bajonen
ein dozu bidea
plazer hutsa izan da
zu ezagutzea.*

Ormetzeko familiak.
Aramaion, 2020ko urriaren 2an.

OROIGARRIA

**Ana
Atxotegi Lonbide**

2020ko irailaren 25ean hil zen, 49 urte zituela.

*Oñatin elkar ezagututa
irakasle bikaina
egunero lanean gustura*

*irribarrea laguna
beti gogoratuko zaitugu
gure Ana maitea.*



Zuazola-Larraña institutuko lankide, ikasle eta gurasoak.
Oñatin, 2020ko urriaren 2an.

ESKER ONA

**Joxe
Garai Garai**

2020ko irailaren 27an hil zen, 67 urte zituela.

*Gure bihotzetan betiko!
Maitte zaitxugu!*

Eskerrik asko egun hauetan babesa
eta gertutasuna adierazi duzen guztioi.

Etxekoak.
Arrasaten, 2020ko urriaren 2an.

ESKER ONA

**Luxio
Elorza Beitia**

2020ko irailaren 26an hil zen, 76 urte zituela.

*Senar, aitte eta aittitte ezin hobea,
zein zoriontsuak izan garen zure alboan!
Eskerrik asko.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiarren izenean.

Arrasaten, 2020ko urriaren 2an.

MEZA

**Imelda
Iturbe Urcelay**

Dominika Anunciata lekamea

2020ko irailaren 13an hil zen, Burtzeña-Barakaldon, 94 urte zituela.

Haren aldeko meza domekan izango da, urriaren 4an,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Bere anai-arrebak, ezkon anai-arrebak eta bilobak.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aurrez eskerrik asko.
Bergaran, 2020ko urriaren 2an.

ESKER ONA

**Maria Josefa
de la Granja Ugarte**

2020ko irailaren 23an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiarren izenean.

Bergaran, 2020ko urriaren 2an.

ESKER ONA

**Encarnita
Peña Aramburu**

2020ko irailaren 25ean hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiarren izenean.

Tia, saiatuko gara zuk utzitako hutsunea betetzen.

Etxekoak.
Bergaran, 2020ko urriaren 2an.

Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

BABESLEA

*Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua izan, zuak nahi
duzun hiletaz-zerbitzua
aukeratzeko eskubide
osoa duzuela.*



*Lasaitasuna, maitasuna eta
laguntza dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



1



2




3



4



5



6

1. Nafar doinuez gozatzen

Aurten ere ez dute hutsik egin nafar doinuek Oñatiko ez-jaietan. Voces Ribera taldeak jota doinuez bete zuen plazako karpa. Herritarrek ere ez zuten hutsik egin, eta 60 bat lagun elkartu zen han, eserita eta segurtasun neurri guztiak beteta. Ikusleren bat ere animatu zen oholtzan zeuden taldeko kideekin abestera.

2. Ikasturtea hasi orduko, Urbiara

Gomiztegiko Artzain Eskolaren 24. ikasturteko ikasleek astelehenean hasi zituzten eskolak, eta herenegun, Urbiaraino joan ziren. Inguru haietan txabola duten hiru artzainekin egon ziren, euren eguneroko jarduna gertutik ezagutzeko. Eguerdiko atsedena eta mokadutxo Urbiako fondan egin zuten.

3. Zaleak, futbol gosez

UDaren Ohorezko Erregional Mailako taldeak Realaren Ohorezko Gazteen Mailako taldearen kontra jokatu zuen, eta zaleak itzuli ziren Ibarra harraila. Edukieraren %60 bete zen. Zaleak "gustura" hartu zuten erabakia eta pozarren ikusi zuten partidua. Realeko kideak dira Gorka Valle entrenatzailea eta Befiat Elkorobarrutia jokalaria.

4. Urrezko ezteiak beteko dituzte

Angel eta Txaro arrasatearrek urrezko ezteiak beteko dituzte urriaren 3an. 1970ean ezkondu ziren, eta behar den moduan ospatuko dute, etxekoekin eta lagunekin. Mezua bidali diete: "Zorionak, bikote, zuen 50. urteurrenean! Familiako kide guztion partetik, ondo pasatu eguna eta segi zoriontsu izaten! Maite zaituztegu!".

5. 25 urte ezkondua

Esther eta Berto oñatiarrak 1995eko irailaren 30ean ezkondu ziren. Hortaz, zilarrezko ezteiak bete zituzten herenegun. Etxekoek eta lagunak ez dute eguna ospatu. "25 urte pasa dira, baina ez du ematen. Denbora azkar pasatzen dela! Segi zareten bezalakoak izaten. Zorionak, bikote, familiaren eta lagunaren partetik".

6. Gaur ezkonduko dira

Nerea eta Joseba arrasatearrak gaur, urriak 2, barikua, ezkonduko dira, Arrasateko udaletxean. Ospakizun eguna dute, beraz. Eta, horren harira, etxekoek, senitartekoek eta lagunak mezu bana bidali diete. "Zorionak ezkonberriei! Egun ederra pasa ezazue, eta segi orain arte moduan zoriontsu izaten!".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzue? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



OÑATI

Danel Amenabarro Arregi
Urriaren 8an, 7 urte. Zorionak, maittia! Muxu handi bat, familia danaren parterik!



ESKORIATZA

Eñaut Etxebarrieta Altuna
Urriaren 5ean, 17 urte. Zorionak, mutill! Ondo ospatu zure eguna eta muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ARETXABALETA

Bittor Rios Izurategi
Urriaren 3an, 4 urte. Zorionak, maittia! Beste urte bat gehixau! Ondo-ondo pasatu eguna! Patxo handi-handi bat danon partetik!



ARETXABALETA

Ariane Uribe Covés
Urriaren 4an, 7 urte. Mila zorion familia osoaren partetik eta egun zoragarria ospatu etxekoekin.



ARRASATE

María Eugenia Urroz
Urriaren 3an, 70 urte. Zorionak, amama! Askok maite zaitugu! Patxo handi bat, familia osoaren, eta batez ere, Izarren, Unaxen eta Ioneren partetik!



OÑATI

Laia Irizar Palacios
Urriaren 3an, 5 urte. Zorionak, politt hori, etxekuen partetik!



ESKORIATZA

Txaro Kortazar Urbesalgo
Urriaren 1ean, 75 urte. Zorionak zure urtebetetzean. Egund ederra pasatu eta besarkada bero bat, familia osoaren partetik.



OÑATI

Eñaut Otxoa-Aizpurua Lizarralde
Irailaren 30ean, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako, Eñaut! Ondo pasatu zure eguna. Muxuak!



BERGARA

Naroa Markina Urizarbarrena
Irailaren 30ean, 5 urte. Zorionak, politt hori, familia osoaren partetik. Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna!



ARRASATE

Iñigo eta Ander Zabalo
Iñigok urriaren 1ean, 45 urte eta Anderrek urriaren 2an, 7 urte. Muxu handi bana, etxekoen partetik.



OÑATI

Hodei Ruiz Martin
Irailaren 29an, 10 urte. Zorionak, Hodei! Heldu da zure eguna! Askok disfrutatu. Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE

Beñat Hernandez Iturbe
Irailaren 29an, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako, mutikote. Belarritik tirakada bat eta muxu potolo handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA

Iñintz Alberdi Jorge
Irailaren 28an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu eguna familiarekin eta lagunekin. Muxu handi bat etxekoen partetik, pitxintxo.



OÑATI

Oihane Idigoras Ugarte
Irailaren 27an, 8 urte. Zorionak, Oihane, eta urte askotarako etxeko danon partetik. Urte berezi honetan, beste era batera, baina pozik ospatu egun berezila!



BERGARA

Maia Ugalde Iruin
Irailaren 27an, 2 urte. Zorionak, 'sorgintxo'. Zelako ondo pasatu genuen zure eguna, eh! Askok maite zaitugu eta jarraitu zaren modukoa izaten! Patxo handi bat guztien partetik.



ARETXABALETA

Urko Do Amaral Martinez
Irailaren 26an, 12 urte. Zorionak, Urko! Jarraitu zu zaren bezalakoa izaten. Mundiala zara. Askok maite zaitugu. Zure familia.



ARRASATE

Alejandro Duque Garcia
Irailaren 26an, 82 urte. Zorionak, Alejandro! Oso ondo ospatu zure eguna. Besarkada handi bat 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.



ARETXABALETA

Hodei Caballero Rodriguez
Irailaren 26an, 10 urte. Zorionak, Hodei! Egundon zoragarria pasatu zure familiarekin artean. Musu asko Arrasateko 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik. Bereziki zure aitona-amonak, Sole eta Berna.



ARRASATE

Oihan Castillo Romero
Irailaren 24an, 7 urte. Zorionak, Oihantxo! Askok maite zaitugu, txikitxo. Muxu erraldoi bat etxeko guztien, eta batez ere, Danelen eta Laiaren partetik.



ARETXABALETA

Manex eta Amaiur Arana
Manexek irailaren 24an, 12 urte eta Amaiurrek 29an, 9 urte. Zorionak, bikote! Patxo handi bana, familia danaren partetik!



BERGARA

Ega Zabala Pozo
Irailaren 18an, 5 urte. Zorionak, Ega! Jadanik bost urte! Oso ondo pasatu ginuan ospakizunean! Zorionak danon partetik; bereziki, lkerrenak.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 2

OÑATI 'Begi bistan' argazki erakusketa

Pandemiaren ondorioz bertan behera geratu diren ekintza batzuk islatu ditu Ilunpetan taldeak hainbat erretratutan.

Foruen plazako arkupetan, 10:00etan.

OÑATI Odol ateratzea

Deialdi irekia. Bereziki odol-emaile berriei egiten diete dei.

Enpresagintzan, 17:00etan.

ESKORIATZA Ate irekiak gaztelekuan

DBHko lehenengo mailako ikasleendako.

Gaztelekuan, 17:00etan.

BERGARA 'Beart-eko bekadunak' erakusketa

Bergarako Arte Elkarteak banatzen dituen bekak eskuratu dituztenek lanak ikusteko aukera, hilaren 4ra arte.

Aroztegin, 17:00etan.

ARAMAIO 'Feminismos negros' hitzaldia

Afrikako emakume migratzaileen gizarte-egoerari buruz egingo du berba Jeanne-Rolande Dacouagna Minkettek.

Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Txor txor', bakarriketa umoretsua

Euskaraldiaren baitan antolatutako emanaldia Nerea Arriolaren eskutik.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARAMAIO Arabako gazteen 25. eskolarteko bertsolari txapelketa

Oinak buruan delako txapelketak hiru saio izango ditu, eta horietako bat Aramaion jokatu da. 14-18 urte arteko bertsolariak igoko dira oholtzara.

Zabala elkartean, 19:00etan.

ELGETA Intxortako Ahuntzak Trail taldearen mahaia

Taldeko kirol-jertse eta maskarak salduko dituzte. Haurrendako eta helduendako.

Mendizaleen plazan, 19:00etan.



KUBIK

ARAMAIO 'Kubik' ikuskizuna haurrendako

Ingurugiroa ulertzeko harekin fisikoki esperimentatzen duten ume jokoetan oinarrituta dago ikuskizuna. Koloreak, formak eta bolumenak proiektatuko dituzte bi antzezlek.

Bihar, zapatua, kultura etxean, 18:30ean.

ZAPATUA 3

BERGARA Izan Bidea: argazkiak egiteko deia

Mendietara igoera maiatzaren 8an egingo dute.

San Martin plazan, 09:00etan.

ANTZUOLA Izan Bidea: argazkiak egiteko deia

Mendietara igoera maiatzaren 8an egingo dute.

Herriko Plazan, 09:00etan.

OÑATI Izan Bidea: argazkiak egiteko deia

Mendietara igoera maiatzaren 8an egingo dute.

Santa Marinaran, Arantzazun eta Araotzen, 09:00etan.

ARAMAIO Izan Bidea: argazkiak egiteko deia

Mendietara igoera maiatzaren 8an egingo dute.

Bizente Goikoetxea plazan, 10:00etan.

ESKORIATZA Izan Bidea: argazkiak egiteko deia

Mendietara igoera maiatzaren 8an egingo dute.

Fernando Eskoriatza plazan, 11:30etan.

ELGETA Intxortako Ahuntzak Trail taldearen mahaia

Taldeko kirol-jertse eta maskarak salduko dituzte. Haurrendako eta helduendako.

Mendizaleen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Sorginak taldea

Hauspo Egunaren baitan, Ibai-arteak gonbidatuta.

Herriko Plazan, 13:30etan.

ARRASATE 'Ez bultza egin' erakusketa

Euskal arte garaikideari buruzko bilduma ikusgai, hilaren 24ra arte.

Kulturaten, 17:00etan.

BERGARA 'O!' dantza emanaldia

Elirale konpainiaren eskutik, emanaldi bikoitza, 3 urtetik gorakoendako: 17:00etan eta 18:30ean. Sarrerak, lau euro.

Seminarixoan, 17:00etan.

OÑATI Herri kirolak

Herri kirolen erakustaldia egingo dute.

Zubikoan, 18:00etan.

ARRASATE Tanxugeiras taldea

Hauspo Egunaren, Ibai Artek gonbidatuta.

Herriko Plazan, 19:00etan.

BERGARA Organo

Erromantikoaren Nazioarteko Zikloa

Aitor Olea organistarekin eta Bergarako Musika Eskolako kideekin. Sarrera debalde, edukiera bete arte.

Santa Marina parrokian, 20:00etan.

OÑATI 'Sutan' dantza ikuskizuna

Julen Alonso musikari oriotarrak Oinkari dantza taldearekin batera



TROTAMUNDOS

ARETXABALETA 'Historias de un baul' antzezlan

Izenburuari izena ematen dion kutxa bat oinarri hartuta, malabarrak eta akrobaziak egingo dituzte. Zirkuko teknikak, umoreak eta antzerkiak bat egiten dute ikuskizun honetan. Sarrerak, hiru euro.

Etzi, domeka, Zاراia aretoan, 17:00etan.

egindako emanaldia. Debalde, edukiera bete arte. Sarrerak udal webgunean edo Txokolateixan. Plazako karpan, 20:00etan.

ARRASATE Amak taldea

Hauspo Egunaren baitan egingo dute kontzertua, Ibai-arteak gonbidatuta.

Herriko Plazan, 21:00etan.

DOMEKA 4

OÑATI Txistulari taldearen kalejira

Aita Madina taldekoen goiz-eresia herriko kaleetan zehar

Oñatiko kaleak, 09:00etan.

ARETXABALETA Artisauen azoka

Herriko artisauen produktuak erosteko aukera.

Durana kalean, 11:00etan.

OÑATI Abentura parkea

7-12 urte artekoendako jolasak. Eguraldi txarra egiten badu, kiroldegiko kantxan.

San Martin zuhaitzian, 11:00etan

BERGARA Bergarako txistulari bandaren kontzertua

Hil hasierako emanaldia Jose Miguel Laskurainek zuzenduta.

Debalde, edukiera bete arte. Osoko bilkura aretoan, 13:00etan.

OÑATI Musika bandaren kontzertua

Debaldekoa da, baina edukiera mugatua da eta aurrez hartu behar

da sarrera udal webgunean edo Txokolateixan.

Lazarraga lorategian, 13:00etan.

OÑATI 'Trakamatraka' haur ikuskizuna

Musika, sormena eta irudimena, birziklatzea eta ingurumenarekiko errespetua emanaldi berean. Doan, edukiera bete arte.

Plazako karpan, 17:00etan.

OÑATI 'Festamentua' ikuskizuna

Tio Teronen Semeak taldearen azken lana. Dantzari kuadrilla hileta batean elkartuko da. Debalde, edukiera bete arte. Sarrerak aurrez, udal webgunean edo Txokolateixan.

Zubikoan, 19:00etan.

ASTELEHENA 5

ARETXABALETA 'Paisaian margotzen' erakusketa

Matilde Sainz Osinagaren akuarela lanek eta Arantza Ozaetaren testuek bat egiten duten bilduma. Gaurtik hilaren 30era arte.

Arkupen, 11:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio eta eskubide duinak eskatzeko batuko dira.

Herriko plazan, 12:00etan.

ARRASATE Aikido taldea: haurrendako ikastaroa

Astelehenetan eta eguaztenetan, haurrendako.

Musakolan, 17:55ean.

ARRASATE Boxeo ikastaroa

Jabetze Eskolen baitako ikastaroa da. Gaur hasiko da eta zortzi saio izango ditu.

Emakume Txokoan, 18:30ean.

MARTITZENA 6**ARRASATE Ate irekiak auzoetako gazte txokoetan**

Musokolako, San Andresko eta Erguingo txokoak ezagutzeko aukera.

Gaztetxokoetan, 17:00etan.

BERGARA Emakumeen Bergara Hiria pilota txapelketa

Ligaxkako partidua. Pilota mistoekin jokatuko dira.

Udal pilotalekuan, 18:00etan

ARRASATE Autoestimatu eta ahalduntze ikastaroa

Gaurtik aurrera, hamar saio egingo dituzte.

Emakume Txokoan, 18:00etan.

ARRASATE Sormen tailerra

Gaurtik aurrera, hamar saio egingo dituzte. Besteak beste, idazmena, marrazketa edota collage teknika erabiliz emozio bilduma bat sortu nahi dute.

Emakume Txokoan, 18:15ean.

ARRASATE 'Las niñas' pelikula

Pilar Palomerok zuzendutako pelikula, zineklubean.

Amaia antzokian, 20:30ean.

EGUAZTENA 7**BERGARA Goienagusiren ikasturte hasiera**

2020-21 ikasturtearen hasiera ekitaldia.

Seminarixoan, 10:00etan.

ARETXABAETA 'Traka matrakoa' kontzertu didaktikoa

Birziklatutako instrumentuekin, 6 urtetik gorakoendako emanaldia. Debalde.

Herriko Plazan, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Bertako eta sasoiko produktuak erosteko aukera.

Oxirondon, Bergara 18:00etan

BERGARA 'Ema' pelikula

Jatorrizko bertsioan, azpitu-luekin. Sarrerak, hiru euro.

Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 8**ARRASATE Chi kung ikastaroa**

Jabetze Eskolen baitan, gaurtik hasita, eguenetan.

Emakume Txokoan, 10:00etan.

OÑATI Garbigune ibiltaria azokan

Egun osoan zehar.

Berdura plazan, 10:30ean.

OÑATI Pandero ikastaroa

Jose de Azpiazu musika eskolan emango dute. Ez da beharrezkoa Lengoia Musikala ikastea. Izena emateko: 943-78 31 74.

Musika eskolan, 17:00etatik 19:00etara.

BERGARA 'Zaharalduntze feminista: adinkeria ezagutzen' hitzaldia

Bizitzaren Fundazioko Nerea Fernandezek egingo du berba, emakumeendako eta ele bitan. Izena emateko: *berdintasuna@bergara.eus* edo 943-77 91 00.

Irizar jauregian, 18:00etan.

ARRASATE 'Tunba, irri egiten' besterik ez zekien lehoia' antzezlan

Bibliotekaren Egunaren harira. Didau Antzerki Faktoriaren eskutik, umeendako ikuskizuna. Debalde, edukiera bete arte.

Kulturaten, 18:30ean.

OÑATI 'La familia que tú eliges' filma

Tyler Nilson eta Mike Schwartz zuzendariena pelikula, zineklubean. Sarrerak, bost euro.

Kultura etxean, 20:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Raitx taldea

Rakel Arenaza Acebedo dago taldearen atzean. Momentu oso pertsonaletan sortutako poesiak musikatzen ditu. Gazteko maketa lehiaketa irabazi du aurten. Sarrerak, zazpi euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****Tenet**

Zapatua eta domeka: 19:30. Astelehena: 20:30.

Scooby

Zapatua eta domeka: 16:30.

BERGARA**SEMINARIXOA****Un amigo extraordinario**

Egubakoitza: 22:00. Domeka: 19:30. Astelehena: 20:30.

Bihurri (euskaraz)

Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****Akelarre**

Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domeka: 19:30, 22:30. Astelehena: 19:30.

EIBAR**COLISEO**

Akelarre Zapatua: 16:00, 19:00, 22:00.

Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

Explota, explota

Zapatua: 16:00, 18:00, 22:00. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA**Pinocho**

Zapatua: 16:00. Domeka: 16:30.

Rifkins festival

Zapatua: 19:45, 22:45. Domeka: 20:45. Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**BOULEVARD****Explota, explota**

Egunero: 17:00, 18:15, 19:40, 21:05, 22:20.

Rifkins Festival

Egunero, martitzena izan ezik: 17:15, 19:25, 22:30. Martitzena: 17:15.

Akelarre

Egunero: 17:50, 20:10, 22:25.

El ultimo refugio

Zapatua eta domeka: 17:30,

20:15. Astelehenetik eguenera: 17:10, 19:50. Egubakoitza eta zapatua: 21:00, 21:45.

Pinocho

Egunero: 17:00, 18:20, 19:45, 21:50.

Padre no hay mas que uno 2

Egunero: 17:05, 19:30.

After: en mil pedazos

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Tenet

Egunero: 18:00, 21:15.

Tenet

Egunero: 18:00, 21:15.

Antebellum

Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 22:30.

Trasto

Zapatua eta domeka: 18:10.

GORBEIA**Padres no hay mas que uno 2**

Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:25, 20:30,

22:30. Domeka: 16:20, 18:25, 20:30. Astelehenetik eguenera: 17:45, 20:30.

Trasto

Egubakoitzetik domekara: 16:35. Astelehenetik eguaztenera: 17:25.

Tenet

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:30.

Domeka: 17:15.

Astelehenetik eguaztenera: 19:20.

Eguena: 19:00.

Las niñas

Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 22:00.

Domeka: 17:10. Astelehenetik eguenera: 17:30.

Coco, el pequeño dragon

Egubakoitzetik domekara: 16:50. Astelehenetik eguenera: 17:20.

FLORIDA**Padre no hay mas que uno 2**

Egubakoitza: 16:30, 18:35.

Zapatua: 12:00, 16:30, 18:35. Domeka: 12:00, 16:30. Astelehenetik eguenera: 17:30.

La boda de Rosa

Egubakoitza eta zapatua: 19:35. Domeka: 20:15. Astelehenetik eguenera: 20:00.

Tenet

Egubakoitza eta zapatua: 17:30. Domeka, martitzena eta eguena: 19:50.

Trasto

Zapatua eta domeka: 12:00.

Pinocho

Egubakoitza: 17:00. Zapatua: 12:00, 17:00.

Domeka: 12:00, 17:40.

Astelehenetik eguenera: 17:20.

My hero. El despertar de los heroes

Zapatua eta domeka: 12:00.

100% wolf: el pequeño gran lobo

Zapatua eta domeka: 12:00.

Una pasteleria en Notting Hill

Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domeka: 20:15. Astelehena, martitzena eta eguena: 20:00.

Greenland: el ultimo heroe

Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.

Black beach

Egunero: 20:00.

La diosa fortuna

Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domeka: 20:45. Martitzena: 20:00.

Zapatos rojos y los siete trolls

Zapatua eta domeka: 12:00.

Eso que tú me das

Egubakoitza: 20:45. Zapatua: 12:00, 20:45.

Domeka: 12:00, 17:00.

Astelehena, eguaztina eta eguena: 20:00.

KRITIKA**Nunca, casi nunca, a veces, siempre ★★★★★**

Zuz.: Eliza Hittman. **Herr.:** AEB (2020). **Aktoreak:** Talia Ryder, Sharon van Etten. **Iraupena:** 101 minutu.

Funtsezko erabakia**ANTONIO ZABALA**

Autum haurdun dagoen 17 urteko neska, abortatzeko asmoarekin, Pennsylvaniatik New Yorkera joango da. Filmak prozesu guztia jarraitzeko aukera emango digu. Pare bat egunean hiriburuan oso diru gutxirekin moldatu beharko du. Ez du dirudik hotel batera joateko. Kaleak, metro geltokiak... zeharkatu beharko ditu, ospitalera joateko momentua heldu arte. New York hiriarren mugimendua eta eritmo frenetiko dago. Zuzendariak oso ondo deskribatzen ditu leku guztiak: Pennsylvaniako zerbitzu mugatuak, autobus eta metro geltokiak, New Yorkeko kaleak eta ospitaleko giroa. Hau da, sufritzen ari den egoeran inguruneak berak duen eragina. Oso ondo islatzen da Autumek jasaten duen odisea: gurasoen babesetik ihes egitea eta



FOTOGRAMAS

egoeraren erantzukizuna hartzea. Ematen duen pauso bakoitzak eragin emozionala du. Autumen erretatuarekin batera, oso ondo ikusten da bi lehengusinen arteko konplizitatea. Une latzak pasatzen dituzte, baita haserreko momentuak, baina ez dute ia euren artean hitz egin beharrik elkar ulertzeko.

Bi nesken pertsonaiak zehatzak eta sakonak badira, film osoan ez da gizona pertsonaia positiborik ageri: institutuko ikasleak, aita, mutil gaztea, supermerkatuko nagusia eta metroko gizona. Zitalak, zakarrak eta lizunak dira. Guztiak lortu gura dute zerbait emakumeengandik.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Laborategiak

Asteon jakin da Arantzazuko fundazioak gizarte berrikuntzako laborategia abiatuko duela, eragile debagoiendarren presentzia nabarmenarekin; Bergaran dago kokatua MonzonLab herrigintza laborategia; Gipuzkoan abiatzeaz da BadaLab, hizkuntza berrikuntzan esperimentatzeko; eta Eusko Ikaskuntza berrituak ere laborategi funtzioa aldarrikatu du, herri estrategia lantzeko tresna gisa. Hurbil samar ditudanak bakarrik aipatuta, bide batez.

Oso albiste ona da berrikuntza gose hau, bereziki gure herri izaeraren garapena bilatzen duelako. Beharrezkoa dugu etorkizunari buruzko galdera egokiak egitea, eta gure baitatik erantzunak bilatzea. Munduaren bilakaerak, berez, gu bezalako komunitateak desagertzea dakar, ez gara sistemarentzat beharrezko. Irautekotan, iraungo dugu munduan egoteko tokia, modua eta indarra aurkitzen baditugu. Laborategi lan itzela eskatzen du horrek.

Orain behar duguna da sortzen ari diren laborategiak herri estrategia partekatu baten baitan lankidetzan jartzea, elkarren osagarri, lehia guztien ginetik eta goi-interes guztien azpitik euskaldunok behar dugun zoru komuna indartzeko tresna izan daitezten.

BUKATZEKO

Goienaren sare sozialek hazten jarraitzen dute

'Goiena albisteak' Twitterreko kontu orokorrak asteon gainditu du 5.000 jarraitzaileen langa. Bestetik, Instagram da azken urteetan hazkunde handiena izan duen sarea. Debagoiendarrekin edukiak partekatzeko baliatzen ditu Goienak sare sozialek


Maialen Santos ARRASATE

Goiena albisteak Goienaren Twitterreko kontu orokorrak 5.000 jarraitzaileen langa gainditu du asteon. Kontu horretatik elkarbanatzen dituzte debagoiendar guztien interesekoak izan daitezkeen edukiak. Horretaz gain, herri bakoitzaren izena daraman kontu bana ere badu 2011 ezkerro; herri handienak, Arrasatek, ia 1.700 jarraitzaile ditu, eta Bergarak eta Oñatik ere 1.000tik gora. Beste bi kontu orokor ere badauzka, kirolarekin eta kulturarekin lotutakoak.

Mirari Altube Goienako Internet saileko arduradunak azaldu duenez, sare sozial horrek ematen dituen "abantailetako bat" azkartasuna da: "Esaterako, hauteskundeetan eta une berezietan azkartasuna eta gertuko informazioa uztartzea ahalbidetzen du sareak". Are gehiago, azken udal hauteskundeetan asko izan ziren gertuko informazioaren uneoroko jarraipena Twitter bidez egin zutenak.

Facebooken ere, gora etengabe

Era berean, Facebooken kontu orokorra eta herrietako kontuak ere kudeatzen ditu Goienak, eta gutzira 9.500 jarraitzaile inguru



Goiena albisteak Twitter kontuak 5.000 jarraitzaileen langa gainditu du. M.S.

ditu. Hilean behin, gainera, zozketak egiten dituzte Facebook bidez, eta Altubek azaldu du "arrakasta handikoak" izaten direla.

Twitter zein Facebook "zero kilometroko" edukia partekatzeko erabiltzen dituzte: "Argi dugu sare sozialek informazioa zabaltzeko egokiak direla, baina gure edukiaren jabe geuk izan behar dugu. Herritik sortua, herriarekin egina eta herritarrena da gure proiektua, eta ildo horri jarraituta lantzen dugun gertuko informazioa, debagoiendarren interesekoa, eta komunitateko kideekin sortutakoa zabaltzea dute helburu Twitterreko zein Facebookeko kontuek".

Instagramen hazkundea

Instagram da azken urteetan gehien "hazi" den sare soziala -ia 2.900 jarraitzaile ditu-, eta Goienaren "marka sustatu" eta herritarrekin "hartu-eman gauzatzeko" erabiltzen dute. YouTubeko kanalean, aldiz, erreportaje ateporalak eta iraingitze data luzeak eskegitzen dituzte. Jaietako saioak ere ikusgai daude bertan, eta "ikusmin handia" eragiten dute horiek.

Whatsapp eta Telegram dira Goienak dituen sarerik berrienak. Gutzira, 800 jarraitzaile inguru dituzte. Eguneko "albiste nabarmenenak" partekatzeko zein abisuak helarazteko erabiltzen dituzte. Osasun krisia hasi zenetik "nabarmen" egin dute gora albisteak mugikorrean jasotzeko eskaerak. Horiak Whatsapp bidez jaso gura dituenak ALTA bidali behar du 688 69 00 07 zenbakira, eta Telegramen jaso gura dituenak @GoienaAlbisteak kanalera batu behar du.

quironosalud.es

Zure osasun baskularrean espezialistak

Banizek tratatzeko erabiltzen ditugun teknikak ez dira batere inbaditzaileak:

- Mikroaparra
- Irrati-maiztasuna

Zerbitzaburuak: Roberto Domínguez Folgado eta Marta Fernández Fernández, Medikuntza eta Kirurgia lizentziadunak.

Aisientzia-arduraduna: Irune Cachocho San Pedro, Medikuntza eta Kirurgia lizentziatua.

A+ Applus HOSPITAL
Protocolo Seguro COVID - 19

Sar zaituzte online zure emaitzetan, eta kudeatu zure hitzorduak **Quironosalud.es**-eko 'Nire Quironosalud' eremuan edo gure **'app'**-ean.

Hospital **quironosalud** Vitoria